

ANAI FRANTZISKO
ARREBA KLARA

Idazkiak

"SINESTARGI" LIBURU SORTA

**anai
frantzisko**

**arreba
klara**

Idazkiak

**ARANZAZU argitaldaria
Oinati, 1977**

ITZULPENA TA SARRERAK:

Luis Villasante ta Jose Luis Zurutuza,
Arantzazuko fraileek.

AZALA:

Simone Martini-ren pinturaz,
Juan Arriola-k prestatua.

BEHAR DEN BAIMENAZ

ED. FRANCISCANA ARANZAZU

NUMERO DE REGISTRO 1.692

DEPOSITO LEGAL S. S. 594-1977

ISBN Nº 84-7240-097-2

**TALLERES GRAFICOS DEL SANTUARIO DE ARANZAZU
OÑATE (GUIPUZCOA)**

“SINESTARGI” LIBURU SORTA

Lehen —eta ez hain lehen, denen akorduan baita oraino aldi hura—, euskeraz argitaratzen zen dena edo ia dena erlijio kutsukoa izan ohi zen. Fedeaz, Elizaz, etab. zer ikusi zuena, alegia. Gaur, berriz, goizetik gauera, erlijio saileko euskal liburuek kale egin digute. Sail hori basamortu gorria bihurtzen ari zaigu. Badi-rudi fedeaz lotsatzen hasia dela euskalduna —eta areago euskaltzalea—.

Bai. Bihurgune handi batean gertatzen da gaur gure herria. Ez gara hemen hasiko aldaketa honen sus-traiak bilatzen, eta gutiago erantzukizunak eta erruak inori egozten.

Baina gertatuak gertatu, besoak gurutzaturik ere ezin egon gaitezke. Fedeko bizitzari bere bazka eta

mantenua zor zaio. Gaur eta hemen. Orain artekoaz ez du aski. Mende bakoitzak bere erantzuna, bereberea, berak bakarrik eman dezakeena ematen jakin behar du.

Gure artean nabaitzen den huts honi erremedio zerbait eman nahirik, Sinestargi sortari hasiera ematen diogu.

Jarri diogun izena, ez da guk asmatua. Orixe-ren Barne-Muinetan dator (54. orrialdean). Gure asmo eta helburuak aski egoki agertzen dituelako, sorta berria izendatzeko hartu dugu.

Sinestea du gizonak argirik preziatuena. Eta horren alde geure ahaltxoak egin nahi dugu, betiere Goikoaren laguntza eskatuz.

Anai Frantzisko — Arreba Klara duzue sorta berriaren lehen zenbakia.

Horren ondoren beste zenbait argitaratzeko ustea dugu. Aukeren eta eskabideen arabera, ordea, eta maiztasun jakinik gabe. Azken batean, inguruko gora-behera eta aitzingibelek aginduko baitute.

Argitaratzaileak

Arantzazun, 1977ko abuztuaren 11-an

AURKIBIDEA

	Orrialdea
ATARIKOA	11
1. San Frantziskoren idazkiak	14
2. Idazkien sailkatzea	18
3. Santa Klararen idazkiak	20
4. San Frantzisko eta Euskal-Herria	21
5. Edizio hau prestatzeko erabili diren tresna eta iturriak	26
6. Edizioan parte hartu dutenak	27
7. Zergatik eta zertarako argitalpen hau?	28

ANAI FRANTZISKO

Orrialdea

I. ATALA: ABISU ESPIRITUALAK	31
ESORTAZIO HITZAK	33
1. Jaunaren Gorputzaz	34
2. Borondate propioaren gaitzaz	36
3. Benetazko obediencia, eta benetazkoa ez dena	37
4. Karguak beretakotu nahi dituztenak	38
5. Ez dugula harrotu behar, eta Jaunaren gurutzean jarri behar dugula geure harrotasuna	38
6. Jaunaren segizioa	39
7. Obratze onak jarrai diezaiola jakiteari ..	40
8. Bekaizkeriaren bekatutik ihes egin behar dela	40
9. Etsaiak maitatzeaz	40
10. Grinei neurriak hartzeaz	41
11. Besteren bekatuagatik ez dugula asalatu behar	41
12. Jaunaren Espiritua ezagutzeaz	42
13. Pazientziaz	42
14. Pobretasunezko espiritua	42
15. Baketiarrak	43
16. Bihotzeko garbitasunaz	43
17. Jainkoaren zerbitzari apalaz	43
18. Lagun hurkoarenganako errukiaz	43
19. Ohoreen erdian apal izateaz	43
20. Egiatzko alegrantzia, eta egiazkoa ez dena	44
21. Arinkeria eta berritsukeria	45

22. Zuzenketaren onartzea	45
23. Egiazgo apaltasuna	46
24. Elkar maitasunaz	46
25. Egiazgo maitasunaz	46
26. Apaizak ohoratzeaz	46
27. Bertuteek kanpora botatzen dituztela bizioak	47
28. Jainkoagandik hartutako mesedeak ixilik edukitzeaz, gal ez daitezen	47

ESKUTITZAK 49

1. Fededun guztiei	49
2. Eliz gizon guztiei	61
3. Kustodio guztiei	63
4. Bere egunen azken aldera kapitulu jeneralari eta fraide guztiei bidali ziena	64
5. Ministro bati	71
6. Erresumetako buruei	73
7. Kustodio guztiei egin ziena	75
8. Anai Leon-i	77
9. San Antonio Paduakoari	78

II. ATALA: EBANJELIOAREN SEGIZIORA- KO BIZI-LEGEAK 79

Lehenengo Erregla	83
Bigarren Erregla	111
Bakartegietarako egin zuen Erregla	122
Gure Aita San Frantziskoren Testamentua ...	124
Sena-ko testamentua	129
Klara dohatsuari idatzitako bizimoldea	130
San Frantziskoren testamentua Santa Klara- rentzat	130

III. ATALA: FRANTZISKO OTOITZEAN .. 131

Gure Aita-ren Parafrasia eta Jaunaren gorespenak	133
Jainkoa goresteko esortazioa	138
San Damiango gurutzearen aurrean otoitza ...	139
Jainkoari gorespenak. Leon anaiari eman zion papera	140
Anai Leoni bedeinkapena	142
Birtuteei agurra	143
Ama Birjinari agurra	145
Frai Bernardori bedeinkapena	147
Klararen alabei bertsotan egin zien testamentua	148
Poz bete eta egiazkoaren gainean	149
Anai Eguzkiaren eresia	151
Jaunaren Nekaldiko Ofizioa	155

ARREBA KLARA

Santa Klararen Erregla	179
Santa Klararen Testamentua	198
ESKUTITZAK	207
Beata Ines Praga-koari (lehenengoa)	209
Beata Ines Praga-koari (bigarrena)	213
Beata Ines Praga-koari (hirugarrena)	216
Beata Ines Praga-koari (laugarrena)	220
Brujas-ko Ermentrudis-i	224
Santa Klararen bedeinkazioa	226
Gaien aurkibidea	229
Bibliografia	237

Anai Frantzisko XIII. mendekoa dugu. Halaz guttiz, haren mezuak —giharrari begiratzen baldin bazaio, eta axaleko kontu batzuk gora-behera—, balio trinkoa du gaur ere. Nik esango nuke, gainera, aparteko modu batean gaurkoa dela eta egokia guretzat.

Eta beharbada horregatik, gure aroak Anai Frantziskoren tira berezia nabaitzen du. Hori ematen digute aditzera ari buruz etengabe agertzen diren estudio eta liburuak. Maila guztietako liburuak: azterketa mailakoak, literatur mailakoak, herri xeheari zuzendutakoak, etab. Eta hori adierazten digu, baita ere, hura bizi izandako parajeak ikustera dihoan bisitatzaile errenka luzeak. Bisitatzaile hoiien artean badira erromesak, badira turistak, badira gazte kezkatuak, badira sinesgabeak. Zeren bila edo zeren galdez ote dihoaz hara? Zer bilatu uste

dute San Frantziskoren hildoan? Giza bizitzak sortzen dizkien problemen erantzuna ote? Agian bai.

Eta zinez, horren bila baldin badoaz, ez doaz zeharo huts eginak. Izan ere, Frantziskoren garaia eta gure honek badute elkarren antz handia zenbait puntu nagusitan.

Merkatari baten semea zen Frantzisko. Eta Frantziskoren denboran Erdi Aroko Europa hura feudal egoeratik bere burua atera nahiz dabil. Burjesia sortzen ari da Italiako hirietan. Klase honek bere lan, trebetasun eta merkatalgoari esker, gizarte mueta berria moldatuko du. Eta badakigu zein den ekintza guzti horren azken fruitua: ondasunen ugaritzea.

Ondasunen ugaritzeak, berriz, berez ona izanik ere, arrisku bat ekarri ohi du berekin: gizona bera liluratzea, zoratztea eta azkenean azpian hartzea. Orain bada, arrisku hontatik bere burua gorde nahi duenak ez du Anai Frantzisko bezalako bide erakusle eta gidaririk aurkituko.

Gu ere kontsumo gizarte baten umeak gara. Gizonaren ekintza eta aurrerapenak ekarritako zorabioak hartuak gaude. Eta geure buruari galdera hau egiteko ordua dugu: Baina bere eskuetako lanen azpian egon behar ote du gizonak, gero? Guk gerok egiten ditugun gauzek gatibu eduki behar ote gaituzte?

Frantziskok ematen duen erantzuna badakigu zein den: Izakiei ez lotzea. Munduko gauzen erdian eskuak garbi eta bihotza libre dugula igarotzea. Izakiak ez dira gureak. Usatu behar ditugu, noski, baina hoietaz jabetu gabe. Frantziskok soil eta libre, bererik gabe, igaro nahiko du munduan barna. Eta "gauzak" esatean jakin behar da jakin ez direla hemen sartzen ikus eta uki daitezkeen zerak soilki; gorputzezko edo materiazko gauzak bakarrik, alegia. Jainkoa ez, gainerako guztiak sartzen dira kontuan. Espirituzko dohainak eta Jainkoaren graziak berak ere bai.

Zinez, gaurko zoraldi eta mozkor aldian ez erortzeko, edo erori baldin bagara, handik irteten lagun-

tzeko, Anai Frantzisko baino lagun hoberik ez dugu izango.

Frantzisko ez zen guztiz eskola gabea. Bere haurtzaroan, Asis-en San Jurgi-ren elizan, ikasi zuen irakurtzen, eskiribatzen eta zerbait gehiago ere bai, baina edozein modutan ere ez asko. Ikastetxe nagusietan ez zen sekula ibili. Beraz, herriko gizon xaloa zen. Bere gisakoa, orijinala, kulturak nahasi gabea, huts soila. Hori bai: sermoiak entzutea eta liburu santuak irakurtzea biziki maite zuen. Eta atzemaiten zuena, luzaroan gogoan erabiliko zuen.

Ausnartze lan hori egiteko, otoitz egiteko, Jainkoa bilatzeko, bakartade zalea zen. Carceri, La Verna, Greccio, Fonte Colombo eta hautatzen zituen beste bizilekuek hori adierazten digute. Toki malkartsuak dira. Dena mendi, harkaitz eta oian beltz. Egungo zurrumiloan itorik gabiltzanontzat bada hor ere abisu bat.

Esan beharrik ez dago: Jainkoak du lehen tokia Frantziskoren bizitzan. Badakigu, sobra ere, zein den kristau fedearen erantzunari gaur maiz ipini ohi zaion goitizena: "Alienazioa". Bai. Aitor dezagun gogotik. Jainkorik ez balego edo Hura den bezalakoa ez balitz, geure burua eta bizitza osoa Hari ematea, ameskeria baten ondotik ibiltzea izango litzateke, haizea eta hutsa On trinkotzat hartzea. Beraz, engainu galgarri eta kaltegarri bat. Baina Jainkoa dagoenez gero, beste aldera dira kontuak. Jainkoa dugu gizonaren eta ororen zutabe, ardatz eta xede. Gure nondik norakoa, gure egarriaren asea.

Beste aldetik, gizarte zale ere bazen Frantzisko. Gizonen artean bizi nahi zuen eta bere semeak ere hoiien artean bizi zitezela nahi zuen. Bakartegietan bizi direnentzat erregla bat utzi baldin badu, era berean munduan barna ibiltzeko arauak ere eman ditu (Ikus 2. Erregla, 3. kapitulua).

Frantzisko Santu bat da, Elizak hartakotzat joa eta izendatua. Eta badakigu Santuak graziaren obra direla. Horrek, ordea, ez digu gizonaren alderdia ahantz

arazi behar. Eta guk ongi egingo dugu bi alderdiok haintzat hartzeaz. Izan ere, Kristoren obrak enkarnaziozko egitura bat du, eta ezin da, beraz, ez alderdi bata eta ez bestea ere gutietsi.

Guri, erlijiosoei, azken Kontzilioak lan gaitza egotzi digu: alde batetik gaurkotzekoa, baina bestetik nork bere iturrietara itzultzekoa. Bai. Erlijioso Ordena bakoitzak bere iturburuetara joaz, han aurkituko du eta handik jasoko du behar duen ur bizigarria. Iturburu hoiei leialtasuna gordeaz —eta ez bestela— abia gaitetzeke beldurrik gabe etorkizunera buruz. Sustraiak gorde: hori da, bada, lehen. Hargatik Anai Frantzisko eta arreba Klararen idazkiak sekula baino beharrago ditugu gaur.

1

SAN FRANTZISKOREN IDAZKIAK

Hemen, eta hasteko, galdera hau egin beharra dago: Frantziskok ba ote zekien idazten? Letrak egiten, bai, bazekien, noski. Baina idaztea hori baino zerbait gehiago da.

Gainera, haren denboran, herriko jendea, Italian, erromantzez mintzo zen; baina idatzizko zereginetarako latina erabili beharra zegoen. Latinez ere zerbait jakingo zuen Frantziskok, irakurtzen zuena ulertzeko aina bai, behintzat, baina idazteko, oso gutti, dirudienez.

Nolanahi den, utzi dizkigun idazkiok guti dira, eta laburrak. Eta utzi dizkigunak ere idazkari edo sekretarien bidez ginak.

Idazki hauen balioaz denaz bezanbatean, Paul Sabatier jauna izan zen erbia eraiki zuena. Bera konturatu zen, alegia, Frantziskoren ideia nagusiak jakiteko, berebereak zituen bideak ikasteko, ez zela beste iturrik honen pareko denik. Horrekin ez dut esan nahi, bistan da, Frantziskori buruz mende hartan idatzi zen guztia

gogoangarri ez denik: Zelano, Frai Leon, Hiru Adiskideak, Bonaventura, Fioretti, etab. Denek merezi dute, bai, gure estimazioa. Baina Frantzisko beraren idazkiak —nahiz eta axaleko gauza batzutan idazkariaren eskua ere beroietan nabari— beste iturri hoiek guztiak baino gorago jartzekoak dira.

Idazki hauetan badira zenbait ideia nagusi gure Aitaren pentsakera larru huts edo hezur hutsetan bezala agertzeraz ematen digutenak. Aitaren espiritualitatea, alegia, lerro lodiz azpimarkatua azaltzen digute idazkiok. Hemen ezin mintza gaitzake luze hortaz. Alusio bat edo beste egingo dugu, hala ere.

Itxuren arabera, bererik ez edukitzea edo desjabetzearen beharra: hauxe da idazkiotan gailurtzen den ideia nagusietarik bat. Gizonak badu grina gauzak beretzat hartzera, hoietaz jabetzera. Baina Jainkoaganako bidean, Jainkoari leku egin nahi baldin badiogu, soiltze eta desjabetze hori nahi-eta-nahiezkoa zaigu. Desjabetze hau ez du Frantziskok juridikoki hartzen. Beste zerbait da. Espirituaren planta edo jarrera bat. Eta orotara heltzen da: bai espirituzko eta bai materiazko izaki eta ondasunetara ere.

Frantziskok badu munduaren ikuskera bat feudal gizarte hartarik heldu zaiona. Hobeki esateko: fedearen ikuspegitik hartua eta feudal gizarteko kategoriekin azaldua. Feudalismo garaian Jaunak bere azpikoei lursailak partitzen zizkien, baina kondizio batzuekin beti ere: Jaunari berari leialtasuna gordetzeko hitz emanez, etab. Beren hitza eta zina hausten baldin bazuten, ondasunok kentzen zitzaizkien.

Eta hori da, hain zuzen, gizonari Jainkoarekin gertatu zaiona. Gizonak bekatu egin zuen. Geroztik dena galdu du. Ez du gehiago jabe izateko eskubiderik. Eta orain Jainkoak ematen digun guztia erruki hutsez eta limosna bezala ematen digu. Gizonak hala hartu behar ditu gauzak. Horregatik "Limosnagile handia" deitzen dio Frantziskok Jainkoari (Ikus S. BONAV. Legenda Maior, VII, 10).

Beraz, gizonak dena du Jainkoagandik limosna gisa hartua. Hori hala baldin bada, ez du deus beretzat hartu behar. Baina badugu grina bat gauzetaz jabetzera, eta hori da gure galgarria. Bekatua ere ez da horixe besterik: gizonak bere borondatea beretzat hartzea (Ikus 2. Admonizioa).

Eta alabaina, Frantzisko ez zen itsu munduko izakien ederrari ez ohartzeko. Halaz guztiz, ez zuen lore bat ebakiko eta beretzat hartuko.

Eguzki, Ilargi, Izar, Ur, Lur eta gainerako izakien ederra kantatuz kantu ospetsu bat utzi digu. Gutik dakite, ordea, noiz eta zer egoeratan egina den kantu hau. Ez, noski, eztitan zegoenean edo izakien ederra bete-betea dastatzen ari zenean. Gaisoz eta oinazez josia eta erdi itsutua zegoenean baizik. Anai Eguzkia-
ren dirdaiak min egiten zionean. Etzanik zegoen gelako arratoiek baketan uzten ez zutenean!

Desjabetze honek —lehen ere esan dugu— eremu guztiz zabala du, Jainkoaren beraren grazietarik hasi eta lurreko izakietaraino, espirituzko nahiz gorputzezko dohai eta ahalmen guztiak barnean hartzen dituela.

Guztiok dakigu zer-nolako amorioa zion Frantziskok Pobretasunari. Frantziskoren begietan antz aldatua ageri zen bertute hau. Andre edo Dama eder baten hazbegiez jantzia. Haatik, horren jabetza ere izan ez dezaten fraideek, haren ondoan beti, edo ia beti, beste bertute hau jarriko dizu: Humiltasuna. Ez zuen inola ere nahi bere semeak pobre bai, baina harro izatea!

Frantziskoren semeek denetarik ttipienak behar dute izan. Otzan, bake zale eta bake egile gizonen artean. Minoritate hitza gure egunotan modan jarri da. Esan behar da, halere, San Bonaventurak asmatutako hitz berria dela. San Frantziskoren pentsamoldea gogoan hartuz asmatua.

Frantziskoren jarraitzaileak ez du inor epaitu eta gaitzetsi behar. Bere burua soilki (2. Erregla, 2. kap.).

Hitz batez esateko: Frantziskoren semeek ez dute izan behar ondasunen indarrez, beren ahalen indarrez

edo beste inolako dohai distirakorren indarrez besteetaz jauntzen edo besteei inposatzen diren hoietakoak. Ebanjelio soil garbia segitzea, obretan mamitzea, itxurakeriarik eta espanturik gabe: hori dute beren bidea.

“Lotsagarria —zion Frantziskok— santuek obrak egitea, eta guk haien eginak kontatuz eta aldarrikatuz ohorea gureganatu nahi izatea!” (6. Admonizioa).

Badira, noski, Frantziskok bereziki maite zituen Ebanjelioko pasarte batzuk, azken Kontzilio honek ohoretan jarri eta arrunt bihurtu dituenak. Adibidez: “Ez nintzen zerbitzaturik izatera etorri, zerbitzatzera baizik”. Etab.

—oOo—

Baina guzti hau txanponaren bi aurpegietarik bata baizik ez da. Bestea, berriz, badakigu zein den: Jainkoa, Kristo, Kristoren urratsak eta aztarnak segitzea (Ikus Lehen Erregla, 22. kap.). Hitz batez esateko: Kristoren Ebanjelioa.

Eta Kristo Elizan dago. Eta Elizan Eukaristia dago, Jainkoaren hitza dago, Jerarkia dago, apaiza dago, Jainkoaren herria dago. Frantziskok badaki ez daukala Ebanjelioaren arabera bizitzerik, Elizarekin lokarri sendoak edukiz baizik. Bai. Harritzekoa da Frantziskok Eukaristiaren alderakotzat, apaizentzat, Apezpikuentzat, Erromako Aita Santuarentzat, fede katoliko huts garbiarentzat etab. agertzen duen atxikimendua.

Haatik, orduko garaiak ez ziren oraingoak baino hobeak! Herejiak nunahi. Eliza ofizialaren aurka iraultza predikatzen zen. Eliz gizonak munduko arazoetan eta gerretan burut-belarri sartuak, etab. Baina fedek badaki guzuzen eskola zulatzen eta mairaino heltzen.

Ebanjelioaren segizio hori, ordea, Frantziskoren semeek elkarrekin —Anaidi bat osatuz, alegia, eta anaiezko giro batean— behar dute zertu. Anaidia, anai maitasuna eta anaitasunezko bizitza da ebanjelioa egia

bihurtzeko giroa. Ez giroa bakarrik; baita bidea eta seinalea ere. “Persegítua balitz ere, ez bedi anaia anaien-gandik aparta”, esango du Frantziskok (3. Admonizioa).

2

IDAZKIEN SAILKATZEA

Frantziskoren idazkiak nolabait mordoskatuak edo sailkatuak emateagatik, honela hiru ataletan bildu dira:

- 1) Abisu Espiritualak
- 2) Ebanjelioaren segiziorako bizi-legeak
- 3) Frantzisko otoitzean

Esan dezagun hitzerdi bat atal bakoitzaren barrenean dagoenari buruz.

Lehenengo Atalean honako hauek datoz: Esortazio hitzak (Admonizioak) eta Eskutitzak.

Admonizioen bilduma oso zaharra da. XIII. mende erdirako eginik zegoen, biltzailea nor izan zen ez bada-kigu ere. Esortu hoiek, dirudienez, Frantziskok anaien batzarreefarako egiten zituen. Bere murritzean, Admoni-zioen bilduma honek Frantziskoren pentsamoldea eza-gutzeko baliorik handiena du.

Gero eskutitzak datoz. Txit interesgarriak hoiek ere. Guztira, bederatzi dira. Kustodio guztiei egindako bigarrena, berria da; Aita K. Esser-en edizio kritikotik hartua. Fededun guztiei egindako eskutitzaren bi rezen-sio dakar edizio honek, bata laburragoa, bestea luzea-go —mamiz biak berdinak izanik—: guk luzea sartu dugu.

Bigarren Atala.—San Frantzisko Erlijioso Ordena baten Aita Gidari eta Fundatzaile dugu. Bere seme eta anaia hoiek gidatzeko erregelak eta arauak eman

behar izan zituen. Egia da Frantziskok ez dakiela lege gorri eta soilak ematen. Legeak, arauak, esortuak, hitz eragingarriak, otoitzak eta goresmenak, Ebanjelistik aldatutako pasarteak: dena emango dizu pixka bat nahasian. Dena dela, hona hemen bigarren atalean zer dagoen:

Lehen Erregla. Esan beharrik ez dago San Frantziskoren espiritua eta Anaidiaren lehen aro heroiko hura ezagutzeko baliorik handiena duela.

Bigarren Erregla, Aita Santuaren Buldaz finkatu eta sendotua.

Bakartegietan bizi direnentzat egin zuen erregla-txoa edo bizimoldea.

Testamentua. Beharbada hau da San Frantziskoren idazkien artean orijinalena, hiltzerakoan diktatua. Aitarren barne-zokoak aparteko modu batean argitzen dizkiguna.

Sena-ko testamentua ere sartu dugu, Esser-en edizioetik hartuz. Zenbait urte lehenago, hiltzeko zorian jarri zen egun batez egina.

Gero Santa Klara-ri bidalitako bi pasarteak jarri dira. Egia esan, Santa Klara-ren erreglan ere badatoz.

Hirugarren Atala: "Frantzisko otoitzean".

Frantziskok, gutik bezala, dastatu du zer den Jainkoa. Otoitz eta ausnar aldi luzeak egin ohi zituela badakigu. Eta kontenplazio hoién aztarnak utzi dizkigu bere otoitz eta goresmen hauetan.

"Jainkoaren isiltasuna" eta horrelako erasiak gaur maiz entzun ohi dira. Jainkoa izkutatu balitz edo mutu bihurtu balitzaigu bezala. Jakina, gurea da errua. Gaurko gizona barreiatutik bizi da, zorabioan. Jainkoaren bila ibiltzeko ez daki astirik hartzen. Jainkoaren esperientzia edukitzea zer datekeen ere nekez konprenitzen du.

Hain zuzen ere, alde hortatik ere inoizkoak baino beharrago du egungo gizonak Anai Frantzisko, itsu aurreko ofizioa egin diezaion. Aski da haren edozein

orrialde irakurtzea gauza honetaz ohartzeko: gizon hark topo egin duela Jainkoarekin, haren bizitzan bere eskua sartu duela Jainkoak. Erabat itsu ez den nornahik ikus lezake hau.

Hirugarren atal hontan datozen idazkiak hauek dira:

“Gure Aita”ren parafrasi edo komentarioa eta Jaunaren gorespenak.

Jainkoa goresteko esortazioa.

San Damiango gurutzearen aurrean otoitza.

Jainkoari gorespenak. Leon anaiari eman zion papera.

Anai Leoni bedeinkapena.

Birtuteei agurra.

Ama Birjinari agurra.

Frai Bernardori bedeinkapena.

Klararen alabei bertsotan egin zien testamentua.

Poz bete ta egiazkoaren gainean.

Anai Eguzkiaren eresia.

Jaunaren Nekaldiko ofizioa.

3

SANTA KLARAREN IDAZKIAK

Maizenik, edo ia beti, gizonak ideal handi bat besarkatzen duenean, han du bere aldamenean emakumeen bat ere berari lagun egiten eta ideal hura garrik bizienaz bultzatzen.

Gure kasuan ere horrelako zerbait nabari da, eta ez dugu zer gehiegi harriturik.

Santa Klara izandu zen San Frantziskoren jarraitailerik suharrena, leialena. Frantzisko hil ondoan Klararen inguruan biltzen ziren hari leialtasun osoa gorde nahi zioten adiskideak.

Bidezkoa zen, bada, San Frantziskoren idazkiekin batean, Santa Klararenak ere argitaratzea.

Hona hemen zein diren:

1) *Santa Klarak berak bere mojentzat egin zuen Erregla. Erregla honek senidetahun handia du San Frantziskok bere fraideentzat egin zuenaz —haren bigarren Erregla deitzen dugunaz, alegia—. Santa Klararen Erregla hau Erromako Aita Santuaren Buldaz finkatua eta sendotua da. Hain zuzen, hil baino bi egun lehenago heldu zitzaion Klarari bulda hau (1253).*

2) *Santa Klararen testamentua. Hemen Klarak bere alabentzat azken abisu eta mandatu premiatsuak ematen ditu, batez ere hartutako bidetik behin ere aparta ez daitezen.*

3) *Beata Ines Praga-koari egindako eskutitzak. Lau dira. Guztiz ederrak, eta Klararen Jainko bidea ezagutzeko txit baliotsuak.*

4) *Brujas-ko Ermentrudis-i eskutitza.*

5) *Santa Klararen bedeinkazioa.*

—oOo—

Euskal-Herrian hainbeste etxe-komentu ditugu Santa Klararen alabenak.

Gure herri literaturan ere bada kantu ezagun bat, txit aspaldikoa:

*Beata Santa Klara
euskeraz Argia...*

Harrera on egingo ahal zaie bioi —Frantzisko eta Klarari— Euskal-Herrira egiten duten bir-etortze hontan!

4

SAN FRANTZISKO ETA EUSKAL-HERRIA

San Frantziskoren seme-alabak zaharrak dira oso Euskal-Herrian. Baina hari buruz euskeraz idazten ez dira nahikoa beranduraino hasten. Horrek ere ez gaitu

gehiegi harritu behar, ordea, euskeraren iragana izan den bezalakoa izan dela jakinik.

Erderaz, bai, aski goiz hasten dira liburuak. Gogora dezagun El Caballero Asisio, Bilbon XVI. mendean agertua. Ordudanik, San Frantziskori buruzko erdal literatura, gure artean, aski ugaria izan da eta da orain ere. Baina hemen euskeraz agertutakoaz xoilki esan nahi dugu zerbait.

Joannes Haranburu, frantziskotarra, Sara-ko semea, uste dut izan zela aitzindaria. Hark 1635. urtean atera zuen Debozino eskuarra, miraila eta orazinotegia, eta liburu horretan Hirugarrendarrentzat dakartzi gauzak: Hirugarren Ordenako Erregla, etab. Gero ere San Frantziskori buruz euskeraz egin den literatura guztia edo gehiena Hirugarren Ordenaren aitzakiaz egin da.

Eta hain zuzen, Hirugarren Ordenako Erregla, euskeraz hainbeste aldiz emana izan dena, guk ez dugu hemen San Frantziskoren idazkien artean sartzen, zeren kritikoen ustetan, ezpaita San Frantziskok egina.

Hego Euskal-Herrian, bada, joan den mendean aipagarri dira honako lan hauek:

CRISTOBAL LINAZA (1806-1866), Lemoan jaioa: San Francisco Gloriosoaren Novena, Tolosa 1860; San Franciscoc jarri zuan Irugarren Erreguela, Tolosa 1865.

GABRIEL NAVERAN (1852-1893), Arteagako semea: Gueure A. San Franciscoaren Penitenciaco Ordenaren... Erreglia, Tolosa 1884.

Baina batez ere aipatzekoa da Aita KRISPIN BEOBIDE (1848-1891), Azpeitiko semea. Honek, Asis-ko Loria izenaz, Aita San Frantziskoren Bizitza bat, aski luzea, eman zigun. Tolosan agertu zen 1885ean; Auspoak 1966an berriz argitaratu du. Ama Sorazuk, bere gazte denboran, Jainkoagana bihurtu zenean liburu hau erabili zuela kasi segurtzat jo daiteke.

JUAN R. LARRINAGA (1876-1954), Gernikako se-

mea: Aita San Franciscoren Irugarren Ordenako Erreglia ta Indulgenciac, Durango 1906.

*Gure mende hontan —eta mendearen hasiera alde-
ra—, frantziskotarren artean badira bi izen gogoan-
garriak: Aita Ugarte eta Aita Azkue.*

*JOSE ANTONIO UGARTE (1860-1935), Angio-
zarko semea, Hirugarren Ordena eraikitzen hainbeste
lan egin. Liburu hauek ditu: Lore Sorta edo San Fran-
tziskoren Irugarren Erregla, Tolosa 1900. Aita San Fran-
tziskoren Irugarrengoeztat Eleiz kantak, Tolosa 1900.
Zeruko Mana Gozoa (eliz-liburua), Tolosa 1924. Ondo-
ko urteetan makina bat aldiz bir-agertu da liburu hau.
Baita hileroko orria ere atera zuen Aita Ugartek: Iru-
garrengoen Irakaslea, Zarautz, 1917-1923.*

*JOSE MARIA AZKUE (1869-1938), Gipuzkoako
Errenterian jaioa. Liburu hauen egile edo itzultzaile
duzu: Aita Prantzisko Donsuaren eta bere Praillien
Loratxuak (Fioretti liburu famatuaren itzulpena), To-
losa 1923.—Asistar Prantzisko Donearen Bizitza, Bil-
bao 1925. (Italieraz Santarelli-k egin zuenekoetik eus-
keratua).*

*Ikusi den bezala, Aita Ugarte hasi zen, Hego Eus-
kal-Herriko frantziskotarren artean, hileroko orri bat
Hirugarren Ordenakoentzat egiten. Orri honek geroago
segida izan du Anaitasuna izenaz, eta beronen ardura
izan dute A. Jose Antonio Garate eta Jose Agustin
Elustondok. (Esan dezagun haatik, ez dakienaren fabo-
retan, Anaitasuna orri hau eta Bilbon izen berberaz
argitaratzen dena ez direla berdinak).*

*Aipagarri da, baita ere, Iruzkiaeren Abestia, J. M.
SATRUSTEGIK euskeratua eta dena irudi eta kolore
emana: Etorkizunaren Bilduma, Abadia de Montserrat.*

*Esan beharrik ez dago Aránzazu aldizkariak bere
bizitza luzean barna, bai artikuluak eta bai olerkiak
ere agertu izan dituela San Frantziskori buruz.*


Santa Klararen bizitza bat ere, I. ALUSTIZAK

egina ere, agertu zen sailka Aránzazu aldizkari hontan 1953. urtean, 242, 280, 316, 342 eta ondoko orrietan.

Bertsolarien munduan ere kantatu izan da San Frantzisko. Esate baterako hor dira Gubio-ko otsoari Gesaltzako Grazianok atera zizkion bertsoak. Ikus Aránzazu, 1962, 310.

Egunean eguneko Santuaren bizitza eman zigun, hiru tomotan:

INAZIO MANZISIDOR S.J., Santu Bizitzak, 1958-1959, Bilbon. (Santa Klararena, 2. liburuan, 477-481 orr.; San Frantziskorena, 3. liburuan, 136-142 orr.).



Aita Kaputxinoak ere San Frantziskoren Ordenako adar bat dira. Eta Hego Euskal-Herriaz gainera, hor da Ipar aldekoa ere.

Horregatik, Aita Polikarpo Iraizoz eta Pierre Lafitte jaunari xehetasunak eskatu genizkien. San Frantzisko eta Hirugarren Ordenari buruzko euskal bibliografia, alegia, hark Hego Euskal-Herriko Kaputxinoena, eta hunek Ipar Euskal-Herrikoa, arren, bidal diezaguten. Eta biek gogotsu eta bete-betean erantzun diote gure eskariri. Bihotzetik eskerrak ematen dizkiegu. Lafitte jaunak, gainera, monografia labur baina aski osoa bidali du Ipar Euskal-Herriko frantziskano eta klarisei buruz. Zoritxarrez gai hori gure xedean zuzen eta artez ez baita sartzen, ez dugu hemen San Frantziskori eta Hirugarren Ordenari buruzko euskal bibliografia baizik aipatzen¹.

Hona hemen Hego Euskal-Herriko Aita Kaputxinoena:

Liburuak:

—Irugarren Senidetza, Eskoriatzar Aita Meltxior

(1) Lan hau *Gure Herria* aldizkarian agertu da: P. LAFITTE, "Frantses Asis-tar sailduaren ordenak Ipar-aldeko Euskaldunen artean", G H 1976, 207-216.

Kaputxinoak egindako liburua, *Iruugarren Ordenako senide eta beste kristau guzientzat oso egokia: Donostian*, 1924.

—Iruugarren Ordenako zuzenbidea (*aurreko liburu hortatik hartua eta berex argitaratua*), *Donostian* 1924; *Irun-en*, 1935.

—B. ATAUN, Prantzisko deunaren bizitzatxoa 1226-1926; *Iruñako Kaputxinoetan*, 1926.

Aldizkariak:

—Irugarrengo Prantziskotarra (1913-1936). *Aita Polikarpo eta beste zenbait lagun hor hasi ziren euskeraz idazten, gazterik, meza eman gabe.*

—Zeruko Argia (1919-1936). *San Frantziskori eta haren Ordenei zegozten gaiak ere erabili ziren bertan alde askotara: hitz laxoz, neurtitzetan, kantuak, musika... Hor agertu zen (uztaila, 1922) "Il Cantico di Frate Sole", Urtsuyak euskeratua. Geroago euskerazko hitz hoiei Aita Tomas Elduayengoak musika ezarri zien (Zeruko Argia, 1929-1930).*

"Cantico" horren beste euskal itzulpen bati Aita Donostiaren musika ipini zaio (Cf. "*Obras musicales del P. Donostia*", t.V, Santoral, 1976; *Archivo P. Donostia, Lecároz*).

—oOo—

Ipar Euskal-Herriko bibliografia:

Gorago aipatu dugu Aita Haranbururen liburua, XVII. mendekoa, mende horretan hiru edizio izan zituen.

Geroztik aipatzekoak dira beste hauek:

Biografiak:

LARREGUI, Testamen Zaharreko eta Berriko historia, 1777; bigarren tomoan: "*San Frantses*" (pp. 395-405) eta "*Santa Klara*" (pp. 441-447).

JOANNATEGUI, Ehun bat sainduen bizitzea, 1876 (pp. 329-334).

Kantikak:

Zaldubi-k: "San Frantses Aita ona".

Iratzeder-ek: "Xoriek sistu".

Aita Bruno-k: a) "O gure Aita San Frantses maitea"; b) "Zure semeak gira, nola zu ez maitea".

Hirugarren Ordenari buruz:

—Heren Ordreko esku libria; *Oloroen*, 1860.

—San Frantsesen hirugarren Ordenako edo Heren Ordreko esku liburua, *J(ean) E(tchepare)* hazpandar apezak; *Baionan* 1862 (ondoko urteetan maiz bir-argitaratua).

—ANTONIO BEOVIDE (frantziskotarra): San Franzisko Asisakoaren hirugarren Ordenako haurrideen esku-liburua, *Bayona* 1874 (284 pp.).

—D. LAPEYRE, San Frantsesen hirugarren Ordenako erregla munduko presunentzat; 1884, *Bayonan*.

—J. P. ARBELBIDE, Heren Ordreko anaia arreberi bi hitz; *Lille*, 1888 (lau orrialde).

—J. P. ARBELBIDE, Erlisioea, *Lille* 1890 (479 orrialdeetatik 134 hirugarren Ordenari emanak).

—BLAISE BABAQUY (*Aita Kaputxinoa*), Heren Ordenako Erreglaren xehetasunak; 1914 (206 orrialde).

Aldizkaria:

—1911n *Aita EUSEBE LARRESOROKOAK* (*Kaputxinoa*) aldizkari bat sortu zuen: San Frantsesi jarraik gaizkion. Eta gero, laburturik, San Frantses.

5

EDIZIO HAU PRESTATZEKO ERABILI DIREN TRESNA ETA ITURRIAK

Esan beharrik ez dago eskuen artean izan ditugula behar ziren tresnak:

—Lemmens *eta* Boehmer-en edizio kritikoak, biak 1904. urtean atereak.

—Gaztelaniaz irten diren erdal itzulpenak: *Madri-lekoa*, *Barzelonakoa* *eta* *Mexikokoa*.

—*Frantsesezkoa* (Desbonnets-Vorreux).

Azkeneko honetatik hartu dugu idazkien barneko ataltxoen partiketa, *eta* bai presentaera ere, neurri handi batean behintzat.

Edizio kritiko berria ere, Kajetan Esser-ek 1976. urtean egina, kontsultatu ahal izan dugu. Zoritxarrez, ataltxoen partiketa berria egin du honek. Edizio hori azaldu zenerako, ordea, gure honen linotipiazko konposizioa eginik zegoen, *eta* hargatik horretan ez diogu segitu, baina bai beste zenbait gauzatan. Beraz, egin dira ukitu, aldaketa, gehitze *eta* gutitze batzuk edizio horren arabera.

Santa Klararen idazkien edizioa prestatzeko, berriz, Aita Omaetxebarria, Hardick, Dhont *eta* Beguin-en lanak erabili ditugu.

6

EDIZIOAN PARTE HARTU DUTENAK

Tomas Larrañaga Anai Probintzialak lehenik, haren aginduz egiten baita.

Euskeratze lanaren *eta* edizioaren kargua L. Villasante *eta* J. L. Zurutuza anaiei ardurapean egon da.

Baina euskeratze lanean modu batera edo bestera parte hartu dute beste hauek ere: J. M. Garayalde Arantzazuko Guardianak, Demetrio Garmendiak, Pedro Aranguren *eta* Xabier Goitiak.

Azala taxutzen *eta* apaintzen arduratu da Anai J. Arriola.

San Frantziskoren idazkietan trebe den aldetik aholku emaila izan dugu Anai J. A. Guerra.

Eta azkenik, zer esanik ez, Arantzazuko inprentako Anaiek beren bihotz guztia jarri dute lanean: J. Barro-nea, D. Garro, L. Madinabeitia, Mantxola eta Jose Maria Astiazaran anaiak.

7

ZERGATIK ETA ZERTARAKO ARGITALPEN HAU?

1975. urteko udan fraide mordoa ibili ginen erromes Asisen barna eta Erromara buruz. 1976a, berriz, Frantzisko hil zeneko 750. urtea izan dugu. Eta ospaketa guzti hauen frutu bezala dator liburuska hau.

Zergatik eta zertarako ateratzen den? Anai Pro-bintzialak esan beharko luke hori, nik baino areago. Baina ez dut uste asmatzen zaila denik. Frantzisko eta Klararen jarraitzaile euskaldunok geure espiritualitatea-ren iturriak euskeraz izan ditzagun. Iturri hoiek euskeraz irakur, ausnar eta erabiltzeko aukera izan dezagun. Guretzat Jainkoaganako bide lagun izan daitezen, bai otoitzean eta bai anaidiaren bilkura eta elizkizun be-rezietan ere.

Etxe barneko xede hauetaz landara, bada —oker ez banaiz— beste bat ere: gure Santuen espiritualitate honek euskaldunen artean zabalbide bat gehiago izan dezan.

Bai. Bi Santu hauek badute guretzat —gaurko eus-kaldunontzat, alegia— esanahirik asko. Ekoizpen hau bedeinka eta emankor bihur dezatela! Halabiz.

Fr. Luis Villasante

Arantzazun, 1977.eko abuztuan.

**anai
frantzisko**

1. ATALA
ABISU ESPIRITUALAK

ESORTAZIO HITZAK

Onbidean bizkortzeko hitzak, hala nahiago bazu.

Frantziskok idatzi zuen lehenengo Erregla —gaur galdurik dagoena— laburra zen eta sinplea; Ebangelioko esaeraz osatua zegoen.

Hartaz gainera, fraileen batzarre nagusietan nahiz txikiagoetan, santuak zenbait erakutsi eman ohi zien anaiei onbidean eragiteko. Beti ere, bizibideak sortzen zituen arazo ta oztopoei erantzun zuzen bat emanaz.

Esortazio hitz edo admonizio deritzaien hauek horixe dituzu orduan: Frantziskok urteetan zehar (1209-1223) bere fraileei hitz biziz emandako erakutsiak. Anai fraileek jaso egin zituzten begirune haundiz erakutsi hоек eta santuaren azken urteetan edo idatzirik jarri. Muin-muinean harexenak dira bada.

Buenaventura dohatsuak digunez (LM 6, 1 ta 10, 4), Frantziskok askotan aipatzen zituen 20 ta 29. admonizioak.

Gai askotaz ari zaigu hemen gure espiritu-maisua, labur eta argi berak nahi lukeenez, dotrina-korapilorik gabe, zuzen-zuzenean kristau bizitzaren sustraletara joaz; haren hitz-kera halakoxea zen beti. Admonizioetan iritxi nahi duena: fraileak bere barrua askatuta eduki dezala joera txar guzietatik, eta ontasunera itzulia.

Frantziskotar onbidearen egiazko ispilu deitu zaie erakutsi hauei; Santuak fraileoi hots egiten digun bere "mendiko hitzaldia". Bere arima suspertu nahi duenak, badu nun edana san Frantziskok kristau zoriontasunei eta kristautan humiltasunari buruz eskaintzen digun dotrina garbi hontan.

Ohar-hitz hauek azalduko dizkigute santuaren arima-bizitzako zenbait alde ez hain ezagunak. Berrietan azter daiteke, gainera, 1221-ko Erreglan helbururatuko den bidea.

1. Jaunaren Gorputzaz

1 Jesus Jaunak esan zien bere ikasleei: *Neu naiz bidea, egia eta bizitza. Aitarengana ez da inor heltzen nere bidez izan ezik.* 2 Baldin ni ezagutu banauzue, ene Aita ere ezagutuko duzue. Gaurgero ezaguna duzue eta ikusi ere ikusia duzue. 3 Felipek, berriz, dirautsa: *Jauna, erakutsi iezaguzu Aita, eta aski dugu.* 4 Jesusek erantzuten dio: *Hainbeste denbora du ni zuekin naizela, eta oraino ez nauzue ezagutu? Felipe, ni ikusten naue-nak nere Aita ere ikusten du¹.* 5 Aita ezin hurbilduzko argian bizi da². Eta Jainkoa espiritu da³, eta Jainkoa ez du sekulan inork ere ikusi⁴.

1. Jo 14, 6ss.

2. 1 Tim 6, 16.

3. Jo 4, 24.

4. Jo 1, 18.

6 Jainkoa espiritu delako, hain zuzen, hargatik ezin ikus daiteke espirituaz izan ezik. Izan ere, *7 espirituak ematen du bizitza, eta haragia ez da deusetarako on⁵*. 8 Baina ez eta Semea ere, Aitaren berdin den aldetik, ezin ikus dezake inork bestela, Aita eta Espiritu Santua ikus daitezkeen era hortara baizik.

9 Beraz, Jesukristo Jauna gizaki aldetik ikusi zutenak, eta espirituaren eta jainkotasunaren arabera ikusi ez zutenak, eta bera Jainkoaren Seme egiazkoa dela sinetsi ez zutenak oro, galduak izan ziren. 10 Orain ere Kristoren Gorputzeko Sakramentua —apaizaren eskuz ogi eta ardoaren irudipean aldarre gainean Jaunaren hitzen bitartez, konsagratzen dena—



ikusten duten guztiek, baldin espirituaren eta jainkotasunaren arabera ikusten ez badute, eta hura benetan Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol guztiz santua dela sinesten ez badute, galduak dira, Jaun Goikoa lekuko delarik, hitz hauek esatean: 11 *Hau da nere Gorputza eta nere Odola, Testamentu Berrikoa⁶*; eta: 12 *Nere haragia jaten eta nere Odola edaten duenak betiko bizitza du⁷*.

13 Beraz, bere fededunetan bizi den Jaunaren Espiritua, hura da Jaunaren Gorputz eta Odol santua hartzen dituen; 14 gainerako guztiak, Espiritu hortatik eduki gabe Jauna hartzeko atrebentzia dutenek, *beren hondamendia jaten eta edaten dute⁸*.

15 Orain, bada, *gizasemeok, noiz arte izango zarete*

5. Jo 6, 63.

6. Mc 14, 22.

7. Jo 6, 55.

8. 1 Cor 11, 29.

*bihotzez nagi*⁹. Zergatik ez duzue egia ezagutzen eta *Jainkoaren Semeagan sinesten*¹⁰. 16 Horra hor nola egunoro bere burua apaltzen duen, Birjinaren sabelera *errege-jarlekutik*¹¹ etorri zenean bezalaxe. 17 Egunoro dator guregana bere burua humilki azalduaz. 18 Egunoro jeixten da Aitaren galtzarretik aldare gainera apaizaren eskuetan.

19 Eta apostolu santuei egiazko haragian azaldu zitzaien bezala, era berean orain azaltzen zaigu guri ogi santuan. 20 Eta nola haiek beren gorputzeko begiekin haren haragia bakarrik ikusi ohi zuten, baina hala ere espirituzko begiekin begiztatuaz bere Jainko Jauna zela sinesten zuten; 21 halaxe guk ere gorputzezko begiez ogia eta ardoa ikustean, ikus eta sinets dezagun sendo haren gorputz eta odol guztiz santu, bizi eta egiazkoa dela.

22 Eta era hortara etengabe dago Jauna bere fededunekin, berak dion bezalaxe: 23 *Horra zuekin nauzue mundua buka dadin arte*¹².

2. *Borondate propioaren gaitzaz*

1 Jaunak esan zion Adani: *Paradisuko zuhaitz guztietarik jan zazu, baina ez dezazula jan on eta gaitzeko jakintzaren zuhaitzetik*¹³. 2 Adanek jan zezakeen, beraz, paradisuko arbola guztietarik, eta obedientziatik alde egin ez zuen bitartean, ez zuen bekaturik egin. 3 Orain bada: on eta gaitzeko jakintzaren arbolatik jaten du bere borondateaz jabetzen eta Jaunak berari emandako dohainetan eta berarengan egiten dituen obretan harropuzten denak.

4 Era hortara, deabruak zirikatutik eta agindua hautsirik, zeruko dohain hoiek gaitzeko jakintzaren sagarra

9. Ps 4, 3.

10. Jo 9, 35.

11. Sap 18, 15.

12. Mt 28, 20.

13. Gen 2, 16-17.

bihurtzen zaizkio. Eta arrazoiz, beraz, pena eta kastigua merezi ditu.

3. *Benetazko obedientzia, eta benetazkoa ez dena*

1 Hala dio Jaunak Ebanjelioan: *Zuetarik edozeinek, dituen guztiei uko egiten ez badie, ezin izan daiteke ene dizipulua*¹⁴. 2 Eta: *Bere bizia gorde nahi duenak, hark galdu egingo du*¹⁵. 3 Dituen guztiei uko egiten eta bizia galtzen du, bere burua bere nagusiaren eskuetan obeditzeko osoki jartzen duenak.

4 Eta egiten edo esaten duen guztia, berak dakiela, haren borondatearen kontrakoa ez den bitartean —beste aldetik, egiten duen hori on baldin bada—, egiazko obedientzia da.

5 Eta inoiz azpikoak bere arimarentzat ikusiko baldin balitu nagusiak agintzen dizkion baino gauza hobeak eta probetxugarriagoak, halaz ere bereak sakrifika biezazkio gogoz Jainkoari; eta nagusiak agindu dizkionak zintzo betetzen saia bedi. 6 Izan ere, hauxe da egiazko eta amoriozko obedientzia, Jainkoari eta lagun hurkoari eder zaiona.

7 Nagusiak, ordea, azpikoari honen arimaren kontrako zerbait agin baliezaio, nahiz eta ez obeditu, hargatik honek ez beza hura utz. 8 Eta horregatik zenbaiten persekuzioa jasan beharko balu, maiteago izan bitza halakoak Jainkoarengatik. 9 Izan ere, bere anaietarik apartatzea baino lehen persekuzioa jasan nahi duenak, zinez egiazko obedientzian irauten du, zeren bere *arima bere anaiengatik jartzen baitu*¹⁶.

10 Badira, bai, erlijioso asko, beren nagusiek agintzen dizkieten baino gauza hobeak ikusten dituztelako

14. Lc 14, 33.

15. Mt 16, 25.

16. Ikus Jo 15, 13.

aitzakiaz, *atzera begiratu*¹⁷ eta borondate propioaren *okara bihurtzen direnak*¹⁸. 11 Hauek gizon hiltzaileak dira eta beren ejemplo gaiztoengatik arima asko galtzen dituzte.

4. *Karguak beretakotu nahi dituztenak*

1 *Ez nintzen etorri zerbitzatua izatera, baina zerbitzatzerat!*¹⁹, dio Jaunak. 2 Besteren gain jarriak direnak hain ongi loria bitez beren nagusitaz, nola beren anaien oinak garbitzeko ofizioa eman balitzaie bezala. 3 Eta nagusitza kentzen zaienean oin gorbitzeko ofizioa galdu balute baino min gehiago hartzen baldin badute, orduan lakio eta sare handiak paratzen ari dira beren arimen kaltetan.

5. *Ez dugula harrotu behar, eta Jaunaren gurutzean jarri behar dugula geure harrotasuna*

1 Pentsa ezazu, gizon horrek, nolako handitasunetan jarri zaituen Jainko Jaunak, zeren gorputzaren aldetik bere Seme kutunaren *irudira* egin eta moldatu baitzintuen; espirituaren aldetik, berriz, bere *antzera*²⁰. 2 Eta zerupearan diren izaki guztiak, beren naturalezaren arauaz, zuk baino hobekiago zerbitzatzen eta ezagutzen eta obeditzen dute beren Kreatzailea.

3 Etsai deabruak berek ere ez zuten Hura gurutziltzatu, baina zuk haiekin batean gurutziltzatu zenuen eta orain ere gurutziltzatzen duzu zeure gaiztakeria eta bekatuetan atsegin hartuz.

4 Nondik, bada, harrotze hori? 5 Baldin izango bazina azkar eta burutsu jakintza guztia zeure menean eduki eta hizkuntza mueta guztiak adierazi eta zeruko

17. Ikus Lc 9, 62.

19. Mt 20, 28.

18. Ikus Prov 26, 11.


20. Ikus Gen 1, 26.

gauzak zorrozki aztertzeraino, hoietaz denetaz ez duzu zer harroturik. 6 Izan ere, deabru bakar batek gehiago jakin zuen zeruko gauzetaz eta orain ere gehiago daki lurekoetaz gizon guztiak baino, baita norbaitek Jaunagandik jakinduriarik gorenaren argi xinta hartu duenean ere.

7 Orobat, guztiak baino ederrago eta aberatsago bazina ere, eta mirariak egingo bazenitu etsai deabruak botatzeraino, gauza guztiok zeure kontrako dituzu, eta ez dira zure, eta hoietan ez duzu zer harroturik. 8 Honetan bakarrik *harrotu* behar dugu, alegia: Geure *gaitzetan*²¹. Eta egunoro Jesukristo geure Jaunaren gurutzea behar dugu jaso.

6. Jaunaren segizioa

1 Kasu egin diezaiogun, fraide guztiok, artzain onari, bere ardiak salbatzeagatik gurutzeko nekaldia sufritu zuenari. 2 Jaunaren ardiak hari jarraitu zaizkio larrialdian eta erasoaldian eta lotsan, gosean eta egarrian, eritasunean eta tentazioan eta gainerako guztietan²², eta hoi en ordainez hartu zuten Jaunarengandik betiko bizitza.



3 Beraz, lotsagarri da guretzat, Jainkoaren zerbitzariontzat, santuek obrak egin, eta guk hoiek kontatu eta aldarrikatuz, hortik ohore eta ospe atera nahi izatea.

21. Ikus 2 Cor 12, 5.

22. Ikus Jo 10, 11; Hebr 12, 2; Jo 10, 4; Rom 8, 35.

7. *Obratze onak jarrai diezaiola jakiteari*

1 Apostoluak dio: *Letrak hiltzen du, Espirituak berriz bizia ematen*²³. 2 Letrak hil dituenak hara zein diren: Hitz hutsak jakin gogo dutenak, besteen artean jakintsuagotzat joak izan daitezen, eta ondasun handiak irabazteagatik, gero beren senide eta adiskideei banatzeko.

3 Eta harako erlijioso haiek hiltzen ditu letrak, alegia: Jainkozko letraren espirituari jarraiki beharrean, hitz soilak jakin eta besteei adierazi nahiago dutenak.

4 Jainkozko letraren espirituaz bizituak dira, berriz, dakiten eta jakin nahi duten letra guztia beren buruen meritutzat eduki beharrean, hitzez eta ejenploz Jainko Jaun Gorenari itzultzen diotenak, on guztia Harena denez geroz.

8. *Bekaizkeriaren bekatutik ihes egin behar dela*

1 Apostoluak dio: *Inork ere ezin esan dezake: Jauna da Jesus, baldin Espiritu Santuak eragiten ez badu*²⁴.

2 Eta: *Ongia egiten duenik ez da, ez da bakar bat ere*²⁵. 3 Beraz, bere anaiaren inbidiz dagoena Jaunak harengan esaten eta egiten duen onarengatik, birao-gisako bekatua egiten du, 4 zeren on guztia esaten eta egiten duen Jaun Goikoaren beraren inbidiz baitago.

9. *Etsaiak maitatzeaz*

1 Hala dio Jaunak Ebanjelioan: *Maita itzazue zeuen etsaiak*²⁶, eta abar. 2 Bere etsaia benetan maite du berari egin dion irainagatik samindu beharrean, 3 haren ari-

23. 2 Cor 3, 6.

24. 1 Cor 12, 3.

25. Ps 52, 4.

26. Mt 5, 44.

mako bekatuaz Jainkoaren maitasunagatik samintzen denak, eta hari obraz amorioa erakusten dionak.

10. *Grinei neurriak hartzeaz*

1 Askok bekatu egiten dutenean edo iraina egiten zaienean, etsaiari edo lagun hurkoari errua botatzen diote. 2 Baina ez da hori hala; izan ere, bakoitzak du bere menean bere etsaia —gorputza, alegia—, eta horren bitartez egiten du bekatu.

3 Beraz, dohatsua izango da halako etsaia menderaturik eta katiaturik daukana, eta hartarik zuhurki gordetzen dena, 4 zeren, hori egiten duen bitartean, ez baitago etsairik —ez ageririk, ez ezin ikusizkorik—, berari kalte egin diezaiokeenik.

11. *Besteren bekatuagatik ez dugula asaldatu behar*

1 Bekatuaz landara, Jainkoaren zerbitzariak ez du izan behar higuingarritzat beste gauzarik.

2 Eta norbaitek nolanahizko bekatua egingo balu ere, Jainkoaren zerbitzaria, horregatik, karitateak agintzen duenaren kontra, asaldatu eta haserretuko balitz, orduan hobena *bilduko luke beretzat*²⁷.

3 Ezergatik ere haserretzen eta larritzen ez den Jainkoaren morroia, berriz, zintzoki bizi da berekorik gabe.

4 Eta dohatsu beretzat ezertxo ere gordetzen ez duena, *Zesar-i Zesar-en direnak eta Jainkoari Jainkoaren direnak bihurtuaz*²⁸.

27. Ikus Rom 2, 5.

28. Mt 22, 21.

12. *Jaunaren Espiritua ezagutzeaz*

1 Jaunaren morroiak Jaunaren Espiritua duen ala ez, honela jakin daiteke: 2 Jaunak beraren bidez on zerbait obratzen baldin badu, eta hargatik haren haragia harrotzen ez bada.

Izan ere, haragia beti da on guztiaren etsai; 3 baina norbere begitan ezdeustzat eta beste gizon guztiak baino gutiagotzat jotzen baldin badu bere burua, orduan Jainkoaren Espirituaren jabe da.

13. *Pazientzia*

1 Ezin ezagut dezake Jainkoaren zerbitzariak zenbatetarainokoa den bere pazientzia eta humiltasuna, dena bere gogara dihoakionean.

2 Baina berari poz eman behar lioketenak atsekabe emateko garaia datorkeenean, orduan duen pazientzia eta humiltasuna du, eta ez besterik.

14. *Pobretasunezko espiritua*

1 *Dohatsu espirituz behartsu direnak, zeren hoiena baita zeruetako erreinua*²⁹. 2 Anitz dira etengabeko otoitz eta errezoetan dihardutenak, barau eta laztasun mueta asko beren gorputzetan eginik; 3 baina aski da hitzerdi bat irain itxurazkoa, edo berei gauza bat kentzea, eta berehala beren onetik irten eta asaldatzen dira.

4 Hoiek ez dira espirituz behartsu; zeren zinez espirituz behartsu denak bere burua gorrotatzen eta berari masailan jotzen diotenak maitatzen baititu³⁰.

29. Mt 5, 3.

30. Ikus Mt 5, 39.

15. Baketiarrak

1 Dohatsu baketiarrak, zeren Jainkoaren seme deituko baitira³¹.

2 Egiazki dira baketiar mundu hontan sufritzen dituzten gauza guztietan, Jesukristo gure Jaunaren amorioagatik ariman eta gorputzean bakea gordetzen dutenak.

16. Bihotzeko garbitasunaz

1 Dohatsu bihotz garbitakoak, zeren hoiek Jainkoa ikusiko baitute³².

2 Bihotz garbiak dira lurrekoak gutiets, zerukoak amets eta Jainko Jaun bizi eta egiazkoa bihotz eta gogo garbiz beti adora eta ikustetik gelditzen ez direnak.

17. Jainkoaren zerbitzari apalaz

1 Zorionekoa, Jaunak bere bidez esaten eta obratzen duen onagatik, besteren bidez esaten eta obratzen duenagatik baino gehiago harrotzen ez den zerbitzaria.

2 Berak Jainkoari ematen dion baino gehiago, lagun hurkoagandik hartu nahi duen gizonak, bekatu egiten du.

18. Lagun hurkoarenganako errukiaz

1 Zorionekoa, lagun hurkoari bere ahulezian laguntzen diona, berak, antzeko kasuan gertatuko balitz, lagundua izatea nahiko lukeen bezalaxe.

2 Zoriontsua bere on guztiak Jainko Jaunari bihurtzen dizkion zerbitzaria. 3 Izan ere, beretzat zerbait

31. Mt 5, 9.

32. Mt 5, 8.

gordetzen duenak *bere nagusiaren dirua gordetzen du*³³,
eta *bere ustez duena ere kenduko zaio*³⁴.



19. *Ohoreen erdian apal izateaz*

¹ Zorionekoa morroi hura, gizonek txalotzen eta alabatzen dutenean bere burua hobeagotzat ez daukana, eskas eta balio gutiko eta ezjakintzat daukate-nean baino areago.

² Izan ere, zenbat den gizona Jainkoaren aurrean, hainbeste da, eta ez gehiago.

³ Zoritxarrekoa erlijioso hura, besteek toki garaian ipini eta bere gogoz jetxi nahi ez duena.

⁴ Eta zorioneko zerbitzaria bere gogoz kontra toki altuan jarri dutena eta beti besteen oinpean egon nahi duena.

20. *Egiazko alegrantzia, eta egiazkoa ez dena*

¹ Zorionekoa Jaunaren esate eta egite santuetan baikiz pozten eta atsegintzen ez dena, ² eta hioen bidez

^{33.} Mt 25, 18.

^{34.} Lc 8, 18.

gizonak Jainkoaren amiora pozik eta alaitsu bultzatzen dituen.

3 Ai, ordea, alferriko hitz eta txorakerietan atsegin hartzen duen erlijioso, eta hoiekin gizonei farre eragiten diena.

21. *Arinkeria eta berritsukeria*

1 Zorionekoa sariaren itxaropenagatik hitz egiten ez duen morroia, eta bere gauza guztiak zabaltzen ez dituen, eta *hitz egiteko arin*³⁵ ez dena; baizik eta esan eta erantzun behar dituen gauzak zuhurki pentsatzen dakizkiena.

2 Ai, berriz, erlijioso hura, Jaunak berari agertzen dizkion onak bere bihotzean gorde eta besteei obren bidez adierazi beharrean, sariaren esperantzarekin gizonei hitzekin agertu nahi dizkiena.

3 *Jasoa du* halakoak *bere saria*³⁶, eta entzuleek frutu kaxkarra biltzen dute.

22. *Zuzenketaren onartzea*

1 Zorionekoa besteren jorratze, salatze eta zuzenketak pazientziaz hartzen dituen morroia, norberegandik baletoz bezala.

2 Zorionekoa haserre egiten zaionean otzanki hartu, era onez obeditu, apalki aitortu eta kastigua betetzen duen zerbitzaria.

3 Zorionekoa aitzakiak bilatzeko pronto ez dagoen zerbitzaria, eta bekatuaren lotsa eta zigorra, nahiz eta errurik ez izan, apalki sufritzen duena.

35. Prov 29, 20.

36. Mt 6, 2.

23. *Egiazko apaltasuna*

1 Zorionekoa bere azpikoekin dagoenean nagusien artean balego bezain apal jokatzeko duena.

2 Zorionekoa zuzenketa onartzeko beti pronto dagoen morroia.

3 Zerbitzari zintzo eta leiala³⁷ da, inor ofendituz gero, bere hutsa ordaintzeko prest dena: barnetik damutasunaz, eta kanpotik kofesioaz eta penitentzia beteaz.

24. *Elkar maitasunaz*



1 Zorionekoa gaixorik dagoen bere anaia, bera-gandik bat ere ordainik jasoko ez duela jakinagatik, osasunez dagoena eta ordaina eman diezaiokeena bezain ongi maite duen morroia.

25. *Egiazko maitasunaz*

1 Zorionekoa urruti dagoen anaia bere ondoan dagoenean hainbat maite duena, eta lotsa berbera gordetzen diona, eta hura aurrean egonik karitate osoz esango ez lukeena haren atzetik esaten ez duen morroia.

26. *Apaizak ohoratzeaz*

1 Zorionekoa Erromako Eliza sentuaren arabera zuzen bizi diren apaizetan fedea daukan Jainkoaren zerbitzaria. 2 Ai, berriz, hoiek haintzat hartzen ez dituztenak.

37. Mt 24, 45.

Bekatari baldin badira ere, inor ez da hoiek epaitzeko gai, zeren Jaunak berak beretzat bakarrik utzi baitu hoiek juzgatzea.

3 Beste guztiekin konparatuz zenbat eta handiagoa den hoiek daukaten kargua —Jesukristo gure Jaunaren gorputz-odol txit santuak hartzeko eta besteei banatzeko kargua—, 4 orduan eta handiagoa da hoien kontra egiten den bekatua, mundu hontako beste gizon guztien kontra egiten dena baino.

27. *Bertuteek kanpora botatzen dituztela bizioak*

1 Karitatea eta jakinduria diren lekuan, han ez dago ez beldurrik³⁸ eta ez inorantziarik.

2 Pazientzia eta humiltasuna diren lekuan, ez dago haserterik eta ez asaldurik.

3 Pobretasuna alaitasunarekin batean dagoen lekuan, han ez dago gutiziarik eta ez zekenkeriarik.

4 Bakea eta ausnar egitea dauden lekuan, han ez da ez barreatze eta ez alda nahirik.

5 Jaunaren *ataria gordetzeko*³⁹, Jaunaren beldurra dagoen lekuan, han etsaiak ez du sartzeko zirrikiturik.

6 Errukia eta zentzua diren lekuan, ez da gehiegizkorik eta ez bihotz gogorrik.

28. *Jainkoagandik hartutako mesedeak ixilik edukitzeaz, gal ez daitezen*

1 Zorionekoa Jainkoak berari agertutako ontasunak *zeruan biltzen dituena*⁴⁰, eta sariaren gogoz gizona

38. Ikus 1 Jo 4, 18.

39. Lc 11, 21.

40. Ikus Mt 6, 20.

jakin arazi nahi ez dizkiena. ² Izan ere Jaun Gorenak berak gogoko zaionari nahi duenean bere obrak agertuko dizkio.

³ Zorionekoa Jaunaren sekretuak bere bihotzean gordetzen dituen morroia.



1. ESKUTITZA

FEDEDUN GUZTIEI

1215-1223 bitartekoa duzu. Ohiturazko eskutitz bat baino askoz gehiago: arima-barneko bizitza nola eraman erakusten digu Franziskok esortazio edo kontseju-emate luze hontan. Beti ere, berak ohi zuen bezala: gartsu, hitzetan bihotz osoa isuriaz.

Norentzakoan "fededun guztiei" esaten badu ere, garbi dago ez dela zuzenean sinestun denentzat egina. Jaunaren "kontsejuak" betetzeaz ari da 38-40 bertsoetan, elkarri zor diogun obedientziaz "bakoitzak Jaunari hitz eman zion bezala" (40-41).

Beraz, barne-bizitza beroago bat bizi nahi dutenei zuzendua dirudi eskutitz honek. Orduan jaio-tzen ari ziren hirugarrendar taldeei zuzendua beharbada.

Hitzaurrean esana dago badela izenburu ta gai bereko beste eskutitz laburrago bat, guk liburu hontan euskeratzen ez duguna. Oraingo honek harexen barne muina agertzen dizu luze-zabalean.

Irakurtzea errazago gerta dakizun eta probe-txugarriago, frantses argitaralpenak egiten dituen sail beretan ematen dizugu eskutitza.

1 Kristau guztiei, erlijioso, eliz gizon eta laikoei, gizonezko nahiz emakumezkoei, mundu osoan bizi den orori, Anai Frantzisko, hoiien morroi eta azpikoak: onginahizko agurra, begirunea, egiazko bake zerutarra eta amorio zintzoa Jaunarengan.

2 Denen morroi izanik, beharturik nago Jaunaren hitz usaindunak denei banatu eta zabaltzera.

3 Horregatik, eta nere gaixotasun eta gorputzeko ahuleziagatik bana-banaka ezin ikusi zaituztedala jakinik, erabaki nuen letra mandatarari hauen bidez Aitaren Hitza den Jesukristo gure Jaunaren hitzak zuei adieraztea, eta orobat *espiritu eta bizia diren*¹ Espiritu Santuaren hitzak.

I. EROSPEN MISTERIOA

1. Gizon-egitea.

4 Aita Gorenak Gabriel goi aingeruaren bitartez agindu zuen Aitaren Hitz bikain, santu eta zoriontsu hori

1. Jo 6, 63.

etorriko zitzaiola zerutik Ama Birjina dohatsuari, eta haren sabelean gure giza haragi flako eta egiazkoa hartu zuen. ⁵ Era hortara, guztien gainetik *aberats zenak*², pobretasuna hautatu nahi izan zuen, bere ama txit dohatsuarekin batean.

2. *Eukaristia.*

⁶ Eta bere Pasioko inguruan afaria egin zuen bere dizipuluekin, eta *ogia hartuz eskerrak eman eta bedein-katu eta zatitu zuen, esanez: Har zazue eta jan, hau da nere gorputza*. ⁷ Eta kaliza hartuaz, esan zuen: *Hau da testamentu berriko nere odola, zuengatik eta asko-rengatik ixuriko dena bekatuen barkamenerako*³.

3. *Nahita opaldu zen.*

⁸ Gero otoitz egin zion Aitari, esanez: *Aita, baldin ahal badaiteke, urrun bedi nigandik kaliza hau*⁴. ⁹ Eta odol tankerakoa egin zitzaion izerdia, lurreraino erortzen zitzaiola⁵. ¹⁰ Baina bere borondatea Aitarenakin bat egin zuen, esanez: *Aita, egin bedi zure nahia; ez nik nahi dudan bezala, zerorrek nahi bezala baizik*⁶.

4. *Gurutzea.*

¹¹ Eta hara nolakoa izan zen Aitaren nahi hori: bere Seme bedeinkatu eta dohatsua, berak guri eman ziguna eta guregatik jaio zenak, eskein zezala bere burua bere odol propioaz gurutzeko aldarean opari eta hostia bezala, ¹² ez beragatik, noski —*zeren haren bidez*

2. 2 Cor 8, 9.

3. Mt 26, 26-28; Lk 22, 19-20; 1 Cor 11, 24-25.

4. Mt 26, 39.

5. Lk 22, 44.

6. Mt 26, 42. 39.

eginak baitira egindako guztiak—⁷, gure bekatuengatik baizik; 13 era hortara haren urratsei jarraikitze*ko ikasbide bat guri uzten zigula*⁸.

14 Eta nahi du guztiok beraren bitartez salbatuak izatea, eta bera har dezagula bihotz zintzo eta gorputz garbi batekin. 15 Baina guti dira hura hartu eta haren bidez salbatuak izan nahi dutenak, nahiz eta haren *uztarria leun* eta haren *zama arin* izan⁹.



II. KRISTAU BIZITZAK ESKATZEN DUENA

1. Jainkoa maitatzea eta gurtzea.

16 *Jauna zein gozo den dastatu*¹⁰ nahi ez dutenak, eta Jainkoaren aginduak ez gordetzeagatik *argia baino ilunbeak nahiago dituztenak*¹¹, hoiek madarikatuak dira. 17 Hoiei buruz esaten baitu Profetak: *Madarikatuak zure aginduetatik okertzen direnak*¹².

7. Jo 1, 3.

8. 1 Pet 2, 21.

9. Mt 11, 30.

10. Ps 33, 9.

11. Jo 3, 19.

12. Ps 118, 21.

18 Zeinen dohatsu eta bedeinkatuak diren, aldiz, Jauna maitatzen dutenak, eta Jaunak berak ebanjelioan dion erara bizi direnak: *Zeure Jainko Jauna maitatuko duzu zeure bihotz guztiaz eta arima guztiaz eta gogo osoaz, eta zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe*¹³.

19 Maita dezagun, bada, Jainkoa eta adora bihotz garbiz eta gogo garbiz, zeren hori gauza guztien gai-netik nahiz, esaten baitu: *Egiazko adoratzailleek Aita espirituz eta egiazki adoratu dute*¹⁴. 20 Izan ere, *hura adoratzen dutenek, espirituz eta egiazki behar dute adoratatu*¹⁵.

21 Eta egin diezazkiogun goresmenak eta otoitzak egunez eta gauez, esanez: *Gure Aita, zeruetan zarena; bada beti otoitz egin behar da, aspertzeke*¹⁶.

2. Sakramentuzko bizitza.

22 Gure bekatu guztiak ere behar ditugu apaizari aitortu eta Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odola harengandik hartu. 23 Jaunaren haragia jaten eta haren odola edaten ez duena Jainkoaren erreinuan ezin sar daiteke¹⁷. 24 Jan eta edan beza, ordea, ongi, zeren *gaizki hartzen duenak bere kondenazioa jaten eta eda-ten baitu, Jaunaren gorputzari ez ohartuz*¹⁸, hau da, beste janarietarik ez bereziz. 25 Eta ekar ditzagun *penitentzia irabazteko lain izango diren frutuak*¹⁹.

3. Lagun hurkoaganako maitasuna.

26 Eta maita ditzagun lagun hurkoak geure buruak bezala; 27 eta baldin baten batek nahi ez baditu edo

13. Mt 22, 37. 39.

14. Jo 4, 23.

15. Jo 4, 24.

16. Mt 6, 9.

17. Ikus Jo 6, 54.

18. 1 Cor 11, 29.

19. Lc 3, 8.

ezin baditu horrela maita, guttinaz ez biezaie kalterik egin, baina egin biezaie on. 28 Besteak epaitzeko ahalmena jaso dutenek egin bezate juizioa errukiz, berek Jaunagandik errukia izatea nahi duten bezala. 29 *Ezen erruki gabeko juizioa egingo zaio errukirik ez duenari*²⁰.

4. *Limosna eta baraua.*

30 Gorde dezagun karitatea eta apaltasuna eta egin dezagun limosna, bada hoiek garbitzen dituzte arimak²¹ bekatuen zikinetatik. 31 Izan ere, mundu hontan utzitako gauza guztiak galtzen dituzte gizonek. Berekin daramazkite, ordea, karitatearen ordaina eta egin zituzten limosnak, eta hoiengatik jasoko dute saria eta ordain aukerakoa Jaunaren eskutik.

32 Baita bizio eta *bekatuetatik* ere behar dugu *begiratu*²² eta geure burua gorde, eta orobat gorde gaitetzen gehiegi jan eta edatetik, eta izan gaitezen katolikoak.

5. *Elizei eta apaizei begirunea.*

33 Eta elizak maiz behar ditugu bisitatu eta eliz gizonak errespetatu, ez beroiengatik bakarrik, bekatari baldin badira, baizik eta Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odola gobernatzeko duten karguagatik, zeren gorputz hori aldarean eskeini eta berek hartu eta besteiei banatzen baitiete.

34 Eta guztiok sinets dezagun sendo ezin salba daitekeela inor Jesukristo gure Jaunaren odolaren bidez baizik; eta apaizek esaten, hots egiten eta banatzen, 35 eta berek bakarrik —eta ez beste inork— banatu behar dituzten hitzen bidez baizik.

20. Jac 2, 13.

21. Ikus Tob 4, 11.

22. Eccli 3, 32.

6. *Erlijosoei bereziki eskatzen zaiena.*

36 Eta beharrezkoa da erlijiosoei batez ere —munduari uko egin ziotenek, alegia— gauza gehiago eta handiagoak egitea, *baina hauek utzi gabe*²³.

37 Gorrotatu behar ditugu geure gorputzak beren gaiztakeria eta bekatuekin, zeren Jaunak esaten baitu ebanjelioan: Gaiztakeria eta bekatu guztiak *bihotzetik sortzen dira*²⁴.
38 *Maite behar ditugu geure etsaiak eta ongi egin gorroto gaituztenei*²⁵.

39 Eta aginduez gainera, baita Jesu-kristo gure Jaunaren kontsejuak ere gorde behar ditugu.

40 Gainera, geure buruak ukatu behar ditugu eta geure gorputzak morrontzaren eta obedientzia santuaren uztarripean jarri, bakoitzak Jaunari hitz eman zion bezala. 41 Eta inor ez bedi obeditzera behartua izan, bekatu edo hobenezko gauzatan.

42 Agintezko kargua duena, ordea, eta *handiena* bezala joa *dena, biz ttipiena*²⁶, eta beste fraideen morroi bezala; 43 eta fraide guztiekin eta bakoitzarekin egin eta eduki beza errukia, berari egitea nahiko lukeen bezala, baldin kasu berdintsuan gertatuko balitz.

44 Eta anaiaren hobenagatik ez bedi anaiaren kontra haserre, baizik eta eroapen guztiaz eta humiltasunaz samurkiro zuzen eta har beza.

45 Ez dugu *haragiaren arabera jakintsu*²⁷ eta burutsu izan behar, baizik eta izan gaitezen xalo, humil eta garbiak.

46 Eta jo ditzagun geure gorputzak nardagarri eta



23. Lc 11, 42.

24. Mt 15, 18, 19.

25. Lc 6, 27.

26. Lc 22, 26.

27. 1 Cor 1, 26.

higuingarritzat, zeren geure erruz guztiok baikara itsusi eta ustelak, hatsak eta harrak, Jaunak profetaren bidez dionez: *Ni har naiz, eta ez gizona, gizonentzat higuin-garri eta jendearentzat nardagarri*²⁸.

47 Ez dugu sekulan besteren gain egoteko tirriarik izan behar; aitzitik, morroi izan behar dugu, eta *Jainkoarengatik menpetasun erakutsi edozein gizoni*²⁹.

III. KRISTAU BIZITZAREN HARRIGARRIAK



48 Eta halako gauzak egin eta azkeneraino irauten duten guzti *hoien gainean Jaunaren Espiritua kokatuko da*³⁰, eta *haiengan egingo du bizileku eta egontoki*³¹. 49 Eta *Aita zerukoaren seme*³² izango dira haren obrak egiten dituztenez gero; 50 eta Jesukristo gure Jaunaren ezkontide, senide eta amak dira.

51 Ezkontide gara Espiritu Santuaren bidez, fededun arima Jesukristorekin bat egiten denean. 52 Anai-arrebak gara haren *Aita zeruetan denaren nahia egiten dugunean*³³. 53 Amak, berriz, gara maitasunaz eta kontzientzia garbi eta xaloaz hura geure bihotz eta gorpuztean daramagunean, eta besteen jarraibidetzat distirakor izan behar duten obra santuen bidez erditzen garenean.

54 Bai dohatsu dela eta santu eta handi Aita bat zeruetan izatea! 55 Bai dela santu, eder eta maitagarri Ezkontide bat zeruetan izatea! 56 Bai dela santu eta maite, estimagarri eta apal, bakezko eta gozo eta maitagarri eta guztien gainetik opagarri halako anaia

28. Ps 21, 6.

29. 1 Pt 2, 13.

30. Is 11, 2.

31. Jo 14, 23.

32. Mt 5, 45.

33. Mt. 12, 50.

izatea, bere ardiengatik bere bizia eman zuena³⁴, eta Aitari guregatik otoitz egin ziona, esanez:

57 Aita santua, zeure izenagatik gorde itzazu eman zenizkidanak. Aita, munduan eman zenizkidan guztiak, zureak ziren eta neri eman zenizkidan. 58 Eta neri eman zenizkidan hitzak, nik hoiei eman nizkien; eta hoiek hartu zituzten eta egiazki ezagutu zuten ni zugandik irten nintzela eta sinetsi zuten zuk bidali ninduzula. Hoi en alde erregutzen dut, ez munduaren alde; bedeinka eta santu egin itzazu. 59 Hoiengatik santu egiten dut nik neure burua, izan daitezen santu eta bat, gu garen bezala. 60 Eta nahi dut, Aita, ni nagoen lekuan, hoiek ere nerekin egon daitezela, ikus dezaten nere ospea zure erreinuan³⁵.

61 Eta guregatik hainbeste sufritu zuenari eta hainbeste ondasun ekarri digunari eta gerozkoan emango digunari, zeruan eta lurlean eta itsasoan eta lurlean diren izakiak oro eman diezaiola Jainkoari goresmen, ospe eta ohore eta bedeinkazioa³⁶, 62 zeren bera baita gure indar eta azkartasuna, on bakarra³⁷, guztien gaitetik den bakarra, guztiahaltzu bakarra eta miragarria, ospetsua eta santu bakarra, goraipagarria eta bedeinkatua azkengabeko menderen mende. Amen.

IV. BEKATUAREN MORRONTZA

1. Deabruak engainatzen dituenak.

63 Baina penitentziarik egiten ez duten guztiak, Jesu-kristo gure Jaunaren gorputz-odolak hartzen ez dituztenak, 64 eta gaiztakeria eta bekatuak egiten dituztenak, eta grina txarren eta nahi guztien ondotik dabilztzanak, eta hitz emandako gauzak betetzen ez dituztenak, 65 eta gorputzaz munduaren eta haragizko irritsen eta hemengo

34. Jo 10, 15.

35. Jo 17, 6-24.

36. Apoc 5, 13.

37. Lc 18, 19.

kezka eta arduren morroi direnak, 66 eta gogoaz dea-bruari zerbitzatzen diotenak —hark engainaturik, haren seme izanik eta haren obrak eginik—, hoiek itsu dira, zeren egiazko argia den Jesukristo gure Jauna ez baitute ikusten.

67 Halakoek ez dute jakinduria espiritualik, zeren Aitaren egiazko jakinduria den Jainkoaren Semea ez baitute beren baitan.

Hoiengatik esan ohi da: *Galdu da hoi en jakinduria*³⁸ guztia. 68 Gaitza ikusi, ezagutu, jakin eta egiten dute, eta beren arimak jakinaren gainean galtzen dituzte.



69 Ikus ezazue, itsuok, zeuen etsaiak —hau da, haragiak, munduak eta dea-bruak— engainatuok, gorputzari atsegin zaiola bekatu egitea, eta garratz Jainkoa zerbitzatzea, zeren bizio eta bekatu guztiak, ebanjelioan esaten den bezala, *bihotzetik sortzen baitira*³⁹.

70 Eta ez duzue bat ere onik ez mundu hontan eta ez gerokoan. 71 Hemengo txorakeriak luzarorako eduki uste duzue, baina egainatzen zarete, zeren badator eguna eta ordua, zuek pentsatzen ez duzuen eta ez dakizutena.

2. Argibidea: bekatariaren heriotza.

72 Gaixotzen da gorputza, hurbiltzen da herioa, badatoz ahaideak eta lagunak, esanez:

—Presta itzazu zeure gauzak.

73 Eta haren emazteak, seme-alabak, ahaide eta

38. Ps 106, 27.

39. Mt 15, 19.

lagunek negar itxurak egiten dituzte. 74 Eta negarrez daudela ikusirik, mugida txar batek eraginik, eta bere barnean gogoratuz, esaten du:

—Hara, neure arima eta gorputza eta neure gauza gaztiak jartzen ditut zuen eskuetan.

75 Zinez, madarikatua da gizon hau, horrela halako eskuetan bere arima eta gorputza eta bere gauza guztiak lagatzen eta arriskatzen dituen.

76 Horregatik dio Jaunak profetaren bidez: *Madarikatua gizona baitan fido dena!*⁴⁰.

77 Berehala deitzen diote apaizari; eta apaizak esaten dio:

—Nahi ahal duzu zeure bekatu guztien barkazioa iritsi?

Erantzuten du:

—Nahi dut.

—78 Nahi ahal duzu, ahal den neurrian, besteri kendutakoak, egindako bekatuak, 79 engainuak eta gizoni egindako kalteak zeure ondasunekin ordaindu?

Erantzuten du:

—Ez dut nahi.

Eta apaizak esaten du:

—Zergatik ez?

—80 Neure gauza guztiak ahaide eta lagunaren eskuetan laga nituelako.

81 Eta hasten da hitza galtzen, eta hala hiltzen da dohakabe hura heriotza errukarri batekin.

82 Baina jakin bezate guztiek, gizona bekatu larritan ordaindu gabe eta ordain dezakeelarik hiltzen denean, nunahi eta nolanahi hiltzen delarik, deabruak gorputzetik harrapatzen duela arima hura, gertatzen zaionak baino bestek ez dakien bezalako estuasun eta larritasunaz.

40. Jer 17, 5.

83 Eta *eduki uste zituen* ondasun, aginte, jakintza eta jakinduria guztia, *kenduko zaizkio*⁴¹. 84 Eta ahaide eta lagunek haren onak jaso eta banatzen dituzte, eta gero esaten dute:



—Madarikatua izan bedi haren arima, zeren bildu zuena baino gehiago eman eta bil ziezagukeen.

Eta harrek jaten dute gorputza. 85 Era horretara arima eta gorputza galtzen ditu mundu kaxkar hontan eta badoa ifernura, nun azkengabeki penatu behar baitu.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-nean. Amen.

AZKENA

Jainkoaren Hitza bete eta zabaldu.

86 Zuei, eskutitz hau helduko zaizuen guztioi, ni Anai Frantzisko, zuen morroietan ttipienak, eskatzen eta erregutzen dizuet *maitasuna den Jainkoagatik*⁴², eta zuei oinetan muin eman nahiz, Jesukristo gure Jaunaren hitz usaindunak, arren, humilki eta maitaro har ditzazutela, eta samurkiro gorde eta zehazki bete.

87 Eta irakurtzen ez dakitenek besteei maiz irakur-araz biezaiete, eta gorde bezate berekin egintza santuaz azkeneraino, zeren *espiritu eta bizia baitira*⁴³. 88 Eta hori egin ez balezate, Juizioko egunean Kristoren hauztegian kontu eman beharko dute.

89 Eta gogo onez hartzen eta ulertzen eta besteei jarraibidetzat bialtzen dizkietenak, baldin *azkeneraino iraun balezate*⁴⁴, bedeinka bitza halakoak Aita eta Seme eta Espiritu Santuak. Amen.

41. Lc 8, 18.
42. 1 Jo 4, 18

43. Jo6, 64.
44. Mt 10, 22.

2. ESKUTITZA

ELIZ GIZON GUZTIEI

JAUNAREN GORPUTZARI DAGOKION BEGIRUNEAZ ETA ALDAREA GARBI EDUKITZEAZ

Passau-ko Inkisidore batek honela egiten du salakuntza San Frantziskoren denboran bertan: "Batzuek, hostiak garaiz berritu ez eta harrek jaten uzten dituzte; Jaunaren Gorputz eta Odola lurrera erortzen zaizkie maiz zenbaiti; beren gelan gordetzen dute Sakramentu guztiz santua edo baratzako zuhaitz batean; gaisoak bisitatzerakoan hosti ontzia horman zintzilik utzi ta ardangelara doaz edatera; bekatari ezagunei ematen diete Jauna eta bihotz-oneko direnei ukatu; azkenik ez duten kantu nahastuz luzatzen dute meza; edari dendak jartzen dituzte elizetan eta behar ez diren jokuak ekarri".


Nola isil zitekeen Frantzisko, Eukaristiaren mai-tale sutsu ta serbitzari zintzo zen diakonoa?

Azken urteetako eskutitza.

1 Gogoeta egin dezagun, eliz gizon guztiok, zein bekatu handia eta jakineza duten batzuek Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odol santuari buruz, eta gorputza konsagratzeko erabiltzen diren izen eta idatzizko hitz sakratuei buruz.

2 Gauza jakina da ezin egon daitekeela gorputzik, baldin aurretik hitzaren bidez konsagrazioa egiten ez bada.

3 Jaun Gorenaren gauzarik ez daukagu korporalki mundu



hontan, eta ikusi ere ez dugu ikusten, haren gorputz eta odol, izen eta hitzak baizik. Hoiek egin gaituzte eta bai heriotzetik bizitzara ekarri ere.

4 Hain misterio santuak darabilzkiten guztiek pentsa bezate, batez ere behar bezala erabiltzen ez dituztenek, zein desegokiak izan ohi diren Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odola konsagratzeko kalizak, korporalak eta oihalak.

5 Eta batzuek toki txarretan uzten dute edo bidetan daramate bat ere begiramenik gabe, eta gaizki hartu eta besteei ezagutzarik gabe eman ohi diete.

6 Baita haren izenak eta hitz idatziak ere batzutan oinazpitan erabili ohi dira, *7 gizon abereak Jainkoaren gauzak ez baititu ulertzen*¹.

8 Eta gauza hoiek kontsideratzera jarririk, ez ote gara kupitzen Jaun on hau geure eskuetan daukagularik, eta egunoro erabiltzen eta geure ahoan hartzen dugularik?

9 Ez ote dakigu, bada, haren eskuetan erori behar dugula?

10 Zentza gaitezen aguro eta gogotik jokabide guzti hoietarik. 11 Eta Jesukristo gure Jaunaren gorputz santua bidegabeki jarria eta utzia dagoen edozein lekutan, ken bedi handik, eta jar eta koka bedi leku preziatuan.

12 Orobat, Jaunaren izen eta hitz idatziak, leku zikinetan aurkitzen direnean, bil eta leku egokietan jar bitez.

13 Eta jakin dezagun gauza guzti hauek gordetzera beharturik gaudela Jaunaren aginduen eta Eliza Ama Santuaren legeen arabera.

14 Eta hala egiten ez duenak jakin beza Jesukristo gure Jaunaren aurrean Juizioko egunean kontu eman beharko duela.

15 Eta, hobekiago gorde dadin, idazki honen kopiak atera arazten dituenak Jaunaren bedeinkazioa izango du.

1. 1 Cor 2. 14.

3. ESKUTITZA

KUSTODIO GUZTIEI

San Frantziskok latinez idatzi zuen eskutitz hau, besteak bezalaxe. Frai Juan Parenti Espainian probintzial zela, gaztelerara itzulia izan zen. Hain zuzen ere, itzulpen horixe da Zaragozatik bidalita Waddingoren eskuetara iritsi zena. Honek berriro latinez jarri ta argitaratu zuen. Azken itzulpen hauxe da orain ezagutzen dena. Ideiak, beraz, Santuarenak dira; idazkera, oster, zerbait aldatua egongo da.

1220 inguruan idatzia da nimbait, bertan aipatzen diren hiru eskutitzak (Eliz gizon guztiei, Kustodioei lehenengoa ta Herri agintariei) urte hortakoak baitira. Hiru eskutitz hauen jatortasuna egiztatzean datza batez ere idazki labur honen balioa.

1 Anai Frantzisko Jainkoaren morroietan txikienak, eskutitz hau hartuko duten Fraide Txikarren Kustodio guztiei: osasun eta bake santua Jaunarengan.

2 Jakin ezazue jakin Jainkoaren begietan badirela zenbait gauza bikain eta goratuak, inoiz gizonen artean txar eta nardagarritzat jotzen direnak; ³ eta beste batzuk, aldiz, gizonen begietan baliotsu eta miragarri dira, eta Jainkoaren aurrean ezteus eta nardagarri.

4 Gure Jainko Jaunaren aurrean erregutzen dizuet, ahal dudan hainbat, Jaunaren gorputz-odol txit santuez mintzo den eskutitz hura Apezpiku eta gainerako klerigoei ematea; ⁵ eta gauza hortaz gomendatu genizuen a gogoan gorde dezazuela.

6 Beste eskutitzetik, berriz —“podestá”, kontsul eta agintariei emateko bidali nizuena, zeinetan esaten baita oiuka daitezela Jainkoaren goresmenak herri eta plazetan—, atera itzazue berehala kopia asko, ⁷ eta aidura handiz eman, eman behar zaienei.

4. ESKUTITZA

BERE EGUNEN AZKEN ALDERA KAPITULU JENERALARI ETA FRAIDE GUZTIEI BIDALI ZIENA

*Santuaren kartarik ederrenetakoa. Asisko esku-
idazkiak dioenez, gaisorik zegoela idatzi zuen, bere
fraileen Batzar Nagusira etorri ezinik.*

*Azken aldera (1226 ingurukoa duzu eskutitza)
hain ahuldurik zetzan "morroi ttipiak" badaki hala
ere berotzen, bere indarretan hazitzen eta grina
bakar zuen Kristo bere Jaunaren alde ateratzen.
Maitasun errairik samurrenaz zuzentzen zaie bere
anaiei.*

*Bere bekatuez oroitzen da berehala Frantzisko
eta apalki barkapen eske ikusiko duzu, Jaunari,
Birjinari, santuei, hain barneko dituen bere frai-
leei...*

*Zati bikain asko ditu eskutitzak, muinez eta
esaera beroz, 21-tik 29-ra bitartekoa batez ere.
Harri-bitxirik dizdizariena, ordea, azken otoitza.
Hortxe ematen dizu kristau bizitzaren ibilera: geure
ezerezetik, Kristoren jarraipena bide nagusi delarik,
Espirituak barne garbituaz, bihotza goi-argituaz,
Haren maitasun su gozotan Jainko Aitarekin el-
kartzeraino.*

1 Aita, Seme eta Espiritu Santu, Hirutasun gore-
naren eta Batasun santuaren izenean. Amen.

2 Agurgarri eta maite-maite ditudan fraide guztioi,
neure nagusi dudan Fraide Txikarren erlijioko ministro
jeneralari eta honen ondoren izango diren gainerako
ministro jeneralei, eta Anaidi bereko ministro, kustodio
eta apaiz Kristogan humil diren guztioi, eta fraide xalo
eta esaneko guztiei, lehen eta azkenei, 3 Anai Frantzis-
kok, gizon kaxkar eta txalkorrak, zuen morroi ttipiak:
Osasuna 4 berrerosi eta bere odol preziatuan garbitu
gintuenagan¹; zeinen izena entzutean izu-laborriz eta

1. Ikus Ap 1, 5-4

begirunez lurrera gurturik² adoratu behar baituzue, Jesukristo Jauna, Jaun Gorenaren Semea deritzana³, sekulakotzat bedeinkatua dena. Amen.

5 Entzun, ene jaun seme eta anaiok, eta zuen *belarriek har bitzate ene hitzak*⁴. 6 Makur ezazue zeuen bihotzeko *belarria*⁵, eta obedi ezaiozue Jainko Semearen mintzoari. 7 Gorde itzazue zeuen bihotz osoaz haren aginduak, eta bete gogorik onenaz haren aholkuak. 8 *Bihur ezaiozue aitorra, zeren ona den*⁶, eta *gorets ezazue zeuen egintzetan*⁷.

9 Izan ere, horretarakoxe bidali zintuzten mundu guztian barna, hitzez eta obraz haren hitzari aitorra bihurtzeko eta guztiei ezagutarazteko *ez dela hartaz beste guztiahaldunik*⁸.

10 *Iraun zazue beti heziera* eta obedientzia santuan⁹, eta hari eskeini zeniotena asmo on eta sendoaz bete ezazue. 11 *Jainkoak, ume batzuei bezala, bere burua erakusten dizue*¹⁰.

12 Erregutzen dizuet, bada, zuei denoi, anaiok, oinetan muin eginez eta ahal dudan maitasunaz, ahal duzuen begirune eta ohore guztia erakuts diezaiozuela Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odolari, 13 *zeinetan bai zeruko eta bai lurreko gauzak ere baketu* eta Jainko guztiahaltzuarekin *adiskidetu*¹¹ baitira.

14 Eskatzen diet, baita ere, Jaun Gorenaren apaiz diren eta izango diren eta izan nahi duten neure anaia guztiei, meza eman nahiko luketenean, garbirik eta garbiki egin dezatela begirunez Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odol txit santuaren egiazko oparia asmo garbi eta santu batekin, ez lurreko ezertxogatik, ez eta edozein gizakiren beldur edo maitasunez, *gizonei atsegin eginez bezala*¹².

15 Aitzitik, borondate osoa, Guztiahaldunaren gra-

2. Ikus Gen 19, 1.

3. Ikus Lc 1, 32.

4. Act 2, 14.

5. Is 55, 3.

6. Ps 135, 1.

7. Tob 13, 6.

8. Tob 13, 4.

9. Hebr 12, 7.

10. Hebr 12, 7.

11. Col 1, 20.

12. Col 3, 22.

ziak laguntzen duen neurrian, harengana zuzendua izan bedi, Jaun Gorenari bakarrik atsegin egin nahiz, zeren hark bakarrik egiten baitu berari gogoak ematen dion guztia. 16 Halaxe dio berak: *Egin ezazue hau ene oroitzapenetan*¹³. Norbaitek bestela egin baleza, berriz, Judas bezala saltzaile, eta *Jaunaren gorputzaz eta odolaz hobendun bihurtzen da*¹⁴.



17 Oroit zaitezte, ene anai apai-zak, Moisesen legeaz zer dagoen idatzirik: nola, alegia, haren hautsaileak, baita axaleko gauzetan hausten zutenak ere, bat ere *kupidarik gabe* Jaunaren epaiaz *heriotzera bidaliak* izaten ziren¹⁵. 18 Zenbatenaz ez ditu oinaze garratzagoak mereziko Jainkoaren semea oinkatu eta santutzen gaituen testamentuko odola gauza zikin bat bezala erabiltzen duenak, eta graziazko espirituari irain egiten dionak?¹⁶.

19 Gizonak Jainkoaren Bildotsa gutiesten, zikintzen eta zapaltzen du, noiz eta, apostoluak dion bezala: Kristoren ogi santua haintzat hartu gabe, eta beste janari eta zereginetarik *berezi gabe*¹⁷, gaizki jaten baitu; edo eta, gaizki ez izanik ere, arinki eta ez behar bezala jaten duenean. Izan ere, Jaunak profetaren bidez esaten du: *Madarikatua Jaunaren lana gaizki egiten duena*¹⁸.

20 Eta hori gogoan hartu nahi ez duten apaizak erdeinatuko ditu, esanez: Madarikatuko ditut zuen bedeinkazioak.

21 Entzun, ene anaiak: Maria birjina dohatsua hain ohoratua baldin bada —eta arrazoiz, noski— sabel txit santuan hura ekarri zuelako, Bataiatzaile dohatsua ikarraz baldin bazegoen eta Jainkoaren buru santua ukitzer

13. Lc 22, 19.

14. 1 Cor 11, 27.

15. Hebr 10, 28.

16. Hebr 10, 29.

17. 1 Cor 11, 29.

18. Is 48, 10.

ausartzen ez bazen, zerbait denboraz hura egondako hilobia horrela beneratzen baldin bada, 22 zenbatenaz gehiago izan beharko du santu, justu eta zintzo, ez hiltzeko dagoena, baizik eta betiko garaile eta lorifikatua, *gingeruek ikusi nahi dutena*¹⁹, eskuekin ukitzen, bihotzaz eta ahoaz hartzen eta besteei hartzeko eskeintzen diena?

23 Gogora ekar zazue, fraide apaizok, zeuen handitasuna, *eta izan zaitezte santu, bera ere santu den bezala*²⁰. 24 Beste guztiak baino gehiago, misterio honen-gatik, Jainko Jaunak ohoratu zaituzte; zuek ere, era berean, maita, agur eta ohora ezazue bera gauza guztien gainetik. 25 Moztasun handia da eta ahulezia negargarria, bera esku artean duzuelarik, munduan beste ezertaz axolatzea!

26 Gizonak oro ikara bitez, mundu guztia dardara bedi, eta zerua bozkarioz jauz bedi, Kristo, Jainko biziaren semea aldare gainean, apaizaren eskuetan dagoenean!

27 Oi, handitasun miragarria, mesede harrigarria! Oi, apaltasunik gorena! Oi, gorentasun apala! Orogen Ja-beak, Jainko eta Jainkoaren Semeak bere burua hortaraino apaltzea gure onagatik, ogi puxka baten irudipean bere burua ezkutatzeraino!



28 Ikus zazue, anaiok, Jainkoaren apaltasuna, *ixur itzazue haren aurrean zeuen bihotzak*²¹. *Apal zaitezte* zuek ere, berak *gora zaitzaten*²². 29 Zuenetik ez zazue deus gorde zeuentzat, osorik har zaitzaten, zeuei osorik ematen zaizuenak.

30 Gainera, abisu eta kontseju hau ematen dut Jauna baitan: fraideak bizi diren lekuetan meza eman dadila Eliza santuaren legeen arabera, eta ez dadila egon meza

19. 1 Pt 1, 12.
20. Lev 11, 44.

21. Ps 61, 9.
22. 1 Pt 5, 6.

bat baizik egunean. 31 Eta baldin tokian apaiz asko gerta balitez, karitatearen amorioz hoietako batek emandako meza entzuteaz pozik izan bitez besteak.

32 Izan ere, daudenak eta ez daudenak Jesukristo Jaunak betetzen ditu, gai baldin badira. 33 Eta toki askotan egonagatik, halaz ere zatitu gabe galditzen da, inolako puskatzerik gabe. Aitzitik, toki denetan osorik eta beti bat, berak plazer duen bezala obratzen du, Jainko Jaunarekin, Aita eta Espiritu Paraklitoarekin batean mendez mendez. Amen.

34 Eta nola *jainkotiarra denak Jainkoaren hitzak entzuten baititu*²³, aparteko modu batean jainkozko zereginetara hautatuak izan garenok, behar dugu, ez bakarrik entzun eta egin Jainkoak esaten dituenak, baizik eta gero geure Egilearen handitasunaz jabetzeko, eta hari geure menpekotasuna erakusteko, behar dugu arduraz handiz gorde eta erabili ontzi santuak, eta haren hitz santuak dauzkaten idazki eta liburuak.

35 Gainera, neure fraide guztiei abisatzen eta Kristo baitan bultza egiten diet, Jainkoaren hitzak dauzkaten idazkiak topa ditzatenean, haintzat har ditzatela, ahalko duten neurrian. 36 Eta berei dagokien eran, idazki hoiek ez baleude behar bezala, edo egoki ez den tokiren batean botata edo sakabanatuak baleude, fraideek bil bitzate, hoietan hitz egin zuen Jauna ohoratzen dutelarik.


37 Izan ere, gauza asko *santutzen dira Jainkoaren hitzen bidez*²⁴; eta Kristoren hitzen indarrez aldareko sakramentua egin ohi da. 38 Eta orain neure bekatuak aйтortzen dizkiot Jainkoari, Aita, Seme eta Espiritu Santuari; Maria beti birjina dohatsuari; zeruan nahiz lurgainean bizi diren santu guztiei; nere jaun den eta begirunea zor diodan gure Ordenako ministro jeneralarari; gure Ordenako apaiz guztiei eta neure fraide bedeinkatu guztiei.

23. Jo 8, 47.

24. Tim 4, 5.

39 Gauza askoren gainean bekatu egina naiz neure erru handiz; batez ere Jainkoari hitz emandako Erregla gorde ez nuelako, eta Ofizioa, Erreglak agintzen duen eran, erreztatu ez dudalako: nahiz dela zabarkeriagatik, nahiz dela nere gaixotasunengatik, eta baita ezjakin eta eskolagabea naizelako ere.

40 Horregatik neure jaun ministro jeneralari gogotik eta ahal dudan eran eskatzen diot, arren, Erregla gorde araz dezala, hutsik egin gabe; 41 eta klerigo direnei erregutzen diet Ofizioa Jainkoaren aurrean debozioz esan dezatela, ez bozaren soinuari, bainan gogoia hitzekin bat etortzeari begiratuaz. 42 Hau da; boza izan dadila bat espirituaz, eta espiritua bat Jainkoarekin. Era horretara espirituzko garbitasunaz eta intentzioaren zuzentasunaz eder izan dakion Jainkoari, kantuaren goxoaz herriaren belarriak loxintxatzen ibili gabe.



43 Neure aldetik, hitz ematen dut guzti hau zintzoki beteko dudala, hartarako Jainkoak grazia emanik; eta berebat neurekin dauden fraideei agindu hauek ezagutaraziko dizkiedala, zintzoki bete ditzaten, bai Ofizioari buruzkoak eta bai Ordenan jarriarik dauden beste arau eta egikizunei buruzkoak ere.

44 Eta gauza hauek gorde nahi ez dituzten fraideak ez ditut katolikotzat hartzen, ezta neure anaiak bezala ere. Ez ditut ikusi ere nahi, eta ez hitz egin ere, penitentzia egin ez dezaten bitartean.

45 Eta hau berau esaten dut bazterrik bazter Erre-

glako arauak haintzat hartu gabe dabilzanengatik;
46 zeren Jesukristo gure Jaunak bere bizia eman zuen,
Aita guztiz santuaren obedientzia ez galtzeagatik²⁵.

47 Nik, Anai Frantziskok, gizakume kaxkar eta Jainko Jaunaren izaki txalkor honek, Jesukristo Jaunagatik esaten diot Anai Elias gure Ordenako ministroari, eta honen ondotik izango diren ministro jeneral guztiei, eta fraideen gainerako kustodio eta guardianei, direnei eta izango direnei, idazki hau bete, praktikara eraman eta arduraz gorde dezatela.

48 Eta bertan dauden gauzak berek egin eta besteei eragin diezazkiela eskatzen diet, Jainko guztiahaltsuaren borondatearen arabera, orain eta beti, mundu honek iraun dezan bitartean.

49 Gauza hauek betetzen dituzuenok *bedeinka zaitzatela Jaunak*²⁶, eta Jauna izan dadila beti zuekin. Amen.

50 Jainko guztiahaltsua, betikoa, zintzoa eta ona, gu geurez ez gara ezerez eta hutsa besterik; baina zuk, zuregatik, emaiguzu joka dezagula beti zeure Nahiaren arabera, guk Nahi hori ezagutzen dugun neurrian; eta zuri eder zaitzuna beti egitea izan dadila gure gogoan.

51 Era hortara barnetik garbituak, barnetik argituak eta Espiritu Santuaren suaz sutuak, zeure Seme Jesukristo gure Jaunaren oinkadak segitzeko gai izan gaitezen,
52 eta zeuregana, Goiko horregana, zeure graziari esker, heltzea iritxi dezagun.

Hirutasun osoan eta Batasun soilean bizi eta errege zaren, eta gizaldiz gizaldi ospe oro hartzen duzun Jainko Guztiahaltsua.

Amen.

25. Ikus Flp 2, 8.

26. Ps 113, 15.

5. ESKUTITZA

MINISTRO BATI

1221-1223 bitartean egina. Ministro bat, Anaidia-ren buru egiten duen bat —ez jakin zihur nor zen, frai Elias?— bere karguko arazoz lanpetua dabil. Bakardadea du amets eta hango bakeda. Ez, esaten dio Frantziskok, iraun zure zerbitzu lanean: basamortuko bizitza baino merezigarriago zaizu hori.

Hona buruhausteetan bat: nola joka anai fraile bekatariekin? Santuak maite zituen here seme denak, ama batek baino gehiago: ez sekula gogor-keriara jo, kontsolapenezko anai-hitz zuzentzaile bat beti bekatu egin duenarentzat, aholkatuko dio. Irakurri gai hontaz 1 Reg 5; 2 Reg 7; 11. Adm.

Honelako kasuei buruz zein lege-jokabide hartu ta Erregla nola osatu esanaz bukatzen du eskutitza.

1 Anai N., ministroari: Jainkoak bedeinka zaitzala!

2 Hauxe esan nahi dizut, ahal dudan bezala, zeure arimako arazoari buruz, alegia: Jainko Jauna maitatzea galerazten dizuten gauzak, eta traba egingo lizukeen nornahi, nahiz direla fraideak nahiz beste edonor, baita zehatzen bazaituzte ere, denak har itzazu graziaztat.

Onar zazu egoera hori, bestetara aldatu nahi gabe.

3 Eta har ezazu hau Jainko Jaunaren egiazko obedientzia bezala, eta bai nerea bezala ere, zeren egiazki baitakit hori dela benetazko obedientzia.

4 Eta gauza hauek egiten dizkitzuten hoiek maita itzazu; eta Jainkoak hartarako grazia emango dizun neurrian, zeure maitasunaren truke ez zazula haien-



gandik ordainik itxaron. Maite itzazu, eta ez zazula nahi kristau hobeak izan daitezen. Basamortuko bizitza baino merezigarriago izango zaizu hori.

5 Jauna eta ni —haren morroia eta zurea—, maite gaituzula jakingo dut, baldin honako hau egiten baduzu: ez dadila izan fraiderik munduan, bekatu egin ondoren, eta ahal daitekeen aina eginik ere, zure aurpegia ikusiz gero, zugandik errukia iritsi gabe alde egingo duena, baldin erruki eske badator. 6 Eta errukirik nahi ez badu, galde iezaiozu ea nahi duen.

7 Eta gero mila aldiz zure aurrean agertzen baldin bada, maita ezazu ni maite nauzun baino ere gehiago, eta hori Jaunarengana eraman dezazun; eta izan ezazu beti kupida halakoentzat. 8 Eta ahal duzunean, jakin araz iezaietu guardianei baduzula horrela jokatzeko asmo sendoa.

9 Bekatu mortalei buruz mintzo diren Erreglako kapitulu guztiekin, Jainkoak nahi baldin badu, Mendekosteko kapituluuan, fraideen kontsejua entzunik, kapitulu berri bat jarriko dugu, era hontara: Fraideetako batek, etsaiak zirikatutik, bekatu mortala egin baleza, obedienezpean behartutik dago bere guardianarengana jotzera.

10 Eta bekatuaren berri dakiten fraideek ez biezaiote fraide bekatariari lotsa eman edo erritarik egin, baina ager biezaiote erruki handia. Eta beren anaiaren bekatua eduki bezate gorderik; zeren *sendoek ez dute sendakin beharrik, bai ordea eri direnek*¹.

11 Halaber obedienezpean behartutik bitez hura, lagun batekin, kustodioarengana bialtzera, 12 eta kustodioak trata beza errukiz, berak, kasu igualtsuan balego, berari egitea nahiko lukeen bezala.

13 Eta bekatu benialen batean eroriko balitz, aitor biezaio apaiz den fraide bati, 14 eta han ez balego apai-
zik, aitor biezaio bere anaiari, elizaren legez absolba

1. Mt 9, 12.

dezakeen apaiz bat eduki dezan arte, esanik dagoen bezala². 15 Eta hauek ezingo dute beste penitentziarik eman, hauxe baizik: *Zoaz, eta ez gehiago bekaturik egin*³.

16 Idazki hau, hobekiago bete dadin, gorde ezazu zeurekin Mendekosteko kapitulura arte. Han izango zara zeure anaiekin.

17 Puntu honen gainean eta Erreglan guti azalduak diren besteetan, Jainkoa lagun, behar diren argitasunak sar araziko dituzu.

6. ESKUTITZA

ERRESUMETAKO BURUEI

1223-1224 ingurukoa. Frantziskok bere bizitzako aldi hontan idatzi zituen gehienbat eskutitzak. Gaiso ta nekaturik arkitzen baitzen, hitzez eta predikuz ezin zuen-apostoladutza, lumaz bete nahi zuen.

Egiptoko sultana kristautzera joan zen hura, Oton enperadoreari hemengo haundikerien huskeria jakin erazi zion frailetzua bera, ausarditsu dator eskutitz hontan. Lurbira osoko agintari ta jende guziei zuzentzen die bere dei nahiko zorrotz hau: Jauna ta Jaunarenak lehenengo —Eukaristial—, beste zer guztien gainetik.

1 “Podestá” eta “Kontsul” guztiei, lurbira osoan diren epaile eta gobernari, eta eskutitz hau hartuko

2. Reg I, c. XX.

3. Jo 8, 11.

duten gainerako guztiei, Anai Frantzisko, Jainko Jaunagan zuen zerbitzari ttipi eta kaxkar denak: Zuei denoi osasuna eta bakea opa dizue.

2 Gogoeta egin eta pentsa ezazue *heriotzeko eguna hurbiltzen ari zaizuela*¹. 3 Erregutzen dizuet, beraz, nik ahal dudan begirune guztiaz: mundu hontako ardura eta arazoek ez diezazuela ahantz araz Jauna, eta ez zaitzatela haren aginduetarik aparta.

Izan ere, Jainkoaz ahaztu eta *haren aginduetarik makurtzen diren guztiak madarikatuak dira*², eta *ahaztuak izango dira*³. 4 Eta heriotzeko eguna hel dadinean, *beren ustez zeukaten guztia ere kenduko zaie*⁴.

5 Eta zenbat eta jakintsuago eta boteretsuago izan ziren mundu hontan, orduan eta *pena* gehiago *beharko dute jasan ifernuan*⁵.

6 Beraz, zuei, neure jaunoi, lehiatuki nahi dizuet kontseilatu, beste kezka eta axola guztiak alde batera utzirik, gogoz har ditzazuela Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol santuak, haren oroitzapenezko elizkizunean.

7 Eta zuen ardurapean jarria den herriaren aurrean bihur ezaiozue Jaunari agur-aitorrera agerizko hau, alegia: arratsean oiulari baten bidez, edo beste seinale baketin adieraz bekio herri guztiari, Jainko Jaunari goresmen eta eskerrak eman diezazkion.

8 Eta hori egin ezik, jakin zazue kontu eman beharko duzuela Juizioko egunean zeuen Jaun eta Jainko den Jesukristoren aurrean.

9 Baina idazki hau gordetzen eta bertan dagoena egiten dutenek jakin bezate Jainko Jaunaren bedeinkazioa izango dutela.

1. Gen 47, 29.
2. Ps 118, 21.

3. Ez 33, 13.
4. Lc 8, 18.

5. Sap 6, 7.

7. ESKUTITZA

KUSTODIO GUZTIEI EGIN ZIENA


Frantziskok Eukaristiaganako jaiera ta maitasun gartsua gomendatu izan die bere fraileei. Ez du ordea aski horrekin.

"Kustodio" denei eskatzen die, edozein mailatan anaidien buru direnei, arreta biziz begira dezatela Eukaristia, sor dezatela eliz gizonen eta herriaren artean Harenganako lehia indartsu bat.

1223-1224 bitarteko eskutitza.

1 Eskutitz hau hartuko duten Anai Txikarren kustodio guztiei, Anai Frantzisko, Jainko Jaunagan zuen zerbitzari xumea denak: Osasuna opa dizue zeru-lurretako seinale berriekin, erlijioso askok eta beste gizon askok hala ez usteagatik, Jainkoaren begitan handi eta estimagarri direnekin.

2 Erregutzen dizuet neuretzat baldin balitz baino ere lehia gehiagorekin: era ona dela ikusten duzuenean eta egoki irudituko zaizuenean, eska iezaiezue, arren, eliz gizoni humilki, gauza guztien gainetik benera ditzatela Jesukristo gure Jaunaren gorputz eta odol santuak, eta haren izen santuak dauzkaten idazkiak, eta gorputza sagaratzen duten hitzak.



3 Kalizak, korporalak, aldareko apaingarriak eta Oparirako den oro, estimazio handiz gorde dezatela.

4 Eta inoiz tokiren batean Jaunaren gorputz txit santua itsuski ezarririk egotea gerta baledi, eliz gizonek,

Elizak agintzen duenaren arabera, leku preziatuan jar eta giltzapean gorde bezate.

Eta begirune handiz eraman eta ezagutzaz besteei bana biezaiete.

5 Eta Jaunaren izen eta hitz idatziak, leku zikinetan aurkitzen baldin badira, jaso eta toki egokian jar bitzate.

6 Eta egiten duzuen prediku orotan, irakats iezaiozue herriari penitentzia behar duela egin, eta inor ezin salba daitekeela, Jaunaren gorputz eta odol santuak hartzen dituen baizik¹.

7 Eta apaizak gorputz hori aldarean konsagratzen duenean, edo eta noranahi daramanean, jende guztiak, belaunikaturik, Jainko Jaun bizi eta egiazkoari bihur biezazkio goresmen, ospe eta ohore.

8 Herri guztiei irakats eta predika iezaiezue Jainkoa behar dutela goratu, ordu orotan eta kanpaiak jotzean, mundu guztiak eta lurbira osoan Jainko guztiahaltsuari goresmenak eta eskerrak beti eman diezazkion.

9 Izkribu hau hartzen duten ene anaia kustodio guztiek, berentzat kopiatzen eta gordetzen dutenek, eta predikatzen ari direnentzat edo fraideen ardura duen anaientzat kopia arazten dutenek: idazki hontan dagoe-na azkenera arte predikatuko dutenek: jakin bezate Jainko Jaunaren bedeinkazioa dutela, eta bai enea ere.

10 Eta egin bezate guzti hau obedientzia santu eta egiazkoaren indar eta merituarekin. Amen.

1. Ikus Jo 6, 54.

8. ESKUTITZA

ANAI LEON-I

1220 urteaz gerokoa, orduan utzi baitzituen San Frantziskok bere lehenengo lagunak, frai Leon haien artean.

Anai Leonek fraile-bizitzako punturen batez nahi luke Aita fundatzailearen iritzia. Taldetxoren baten izenean egiten dio galdera, erantzuneko "faciatís —egin dezazuela" hortatik nabari denez. Jakina da, Ordena-haserako eztabaidetan, zein biziki eutsi zioten santuaren lehen-lagunak frantziskotar bide huts-garbiari.

Frantziskok askatasun osoa ematen die frai Leon eta beronen lagunei, Espirituak aditzera ematen dien bezala behartsu bizi daitezen. Bihotz zabalez jokatuaz gero, graziak osatuko du gainerako dena.

1 Anai Leon horri, zeure Anai Frantziskok osasuna eta bakea opa dizkitzu!

2 Ene semea! Ama batek bere haurrari egin ohi dion gisa hitz egin nahi dizut. Guk bidean esandako guztia, horra hitz batean eta kontseju bakar batean bildua. Ez duzu, beraz, kontseju eske nigana etorri beharrik, zeren ene kontsejua haxe baita:



3 Jainko Jaunari atsegin egiteko eta haren oinkadak eta pobretasuna segitzeko zein bide irudituko zaizun hoberena, eta hura segi ezazu Jainko Jaunaren bedein-kazioaz eta ene baimenaz.

4 Baina zure bihotza lasaitu eta kontsolatzeko beharrezko baldin balitz, edo xoilki ni ikusteko gogoia baze-nu, Leon, zatoz!

9. ESKUTITZA

SAN ANTONIO PADUAKOARI

1223-1224 ingurukoa.

"Behin anaia batzuek baimena eskatu zioten Frantziskori fraile eskolatu batzuentzat, Eskritura Santua ikasten iharduteko. Hau erantzun zien: Bai, uzten diet, baina baldintza batekin: Jesukristoren antzera, otoitza ez lagatzekotan; ikasteari baino gehiago —irakurtzen denez— otoitzari ekin baitzion harek. Hitz egiten ikasteko bakarrik ez, ikasi dutena bizitzan betetzekotan ematen diet baimena, eta besteei ere betetzen laguntzekotan" (LM 11, 1).

"Espiritua ta bizia" ematen diguten teologarien artean (T 13), frai Antoniori zuzentzen dio santuak eskutitz labur hau, begirunetsu "nere apezpiku", gotzai, deituaz. Eskatzen diona: teologiazko jardunik bidezkoen hau Jainkoarekin elkarbide gerta dadila, ez norberekoikeri bide. Paduakoak ez zuen ez agindua bertan-behera utzi.

1 Anai Antonio, ene Apezpikuari, Anai Frantziskok, Osasun!

2 Atsegin zait fraideei teologia santua irakats diezaiezun, baldintza batekin, ordea: estudio horretara jartzen direnek ez dezatela otoitz santuaren eta debozioaren espiritua berengan itzal. Erreglan abisatzen den bezala¹.

Adio.

1. 2 Reg 5, 2.

2. ATALA

**EBANJELIOAREN
SEGIZIORAKO BIZI-LEGEAK**

Loratze luzearen fruitu da bera.

Gogoratu 1208(9)-an San Matias goizeko Frantziskoren zirrara: "Zoazte ta erakus... Ez eduki urrerik..." (Mt 10, 7-14). Eta geroxeago, San Nikolas elizan, hiru lehen-lagunei Jaunak hirutan meza-liburutik agertu ziena: "Eman dena behar-tsuei" (Mt 19, 21), "Ez eraman ezer biderako" (Lk 9, 1-6), "Inork jarraitu nahi badit, uka beza bere burua" (Mt 16, 24-26).

"Ene anaiok! —poztu zen poztu Frantzisko—: hauxe da gure bizikera ta Erregla, gurea ta gurekin elkartu nahi duten guztiena" (3 S 8).

1209(10)-garren urtea, eta anaiak ordurako hamabi. Txit Goikoak Ebanjelio Santuaren arauera bizi behar zuela goi-agerturik zedukion Frantziskori. Orduan "nik hitz gutxi ta xumeetan idatz arazi nuen eta Aita Santu Jaunak ontzat eman zidan" (T 14-15). Antzinako Erregla edo "Bizimol-dea" deritzaio araudi honi. Inozentzio III-garrenak onartu zuen hitzez 1209(10)-ko apirilean.

Ez da beronen testorik zihur ezagutzen, baina badakigu (1 C 32) zenbait Ebanjelio pasartez osatua zegoena, San Nikolas elizako haixek tarteko zirelarik seguru asko. Beste araubide batzuk ere ematen ziren.

Hurrengo amar urteetan, anaidia ugaritzen eta zabaltzen zijoan eran, arazoak korapilatzen ari ziren; Frantziskoren erakusbide bizia, berriz, gero ta urrutiragotzen. Ematen ziren anaidiaren batzarretan burubide berriak (misiogintzaz, bizitoki jakinak hartzeaz, probintzi eraketaz; nobiziadua ere ezarriko zen Erromatik...). Ez zen baina nahikoa "ministro ta anaia eskolatuen" iritzian; beste bide batzuk eta jakinagoak behar zituen Ordenak: legedi zehatza, bizikera diziplinatua, ikas-te lana, barau-bijilia latzagoak... Hasi ziren, beraz, anaia eskolatuak pentsatzen ez ote zen egokiago izango Erregla ezagunen artean bat aukeratzea.

Santuak biziki eutsi zion, ordea, Jaunak erakutsitako apaltasun bideari (SpP 68).

1220-ko udazken aldera Sortaldetik itzuli zenean, nahiko larri arkitu zuen Anaidia: ikasiek berenari eusten zioten eta ez era bigunez. Frantziskok deitzen dio orduan frai Pedro Cattani kanonistari geroago frai Eliasi ere bai) eta hoiien laguntzaz burutzen du bere Erregla-lana.

Erreglaren oinarritzat Ebanjelioa jarriko dizu, haserako pobretasun eta ukapenezko pasarte haixek hain zuzen (1. kap.). Ondoren, esperientziak ordurarte beharrezko erakutsi dituen burubideak, birlandu ta laburtuaz komeni denean, eta berriak erantsi ere bai (anaien eskubideak ministroen aurrean!). Egia, ez zaio ordena lojikoari gehiegi begiratu ta abar; baina Aita onaren exortu bihoztiek berotu ta argituko dute dena.

Santuak Espira-ko frai Zesareo-ri eskatuko dio, Eskrituretan iaio denez, hornitu dezala Erregla Ebanjelio zitaz: ez apainduria hutsagatik, anaia txikien forma ta bizitza Ebanjelioa delako baizik.

Aurkezten du horrela bere Araudia 1221-ko Batzar Nagusira, eta honek gehitze batzuk eginaz (13, 15, 18 ta 19. kk. agian, ministroen eskubideetaz gehienbat) ontzat hartzen du.

23. atalburua —bere otoitzik ederrenetakoa!— idazki osoa duzu berez, geroago erantsia.

LEHENENGO ERREGLA
FRANTZISKO DOHATSUAK EGIN ZUENA, ETA
INOZENTZIO AITA SANTUAK BULDA GABE
ONARTU ZIONA

1 Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-
nean. Amen. 2 Hau da Anai Frantziskok Inozentzio Aita
Santuari, honek onets eta finka ziezaion, eskatutako
bizitza, bai Frantzisko berarentzat eta bai orduko eta
geroko bere fraideentzat ere. 3 Eta hark ontzat eman
eta sendotu zuen, bai harentzat eta bai orduko eta
geroko haren fraideentzat ere.

4 Anai Frantziskok eta erlijio hontako buru izango
direnek eskein bitzate obedientzia eta ohorea Inozentzio
Aita Santu Jaunari eta honen ondorengoei. 5 Eta beste
fraideak Anai Frantziskori eta honen ondorengoei beude
obeditzera behartuak.

LEHENBIZIKO KAPITULUA

FRAIDEAK BIZI DAITEZELA OBEDIENTZIAN,
BERENIK GABE ETA GARBITASUNEAN

1 Fraide hoen erregla honako hau da, alegia: Obe-
dientzian, garbitasunetan eta berenik gabe bizitzea,



2 eta Jesukristo gure Jaunaren erakutsi eta oinatzak
segitzea, zeinek esaten baitu: 3 *Konplitua izan nahi*

baldin baduzu, zoaz, dituzunak sal, eta behartsuei eman, eta altxorra izango duzu zeruan; gero etor eta jarrai neri¹. 4 Eta: Inork nere ondoren etorri nahi baldin badu, uka beza bere burua, har bere gurutzea eta jarrai daki-dala neri². 5 Eta beste hau: Inor, nigana etorri nahirik, bere aita, eta ama, eta emaztea, eta semeak eta anaiak, eta arrebak eta bere burua ere gorrotatzen ez badu, ezin daiteke nere ikasle izan³. 6 Eta baldin inork, aita edo ama, edo emaztea, edo semeak, edo sailak nere izenagatik uzten baditu, ehun halako jaso eta betiko bizitza iritxiko du⁴.

BIGARREN KAPITULUA

FRAIDEAK NOLA HARTU ETA JANTZI

1 Baldin, Jainkoak argiturik, norbait bizimodu hau hartu nahiz gure fraideetara baletor, harrera gozatsua egin biezaiote; 2 eta bere asmoan sendo irauten badu, begira bezate ondo fraideek ez daitezela haren arazo tenporaletan sar, baizik eta eraman bezate lehen-bailehen beren ministroarengana. 3 Eta ministroak egin biezaio harrera on, eta alai beza, eta eman biezaio osoki eta garbi gure bizikeraren berri. 4 Eta hau egin ondoren, baldin berak nahi badu, eta trabarik gabe espiritualki egin ahal baleza, sal bitza bere ondasun guztiak eta behartsuei ematen saia bedi. 5 Eta begira bezate fraideek eta hauen ministroek ez daitezela egikizun horretan sar, ez eta dirurik har ere, nahiz berenez, nahiz beste inoren bitartez; 6 baina zerbaiten beharrean baleude fraideak, har lezakete beste behartsuek bezala, behar duten hura, dirurik ordea ez. 7 Eta berriro datorrenean, eman biezazkio ministroak probantza-denborako soinekoak; hau da: bi tunika, txano gabekoak, eta soka, eta galtzak, eta gerrirainoko kaparoia. 8 Eta probantzaren urte muga hori bukatutakoan, obedientzian

1. Mt 19, 21.

2. Mt 16, 24; Lc 9, 23.

3. Lc 14, 26.

4. Mt 19, 29.

hartua izan bedi; 9 eta ez zaio gero zilegi izango beste Ordena batera joatea, ez eta obedientziatik ihes batetik bestera ibiltzea ere, Aita Santuak agintzen duen bezala. 10 Izan ere, Ebanjelioak dionez, *goldeari eskua ezarri eta atzera begiratzen duena ez da Jainkoaren erresumarako gai*⁵. 11 Eta etorriko balitz bere ondasunak oztopo gabe ezin eman ditzakeen bat, eta gogo ona izango balu, aski beza ondasunen uzte soilaz. 12 Ez bezate fraidetarako inor har, Eliza santuaren lege eta aginduen kontra.

13 Eta obedientzia agindu zuten beste fraideek eduki bitzate tunika bat txano eta guzti, eta beste bat txano gabe —beharrezkoa balitz—, eta soka eta galtzak. 14 Eta fraide guztiak soineko arruntez jantz bitez, eta zakuz eta beste adabakiz adabatzeko aukera izan bezate Jainkoaren bedeinkazioaz, 15 zeren Jaunak esaten baitu: *Soineko dotore eta leunak jantzi eta goxo-goxo bizi direnak erregeen etxeetan egon ohi dira*⁶. 16 Eta hipokritak direla esaten badiete ere, ongi egiteari ez utz, 17 ez eta hargatik jantzi ederren bila ibil mundu honetan, Jainkoaren erresuman jantzia izan ahal dezaten⁷.

HIRUGARREN KAPITULUA

OTOITZ-OFIZIOAZ ETA BARAUAZ

1 Jaunak dio: *Otoitz eta barauaren bidez izan ezik, ezin daiteke deabru mueta hau*⁸ egotz. Eta berriz ere: *Barau egiten duzuenean, ez zaitezte triste ager, itxuratiek egiten duten bezala*⁹. 2 *Ernai egon eta egin ezazue otoitz tentazioan ez erortzeko*. Eta oraino: *Otoitz egiterakoan, esan: Gure Aita, eta abar*. 3 Horregatik, fraide guztiek, klerigoek eta laikoek, egin bitzate otoitz-ofizioa, laudorioak eta otoitzak, agindurik daukatenez. 4 Klerigoek egin bezate ofizioa, eta bizi eta hildakoen alde

5. Lc 9, 62.

6. Mt 11, 8; Lc 7, 25.

7. Ikus Ap 3, 5; 6, 11; 7, 9.

8. Mc 9, 28.

9. Mt 6, 16.

esan bezate, klerigoen ohiturari jarraituz. 5 Eta fraideen huts egite eta zabarkeriengatik erreza bezate egunoro “Urrikal, Jainkoa, nitaz” salmoa, Gure-Aita batekin; 6 eta hildako fraideen alde “Barne-barnetik” salmoa, eta Gure-Aita. 7 Eta beren ofizioa esateko behar dituzten liburuak bakarrik eduki ditzakete. 8 Eta salterioa irakurtzen dakiten laikoei zilegi izan bekie salterioa edukitzea, 9 eta eskola ikasi ez dutenei ez bekie zilegi izan libururik edukitzea. 10 Eta fraide laikoek esan bezate Kredoa eta hogeitalau Gure-Aita eta Haintza Aitari maitinen orde; Primaren orde Kredoa eta zazpi Gure-Aita eta Haintza Aitari; Tertzia, Sexta eta Nona, hoietako bakoitzagatik zazpi; Bezperengatik, hamabi; Konpletan orde, Kredoa eta zazpi Gure-Aita eta Haintza Aitari; 11 hildakoen alde zazpi Gure-Aita Requiem aeternam-ekin, 12 eta fraideen hutsegite eta zabarkeriengatik egunoro hiru Gure-Aita.

13 Baita ere egin bezate barau fraide denek Santu Guztien jaitik Jaunaren jaiotz egunera arte, eta Erregeen egunetik —gure Jaunaren baraua hasi zen egunetik, alegia— Bizkundera arte. 14 Beste garaietan ez dezatela, bizikera honen araura, barau egiteko obligaziorik izan, ostiraletan izan ezik; 15 eta *zilegi izan bekie*, Ebanjelioaren araura, *aurrean jartzen dietenetik jatea*¹⁰.

LAUGARREN KAPITULUA

MINISTRO ETA BESTE FRAIDEEN ARTEKO HAR-EMANAK

1 Jaunaren izenean. Beste fraideen ministro eta zerbitzari bezala izendaturik daudenek bana bitzate beren anaiak bertako probintzia eta lekuetan zehar, eta maiz ikustaldiak egin biezazkiete, abisu espiritualak haiei emanez, eta azkartuz. 2 Eta ene fraide bedeinkatu guztiek obedi biezaiete arimaren onerako diren guztie-

10. Lc 10, 8.

tan eta gure bizikeraren kontrako ez diren gauzetan. 3 Eta egin biezaiote elkarri Jaunak diona: *Zer ere nahi baituzue gizonek zeuoi egitea, horixe egin zeuok ere gizonei*¹¹; 4 eta zeuri egitea nahi ez duzunik, ez egin zeuk *besteri*¹². 5 Eta gogora bezate ministro eta zerbitzariak Jaunaren esana: *Ez naiz zerbitzatua izatera etorri, zerbitzatzaera baizik*¹³; 6 eta fraideen arimen ardura egotzi izan zaiela, eta hoietakoren bat beren erruz eta ejemplo txarrez gal baledi, Juizioko egunean Jesukristo Jaunaren aurrean kontu eman beharko dutela.

BOSKARREN KAPITULUA

NOLA ZUZENDU FRAIDEAK BEREN HUTSEGITEETAN

1 Eta horregatik begira itzazue ongi zeuen arimak eta zeuen fraideenak, zeren *beldurgarria baita Jainko biziaren eskuetan erortzea*¹⁴. 2 Eta baldin ministroren batek gure bizikeraren edo haren arimaren kontrako den zerbait fraideren bati aginduko balio, fraidea ez bego obeditzera behartua, 3 zeren ez baita obedientziarik bekatzuko gauzatan. 4 Baina menpeko diren fraide guztiek begira bitzate arduraz eta kontuz ministro eta zerbitzarien egiteak. 5 Eta baldin ikusiko balukete hoietakoren bat —gure bizikera zuzenari dagokionez espiritualki ibili behar lukeena—, haragiaren arabera dabilela, 6 baldin hirugarren aholku ondoren zuzenduko



11. Mt 7, 12.

12. Tob 4, 16.

13. Mt 20, 28.

14. Hebr 10, 31.

ez balitz, sala bezate, inortxok ere galerazi gabe, Mendekosteko kapituluari anaidi hontako ministro eta zerbitzariaren aurrean. 7 Eta baldin, nunahi bizi diren fraideen artean haragiaren arabera eta ez espiritualki bizi nahi duenen bat aurkituko balitz, berarekin bizi diren fraideek abisu eman eta eskola bezate, eta humilki eta arduraz errita egin biezaiote. 8 Eta baldin berak, hirugarren abisu ondoren, zuzendu nahiko ez balu, lehen-bait-lehen bidal edo sala bezate beren ministro eta zerbitzariari, 9 eta honek egin beza berarekin Jainkoaren aurrean ondoen irudituko zaion bezala. 10 Eta fraide guztiek, bai Ministro eta zerbitzariak, eta bai besteek ere, kontu hau eduki bezate, alegia: Ez daitezela asalda eta haserre besteren bekatu edo ejemplo txarragatik, zeren horixe baita etsaiak nahi duena, hots: bakar baten bekatuaz askori gaitz egin. 11 Baina espiritualki, ahal duten ondoena, gogoz lagun biezaiote bekatu egin duenari, *zeren sendoek ez dute sendakin beharrik, bai ordean eri direnek*¹⁵.

12 Orobat, aginterik eta nagusitarik ez bezate izan fraideek, batez ere beren artean, 13 zeren Jaunak ebanjelioan honela esaten baitu: *Nazioetako agintariak beren menpean eduki ohi dituzte jendeak, eta nagusi direnek agintea dute hauen gain*¹⁶. Ez bedi horrela izan fraideen artean, 14 baizikan hoietan *handiena izan nahi duena izan bedi gainerakoen zerbitzari*¹⁷ eta morroi; 15 *eta handiena dena, egin bedi ttipiena bezala*.¹⁸

16 Inongo fraidek ez biezaio gaitzik egin edo esan besteri; 17 aitzitik maitasun espirituaz eta borondate onaz elkar zerbitza eta obedi bezate. 18 Hau da izan ere Jesukristo gure Jaunaren obediencia santu eta benetazkoa. 19 Eta fraide guztiek, Jaunaren aginduetarik okertzen diren guztietan eta obedienciaz kanpora dabiltzanean, jakin bezate, jakin, Profetak dionez, *mandarikatuak direla*¹⁹ horrela obedienciaz kanpora, be-

15. Mt 9, 12.
16. Mt 20, 25.

17. Mt 23, 11.
18. Lc 22, 26.

19. Ikus Ps 118, 21.

katu horretan oharturik dirauten bitartean. 20 Eta Ebanjelioagatik eta beren bizitzagatik agindutako Jainkoaren mandamentuak gordetzen dituztenean, jakin bezate egiazko obedientzian bizi direla, eta bedeindatuak izan bitez Jaunaren aldetik.

SEIGARREN KAPITULUA

FRAIDEEK MINISTROENGANA JOTZEKO DUTEN ESKUBIDEAZ. ETA FRAIDEETAN INORK ERE NAGUSI IZENIK EZ DEZALA HAR

1 Baldin fraideek, edozein tokitan bizi direlarik, gure bizikera gorde ezin badezate, jo bezate, ahal duten lasterrena, beren Ministroarengana eta hori jakin araz biezaiote. 2 Eta Ministroa saia bedi halakoei kasu egiten, berari halakorik gerta balekio, kasu egitea nahiko lukeen bezalaxe. 3 Eta inork ez beza nagusi izenik har; baizik eta “anaia txikarrak” izan bedi ororen deitura arrunta. 4 Eta oinak garbi biezazkio bata besteari.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

ZERBITZU ETA LAN EGITEKO MODUAZ

1 Fraide guztiak, besteren etxeetan zerbitzu edo lan egiteko aurkitzen direnean, ez bitez buru edo nagusiorde izan, eta, zerbitzari izanik, ez bitez etxeko jaun bihurtu, 2 eta zer esana jar dezakeen ofiziorik edo *beren arimarentzat kalterik dakarkeen*²⁰ zereginik ez bezate har, 3 baizikan izan bitez txikarrak eta etxe haretan dauden guztien azpiko.

4 Eta lan egiten dakiten fraideek egin bezate lan, eta ari bitez trebe diren langintzan, beren arimen kontrakoa ez bada eta honeski egin ahal badezakete. 5 Izan ere honela mintzo da Profeta: *Zeure eskuetako lanak jango dituzulako, zoriontsua izango zara, eta ondo*

20. Mc 8, 36.

joango zaizu²¹. 6 Eta Apostoluak: *Lanik egin nahi ez duenak, ez dezala jan*²². Eta: *Bego bakoitza deitu izan zeneko langintza eta ogibidean*²³. Eta lanaren ordainez, beharrezko zaizkien gauzak har ditzakete, dirua izan ezik. 7 Eta premia dutenean, bihoaz eske, beste pobreak bezala. 8 Eta zilegi izan bekie beren ofizioko erraminta eta tresnak edukitzea.

9 Saia bitez fraide guztiak egite onak egiten, idatzirik den bezala: Zaude beti zeregin on batetan, etsaiak jardunean aurki zaitzan²⁴.



10 Eta oraino: Alferkeria arimaren etsaia da²⁵. 11 Eta horregatik, hain zuzen, Jainkoaren zerbitzariak beti, edo otoitzari edo egite on bati lotu behar zaizkie.

12 Eta begira bezate fraideek, edonun, bakartegietan edo beste edozein lekutan daudelarik, ez daitezela lekuaz jabe eta lekuagatik ez daitezela inorekin sesiotan ari. 13 Eta berengana baletor nornahi, adiskide nahiz etsai, lapur edo gaizkile, harrera maitekorra egin biezaiote. 14 Eta edozein lekutan aurkitzen direlarik, fraideek behar dute espiritualki elkar ohoratu eta elkarri lotsa gorde, gogo onez eta *maxiaketa gabe*²⁶. 15 Eta begira ez daitezela ager kanpotik triste eta hipokrita goibelen antzera, baina azal bitez Jaunagan alai, argi eta neurri batean alegera.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

FRAIDEEK EZ DEZATELA DIRURIK HAR

1 Jaunak Ebanjelioan agintzen du: *Ernai egon, ihes egin gaiztakeria eta zekenkeria orotarik, begia eduki*

21. Ps 127, 2.
22. 2 Thes 3, 10.

23. 1 Cor 7, 24.
24. Hier. Epist 125.

25. Anselm. Epist 49.
26. 1 Pt 4, 9.

zeuen buruari, mundu hontako kezka eta bizitza hontako arazoetara lot ez zaitezten²⁷. 2 Horregatik, edozein tokitan egon edo noranahi dihoan fraideak dirurik edo txanponik ez beza inolaz ere eraman, ez har, ez har-araz, 3 ez jantzien nahiz liburuen aitzakiaz, ez bere lanaren ordainez; fraide erien estuasun larrian izan ezik, behin ere ez; 4 eta ez ditugu diru edo txanponak haintzakotzat hartu behar, harri koskorrak baino areago. 5 Hain zuzen ere, txanponak nahi dituztenak eta harriak baino ederragotzat dauzkatenak, hoiek itsutu egin nahi ditu deabruak. 6 Begira dezagun, bada, dena utzi genuenok, ez dezagula zeruetako erresuma huskeria horregatik gal. 7 Eta diruren batzuk nunbaiten guk aurkitzea gerta baledi, oinekin zapaltzen dugun hautsari baino jaramon gehiago ez diezaiegun egin, zeren huskeria baita, eta guztia oro huts.

8 Eta baldin gerta baledi —Jainkoak nahi ez dezala— fraideren batek dirua edo txanponak hartzea edo gordetzea —lehen aipatu den gaixoen beharragatik ez bada—, fraide guztiek eduki bezate halakoa gezurrezko fraidetzat eta dirua gordetzen duen lapurtzat, benetazko penitentzia egin ez baleza behintzat. 9 Eta ez bezate fraideek inolaz ere txanpon edo diru limosnarik etxe edo lekuren batzuetarako ez har, ez har-araz, ez bila, ez bila araz; 10 eta leku hoietarako dirua eskatzen duen inorekin ez bitez joan. 11 Eta gure bizikeraren kontrako ez diren lanketak egin ditzakete fraideek Jaiuaren bedeinkazioaz. 12 Eta legenartsuen premia larri edo nabarian, zilegi izan bekie fraideei haientzako limosna eskatzea. 13 Baina izan bezate kontu handia diruaz. 14 Eta halaber, begira ez daitezela fraideak herriz herri ibil, irabazi zikin bategatik.

27. Lc 12, 15; 21, 34.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

LIMOSNA ESKATZEAZ

1 Ardura bitez anaiak Jesukristo gure Jaunaren pobretasun eta humiltasunari jarraitzen, 2 eta gogoan har bezate ez dugula mundu hontako beste gauzarik eduki behar, baizik eta, Apostoluak dionez, *zer jan eta zer jantzi izanez gero, hoiekin asebate egon behar dugula*²⁸.

3 Eta poztu behar dute jende arrunt eta mezipreziatu, pobre eta arlote, gaxo eta legenak jotako eta bideetako eskaleekin aurkitzen direnean. 4 Eta premiatan baldin badira, bihoaz limosnatara. 5 Eta ez bitez lotsa, baina

gogora bezate Jainko bizi ahalguztidunaren seme Jesukristo gure Jaunak *bere aurpegia harri mugerraren pare jarri zuela*²⁹, eta ez zela lotsatu, 6 eta behartsu eta erromes izandu zela, eta limosnatatik bizi zela, bai bera eta bai Birjina dohatsua, eta bai haren ikasleak ere. 7 Eta gizonek lotsaraz ditzatenean eta limosnarik eman nahi ez dietenean, eskerrak eman biezazkiote hartatik Jainkoari. 8 Izan ere meziprezio hoiengatik egundoko ohorea jasoko dute Jesukristo



gure Jaunaren hauzitegian. 9 Eta jakin bezate, lotsa, ez jasutzen dutenei, baina ematen dutenei egotzi behar

28. 1 Tim 6, 8.

29. Is 50, 7.

zaiela. 10 Eta limosna, behartsuei zor zaien senipartea eta eskubidea dela, Jesukristo gure Jaunak irabazi ziguna. 11 Eta limosnatan lan egiten duten fraideek, berebiziko saria bilduko dute, eta limosna emailei irabazteko eta biltzeko bidea paratzen diete. 12 Izan ere, gizonak munduan uzten dituzten gauza guztiak galduko dira, baina egindako karitate eta limosnetarik saria izango dute Jaunarengandik.

13 Eta bata besteari bere premia beldurrik gabe ager biezaio, beharrezko dituenak izan ditzan, eta eman ahal dakizkion. 14 Eta bakoitzak maita eta bazka beza bere anaia, amak bere semea maitatzen eta bazkatzen duen bezala, Jainkoak aukera ematen dien gauzetan. 15 *Eta jaten duenak, jaten ez duena ez beza erdeina, eta jaten ez duenak jaten duenagatik ez beza juzgorik egin*³⁰. 16 Eta premia garaian zilegi izan bekie fraide guztiei, daudenean daudelarik, gizonak jan ditzaketen janari mueta guztietarik jatea, 17 Jaunak Dabidez dionaren arabera: *apaizek ez beste inork jan ez zitzakeen proposizioko ogiak jan zituela*³¹. 18 Eta gogora bezate Jaunak dion hura: *Kontu gero zuen bihotzak ez daitezela sabelkerian, Moskorkerian eta bizitza hon-tako kezketan astun, eta ez dakizuela itsumustuan ustegabeko egun hura etor*; 19 *lakioa bezala etorriko baitzaie, lurbira gainean eseririk dauden guztiei*³². 20 Orobat beharrizan guztiz ageria den garaian, fraide guztiek har bezate behar dutena, Jaunak aditzera emango dien moduan, zeren ezinak ez baitu legerik.

HAMARGARREN KAPITULUA

GAIXORIK DAUDEN FRAIDEEZ

1 Anaien bat gaixo baledi, nunahi aurkitzen delarik beste fraideek ez bezate bertanbehera utz, baina beren arteko bat —edo bat baino gehiago, hala behar balitz—

30. Rom 14, 3.

31. Mc 2, 26.

32. Lc 21, 34-35.

haren zerbitzurako izenda bezate, eta zerbitza biezaiote, berei egitea nahiko luketen bezalaxe; 2 baina estuasun larrian beste pertsona bat jar dezakete, gaixoa zain dezan. 3 Eta anaia eriarri erregutzen diot denagatik eskerrak eman diezazkiola Egileari. 4 Eta hauxe izan bedi haren gogoia: Jaunak plazer duen bezala egotea, nahiz onik nahiz gaixorik, 5 zeren *betiko bizitzarako begiz joak dauzkan guztiak*³³ zigorren eta eritasunen miztoez eta bihotz damuaren espirituaz eskolaizen baititu, 6 Jaunak dion bezala: *Maite ditudanak nik gogor hartu eta zigortu ohi ditut*³⁴. 7 Eta asaldatuko balitz edo Jainkoaren kontra edo anaien kontra haserretuko, edo agian gehiegizko lehiaz medizinak nahiko balitu, aurki hil behar duen eta arimaren etsai den haragia libratu nahiz, guzti hau gaiztoagandik datorkio, eta haragiarena da, eta ez dirudi halakoak fraideetako denik, 8 gorputza arima baino areago maite duenez geroz.

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

FRAIDEEK EZ DUTELA INOR GAITZETSI ETA BEZTU BEHAR, ETA ELKAR BEHAR DUTELA MAITE

1 Eta anaia guztiek begira bezate ez diezaiotela gezur-txarkeriarik inori ezar, *ez eta sesiorik sortu ere*³⁵, bainan isilik egoten lehia bitez, Jainkoak hartarako grazia emanik. 2 Eta ez bitez beren artean eztabaidatan ibil, ez eta beste inorekin ere, bestela baizik saia bitez humilki erantzuten, esanez: *Morroi gizagaixo batzuk gara*³⁶. 3 Eta ez bitez haserre, zeren *beren senideen kontra haserretzen diren guztiak errudun izango dira hauzitegian: bere senideari Raka hots egiten diona, berriz, errudun izango da biltzarrean; eta Zorua hots egiten diona, ifernuko suaren gai izanen da*³⁷. 4 Eta maita bezate elkar, Kristoren esanaren arabera: *Hauxe da ene agindua, elkar maita dezazuten, nik maitatu*

33. Act 13, 48.

34. Ap 3, 19.

35. 2 Tim 2, 14.

36. Lc 17, 10.

37. Lc 5, 22.

*zaituztedan bezala*³⁸. 5Eta elkarri zor dioten maitasuna *erakuts bezate egiteetan*,³⁹ apostoluak dionez: *Ez dezagun maita hitzez eta mihiz, egitez eta egiaz baizik*⁴⁰. 6*Eta ez bezate inor irain*⁴¹, beztu edo maixeatu, idatzirik baitago: *Gorrotagarri zaizkio Jaungoikoari gaizki esale eta gezur asmatzaileak*⁴². 7Eta izan bitez *otzanak, gizon denen alderakotzat ahal duten gozotasun guztia erakutsiz*⁴³. 8Ez bezate inor juzga, inor gaitzets, eta Jaunak dionez, besteren hutsegite xumeetan arreta jarri beharrean⁴⁴, *gogoan iraul bitzate berenak barrengo mingoztasunaz*⁴⁵. 9Eta ahalegin bitez ate estuan barna sartzen, Jaunak dionez: 10 *Bizitzara daraman atearen estua! Bidearen meharra! Zein gutik du aurkitzen!*⁴⁶.

HAMABIGARREN KAPITULUA

BEGIRATU GAIZTOETARIK ETA EMAKUMEEKIN MAIZ IBILTZETIK IHES EGIN BEHAR DELA

1 Nunahi daudelarik eta noranahi doazela fraide guztiak gorde bitez begiratu gaiztoetarik eta emakumeeekin maiz ibiltzetik, eta inork ez beza hauekin bakarrean hitz egin. 2 Apaizek garbiki hitz egin bezate berekin, penitentzia edo kontseju espiritualen bat emanaz. 3 Eta anaietarik inortxok ere ez beza emakumerik obedientziplean har, baizikan ematen zaion abisu espiritualaz egin dezala penitentzia, gogoko zaion lekuan. 4 Eta begira gaitezen ondo denok, eta garbi gorde ditzagun geure gorputz zati guztiak, zeren Jaunak esaten baitu: *Nork ere begiratu baitio emakume bati harenganako gogoaz, nahastu da berarekin bere bihotzean*⁴⁷.

38. Jo 15, 12.

39. Jac 2, 18.

40. 1 Jo 3, 18.

41. Tit 3, 2.

42. Rom 1, 29-30.

43. Tit 3, 2.

44. Ikus Mt 7, 3; Lc 6, 41.

45. Is 38, 15.

46. Mt 7, 14.

47. Mt 5, 28.

HAMAIRUGARREN KAPITULUA

HARAGIZKO BEKATUAN ERORITAKOEN GAZTIGUA

1 Baldin anaien batek, etsaiak zirikatutik, haragizko bekatua egin baleza, bere bekatu dorpeaz galdu duen habitua ken bekio, eta erabat utz beza, eta gure Ordenatik zeharo jaurtia geldi bedi. 2 Eta egin beza gero bere bekatuen penitentzia.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

FRAIDEEK ZER MODUZ IBILI BEHAR DUTEN MUNDUAN BARNA

1 Fraideek, munduan barrena doazenean, ez bezate biderako ezer eraman, *ez poltsarik, ez bide zorrerik, ez ogirik, ez dirurik, ez makilarik*. 2 *Eta edozein etxetan sartzen direlarik, esan bezate lehenik: Bakea etxe honi*. 3 *Eta etxe hartan geldituz, haienetik jan eta edan bezate*⁴⁸. 4 *Gaiztakeriari ez bihurtu*⁴⁹; bestela baizik: *inork eskuineko masailan jotzen baldin baditu, eskeini bestea ere*, 5 *eta kapa kentzen dienari, ez ukatu soinekoa ere*. 6 *Ezer eskatzen dizuen guztiei, eman; eta zuena dena kentzen dizuenari, ez bihur araz*⁵⁰.

HAMABOSKARREN KAPITULUA

FRAIDEEK EZ DEZATELA ABERERIK EDUKI, ETA EZ DAITEZELA ZALDIZ IBIL

1 Ene fraide guztiei, nahiz klerigo nahiz laikoei, agintzen diet, munduan barrena dabiltzanean edo egozteko lekuetan bizi direnean, ez dezatela inolaz ere abererik eduki, ez berenean, ez beste inorenean, ez eta beste nolanahiko gisaz ere. 2 Eta zaldiz ibiltzea ez bekie zilegi izan, gaixotasunak edo beste beharrian larriren batek hartara behartzen ez baditu.

48. Lc 9, 3; 10, 4-8.

49. Mt 5, 39.

50. Lc 6, 29-30.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

MAIRU HERRIRA ETA BESTE FEDEGABEETARA DIHOAZTENEN GAINEAN



1 Jaunak esaten du: *Horra, ardiak otso artera bezalaxe bialtzen zaituztet*. 2 Izan zaitetze, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo⁵¹. 3 Beraz, fraideetarik edonork, Jainkoaren goi-argiz, mairu artera nahiz beste fedegabeetara joan nahiko baldin balu, bihoa bere ministro eta zerbitzariaren baimenaz. 4 Ministroak, ordea, eman biezaio baimena eta ez

biezaio galeraz, baldin bialtzeko aukerakoa dela ikus baleza; 5 eta Jainkoari kontu eman beharko dio, baldin honetan edo beste zerbaitetan arinki joka baleza. 6 Eta hara dihoazen fraideek espiritualki bi gisatara joka dezakete. 7 Gisa edo era bat da ez dezatela liskar eta eztabaidarik sor, baizikan beude *Jainkoagatik gizaseme guztien menpean*⁵², eta berak kristau direla aitortu bezate. 8 Beste era da, Jainkoaren gogokoa dela ikus dezatenean, iragar dezatela Jainkoaren hitza, 9 Jainko ahalguztiduna, Aita eta Semea eta Espiritu Santua, gauza guztien Egilea, Seme erosle eta salbatzaileagan sinets dezaten, 10 eta bataia eta kristau egin daitezen, zeren *urez eta Espirituz berriz jaio ezik, ezin daiteke inor Jainkoaren erresuman sar*⁵³.

11 Gauza hauek eta Jaunak nahi lituzkeen gaine-rakoak esan dietzaiekete haiei eta besteei, 12 Jaunak ebanjelioan dion bezala: *Ni gizonen aurrean inork aitortzen baldin banau, nik ere aitortuko dut hori zeruko*

51. Mt 10, 16.

52. Pt 2, 13.

53. Jo 3, 5.

*Aitaren aurrean*⁵⁴, 13 *Eta: alabaina nitaz eta ene hitzez lotsatuko dena, gizonaren Semea ere hartaz lotsatuko da etorriko denean bere osparean erdian, eta Aitarenean eta aingeru dohatsuenean*⁵⁵. 14 *Eta edozein lekutan dau den fraide guztiak oroi bitez Jesukristo gure Jaunari beren buruak eman eta beren gorputzak utzi zizkiotela, eta beraren maitasunez etsai ageriko eta izkutuetara arriskatu behar dituztela beren buruak*, 15 *Jaunak esaten duen bezala: 16 Nigatik bere burua galtzen duenak salbatuko du betiko bizitzan*⁵⁶. *Zorionekoak zuzentasunagatik erasotuak direnak, zeren hoiene izango baita zeruko erresuma*⁵⁷. 17 *Ni persegitu banaute, zuek ere egingo zaituzte*⁵⁸. 18 *Hiri batean persegitzen baldin bazaituzte, alde egin beste batera*⁵⁹. 19 *Zorionekoak zuek, ni naizela eta, gizonak gorrotatzen eta madarikatzen eta urruntzen eta iraintzen zaituzteenean, eta asma-ahalak zeuen kontra esaten dizkitzuetenean; poz-tu egun hartan eta alaitu*, 20 *Zeren handia izango baita zuen zeruko saria*⁶⁰. 21 *Hona neuk esan zuei, neure lagunoi: Ez zaitetze ikara, ez beldurrik izan, gorputza hil eta besterik ezin egin dutenei*⁶¹. 22 *Kontu beldur-tzearekin*⁶². *Eramanaren eramanaz salbatuko dituzue zeuen arimak*⁶³. 23 *Eta azkeneraino irauten duena, horixe salbatuko da*⁶⁴.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

PREDIKARIEZ

1 *Anaietarik inork ere ez beza predikurik egin Erroma-ko Eliza Santuak daukan era eta arauen kontra, eta bere ministroaren baimenik gabe. 2 Ministroak, berriz, begira beza ondo ez diezaiola arinki baimenik eman inori.*

54. Mt 10, 32.

55. Lc 9, 26.

56. Mc 8, 35; Lc 9, 24.

57. Mt 5, 10.

58. Jo 15, 20.

59. Mt 10, 23.

60. Mt 5, 11-12; Lc 6, 22-23.

61. Mt 10, 28; Lc 12, 4.

62. Mt 24, 6.

63. Lc 21, 19.

64. Mt 10, 22.

3 Fraide guztiek, berriz, beren obrekin predika bezate. 4 Eta inork, nahiz ministro nahiz predikarik, ez beza anaien zerbitzua edo predikari ofizioa beretzat har, bainan agintzen zaion unean utz beza, bat ere kontrarik egin gabe. 5 Horregatik, *Jainkoa den amorioak*⁶⁵ eraginik, erregutzen diet neure anaia predikari, hizlari, langile guztiei, klerigo nahiz laikoei, saia daitezela gauza guztietan beren burua beheratzen, 6 ez dezatela harropuzkeria eta arrandirako biderik har beren hitz eder eta egiteetan, ez eta beren arimetan eta beren bidez inoiz Jainkoak esan, egin eta eragiten dituen gauza onetan ere, 7 zeren Jaunak berak esaten baitu: *Alabaina ez zaitezte alegera, espirituak garaitzen dituzuelako*⁶⁶.

8 Eta jakin dezagun segurki ez daukagula ezer gurerik, gaiztakeria eta bekatua baizik. 9 Eta zinez poztu behar dugu *atsekabe askotan erortzen garenean*⁶⁷, eta arima eta gorputzeko zenbait estuasun eta larrialdi mundu honetan betiko bizitzaren truke sufritzen ditugunean. 10 Gorde gaitezen, bada, anaia guztiok, harrokeria eta handiuste orotarik. 11 Begira gaitezen mundu hontako jakinduriatik eta haragiaren zuhurtziatik⁶⁸. 12 Izan ere, haragiak kontu handia du hitz egiteaz eta kontu guti obratzeaz. Ez du nahi zuzentasunik eta barreneko santutasunik, eta bai azaleko zuzentasuna eta gizonen aurreko santutasun itxura. 13 Eta hoiengatik esaten du Jaunak: *Bene benetan esaten dizuet: jaso zuten hoiek beren saria*⁶⁹. 14 Jaunaren espirituak, berriz, haragia oinperatua eta hilduratua, ezetsia eta ezereztua eta iraindua izatea nahi du, 15 eta humiltasunaz eta eroapenaz, bakuntasun sotil garbiaz eta bihotzeko bake egiazkoaz du kontu, 16 eta betiere, gauza guztien gaitetik jainkozko beldurra eta jainkozko jakintza eta Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren Jainko maitasuna desiratzen du.

17 Eta ontasun guztiak bihur ditzazkiogun Goi-goiko eta Goreneko Jainko Jaunari eta on guztiak

65. 1 Jo 4, 8.

66. Lc 10, 20.

67. Jac 1, 2.

68. Ikus Róm 8, 6.

69. Mt 6, 2.

Harenak direla aitor dezagun, eta denengatik eskerrak eman diezazkiogun, zeren gauza on guztiak Beragandik baitatoz. 18 Eta Goi-goiko eta Goreneco, egiazko Jainko bakarrak izan bitza eta berari bihurtuak izan bitez eta berak har bitza ohore eta agur guztiak, goresmen eta bedeinkazio guztiak, esker guztiak eta ospe guztia, 19 zeren on guztia Harena baita, eta *Bera bakarrik baita on*⁷⁰. 20 Eta ezer gaiztorik egiten edo esaten dela, edo eta Jainkoari birao egiten zaiola ikusten nahiz entzuten dugunean, guk bedeinka eta onets eta gora dezagun sekulakotz bedeinkatua dena. Amen.

HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA

NOLATAN MINISTROEK ELKARREKIN BILDU BEHAR DUTEN

1 Urteoro, Jainkoaren zerbitzuko gauzetan jarduteko, ministro bakoitzak bil ditzake bere fraideak gogoko duen lekuan, Jondone Mikel goi-aingeruaren jaian. 2 Eta betoz kapitulura Mendekosteko jaian Portziunkulako Andre Mariaren elizara ministro guztiak: mendiez eta itsasoz bestaldekoak hiru urtetik hiru urtera, eta gainerakoak urtean behin, 3 anaidi guztiko ministro eta zerbitzariak bestela erabakitzen ez baldin badu behintzat.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

ANAIK KATOLIKOKI BIZI DAITEZELA

1 Anaia guztiak katolikoak izan bitez, eta katolikoki bizi eta mintza bitez. 2 Eta baldin norbaitek, hitzez nahiz egitez, fede eta bizikera katolikoan hutsik egin baleza, eta zuzenduko ez balitz, gure anaiditik zeharo jaurtia izan bedi. 3 Eta klerigo eta erlijioso guztiak geure nagusitzat har ditzagun arimaren onerako diren eta gure bizikeraren kontra ez dihoazen gauzetan, 4 hoiien apaizgoa eta ministerioa Jaunagan haintzat hartuaz.

70. Lc 18, 19.

HOGAIGARREN KAPITULUA

FRAIDEEN KOFESIOAZ ETA JESUKRISTO GURE JAUNAREN GORPUTZ-ODOLEN HARTZEAZ

1 Ene anaia bedeinkatuek, bai klerigo eta bai laikoek, aitor biezazkiete beren bekatuak gure anaidiko apaizei. 2 Eta hori egiterik ez balukete, egin bezate kofesioa beste apaiz zentzudun eta katolikoekin, zihurki hauxe jakinik eta sinetsiz, alegia: 3 edozein apaiz katolikogandik penitentzia eta absoluzioa hartzen dutenean, bekatu haietarik ezpairik gabe askatuak izango direla, 4 baldin agintzen zaien hoben-nekea humilki eta zintzoki betetzen saiatzen badira. 5 Baina une hartan apaiz aukerarik ez balukete, aitor biezazkiote bekatuak beren anaiari, Jondone Jakueren hitzaren arabera: *Elkarri egiozue zeuen bekatuen aitorra*⁷¹ 6 Baina haatik apaizengana joateari ez utz, zeren hoiei bakarrik eman baitzaie lotzeko eta askatzeko ahalmena. 7 Eta horrela, ongi damutu eta kofesatu ondoren, har bitzate Jesukristo gure Jaunaren gorputz-odolak humiltasunik eta begirunerik handienaz, 8 Jaunak berak dion hura gogoratuaz: *Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizitza dauka*⁷². Eta: *Egin hau nere oroitzapenetan*⁷³.



HOGEI ETA BATGARREN KAPITULUA

ANAIK EGIN LEZAKETEN GORESMEN ETA EXORTUAZ

1 Eta hona hemen zer-nolako exortu eta goresmena egin dezaketen ene fraide guztiek, Jainkoaren bedeinkazioaz, hala nahi balezate:

71. Jac 5, 16.

72. Jo 6, 55.

73. Lc 22, 19.

- 2 Beldur izan eta ohora,
gora eta bedeinka,
*eskerrak eman*⁷⁴ eta agur
guztiahaldun Jainko Jauna
Hirutasun eta Batasunean,
Aita, Semea eta Espiritu Santua,
gauza guztien Egilea.
- 3 *Egin penitentzia,*
*ekar penitentzia irabazteko lain izango diren frutuak*⁷⁵.
Begira, gero, laster hilko zaretela.
- 4 *Eman, eta emango zaizue*⁷⁶.
- 5 *Zuek barkatzen ez badizkiezue*⁷⁷ gizonei beren
bekatuak,
ez eta Jaunak ere ez dizkizue barkatuko zeuen
bekatuak.
- 6 Aitor zeuen bekatu guztiak⁷⁸.
- 7 Zorionekoak penitentzian hiltzen direnak,
zeren zeruko erresumara joango baitira.
- 8 Penitentziarik egin gabe hiltzen direnen errukarria!
- 9 Deabruaren ume izango dira,
haren obrak egin dituztenez gero⁷⁹,
eta betiko surtara joango dira.
- 10 Begira
eta alde egin zazue gaitz orotarik
eta iraun onbidean azkeneraino.

HOGEI ETA BIGARREN KAPITULUA

ANAIEI EXORTUA

- 1 Gogora dezagun fraide guztiok Jaunak diona:
*Maita zeuen etsaiak eta on egin gorroto zaituztenei*⁸⁰.
- 2 Izan ere, Jesukristo gure Jaunak, *zeinen urratsei ja-*

74. 1 Thes 5, 18.

75. Mt 3, 2; Lc 3, 8.

76. Lc 6, 37-38.

77. Mc 11, 26.

78. Jac 5, 16.

79. Ikus Jo 8, 44.

80. Mt 5, 44.

*rraiki*⁸¹ behar gatzazkion, adiskide deitu zion saltzai-
leari⁸², eta bere borondatez jarri zen gurutzifikatu zu-
tenen eskuetan. 3 Gure adiskide dira, beraz, bidegabekiro
guri lanbide eta larritasun, lotsa eta irainak, nahigabe
eta penak, martirio eta heriotza ematen dizkigutenak;
4 eta hauek hagitz maitatu behar ditugu, zeren hoiek
egiten digutenetik sekulako bizitza jasotzen baitugu.
5 Eta gorrota dezagun geure gorputz hau bere gaiz-
takeria eta bekatuekin, haragiaren arabera biziz Jesu-
kristo gure Jaunaren maitasuna eta sekulako bizitza
kendu nahi digulako, eta bere burua, guztiekin batean,
ifernuan galdu. 6 Izan ere gu, geure erruaren ondorioz,
nazkagarriak gara, ahulak, txarrerako bai azkarrak eta
grinatuak, 7 Jaunak ebanjelioan dionez: *Bihotzetik irte-
ten dira burutazio gaiztoak, ezkontza hausteak, hara-
gikeriak, hilkintzak, lapurretak, diru zalekeria, gaizta-
keriak, maltzurkeria, lizunkeria, ikusi ezina, gezurrezko
testigantzak, biraoak, harrokeria, ergelkeria*⁸³. 8 Txar-
keria hauek oro barrendik, gizonaren bihotzetik heldu
dira. *Hoi etxek zikintzen dute gizona*⁸⁴.

9 Eta orain, mundua utzi genuenez gero, ez dugu
beste egitekorik Jaunaren nahiari jarraiki eta berari
atsegin emateaz arduratzea baizik. 10 Begira, gero, ez
gaitezela izan bide ertzetako lur, edo harriz nahiz aran-
tzez betetakoa, Jaunak ebanjelioan dion bezala: 11 *Hazia
Jainkoaren hitza da*. 12 *Bide ondoan erori eta zapaldua
izan zena, berriz, hauek dira: Hitza entzun eta uler-
tzen ez dutenak; etortzen da berehala deabrua eta lapur-
tzen die bihotzetan ereindako hitzaren hazia, sinets
eta salba ez daitezen*. 13 *Harritartean erori zenak, berriz,
esan nahi du zenbaitek oso pozik jasotzen dutela hitza,
entzun eta berehala; baina hitz hori dela eta, lanbidea
eta persekuzioa sortutakoan lur jotzen dute berehalaxe;
hauek ez dute beren baitan sustrairik, aldakorrak dira,
denborale labur baterako sinesten dute eta tentaldikoan*

81. 1 Pt 2, 21.

82. Ikus Mt 26, 50.

83. Mt 15, 19; Mc 7, 21-22.

84. Mc 7, 23; Mt 15, 20.

urruntzen dira. 14 Eta arantzartean erori zena hauek dira: hitza entzun, bai; baina mundu hontako kezka eta ardurak, eta ondasunen lilurak eta bestelako grina beltzak sartu, eta hitz hori ito egiten dute, eta frutu gabe gelditzen da. 15 Lur gozotan ereindakoak, berriz, hauek dira: bihotz on-jatorretan hitza entzun eta ulertu eta gorde ohi dutenak: eta ekinean-ekinean frutu ematen dutenak⁸⁵.

16 Horregatik guk, anaiok, Jaunak dionez, *utz ditzagun hildakoek beren hilak lurpera ditzatela*⁸⁶. 17 Eta begira gaitezen biziki Satanasen gaiztakeria eta maltzurkeriatik, zeren hark nahi duena da gizonak ez dezatela beren adimen eta bihotza Jaun eta Jainkoagan jar; 18 eta ingurumarian ibiliz, nahi du gizonaren bihotza harrapatu sari edo probetxu baten aitzakiaz, Jainkoaren hitza eta aginduak oroimenetik haizatu, eta giza bihotza nahi du munduko arazo eta kezken bidez itsutu eta han bere bizilekua kokatu, Jaunak dionez: 19 *Espiritu gaizto bat gizonagandik ateratzen denean, toki idor eta leiorretan ibili ohi da atsedean bila, eta ez du aurkitzen, eta esaten du: Utzitako neure etxera joango nauk berriro. 20 Eta etortzen da, eta hutsik, garbitua eta apaindua aurkitzen du. 21 Orduan joan, eta beste zazpi espiritu ekartzen ditu berekin, bera baino okerragoak, eta sartu, eta hantxe bizitzen dira. Hasierakoak baino okerragoak dira orduan, horrelako horren azkenak*⁸⁷. 22 Horregatik, anaia guztiok, kontu handiz begira gaitezen sari edo lan edo bentaja baten aitzakiaz ez dezagula geure gogo eta bihotza Jainkoagandik ken edo urrun. 23 Eta *amorio* santua bera den *Jainkoagatik*⁸⁸ erregutzen diet anaia guztiei, bai ministro eta gainerakoei, oztopo guztiak gainditurik, ardura eta kezka guztiak kendurik, ahal dezaketen modurik hoberenean, zerbitza, maita, adora eta ohora de-

85. Mt 13, 19-23; Mc 4, 15-20; Lc 8, 11-15.

86. Mt 8, 22.

87. Mt 12, 43-45; Lc 11, 24-26.

88. 1 Jo 4, 16.

zatela Jaun eta Jainkoa, bihotz eta gogo garbiz, zeren hori baita Berak gauza guztien gainetik nahi duena. 24 Eta egin diezaiogun bizitoki eta egonlekua geure baitan berari, Jainko Jaun Ahalguztidun, Aita, Seme eta Espiritu Santua denari, 25 zeinek esaten baitu: *Ernai egon, bada, eta otoitz egin noiznahi, etortzeko diren gertakizun txar guztiei ihes egiteko, eta Gizasemearen aurrean azaltzeko gai gerta zaitezten*⁸⁹. 26 Eta zutik otoitz egiterakoan, esan: *Gure Aita, zeruetan zarena*⁹⁰. 27 Eta adora dezagun bihotz garbiaz, zeren beti egin behar baita otoitz eta ez aspertu⁹¹; Aitak horrelako adoratzailleak nahi ditu eta. 28 Espiritua da Jainkoa, eta Jainko hori adoratzeko dutenek espirituz eta egiaz adonatu behar dute⁹². 29 Eta jo dezagun Berarengana gure arimen Aita eta Apezpikuagana bezala⁹³, zeren halaxe baitio: 30 *Ni naiz Artzain ona, neure ardiak larratzen ditudana, eta neure burua neure ardien alde ematen dut*⁹⁴. 31 Zuek denok, berriaz, anaiak zarete. *Eta ez eman inori "Aita" izena lurgainean, zeren bat bakarra baita zuen Aita, eta bera zeruan dago*. 32 *Eta zeuon buruei "Maisu" ez hots egin, zeren bat bakarra baita zuen Maisua: zeruan dagoen Kristo*⁹⁵. 33 Zuek nigan eta nere esanek zuengan irauten baldin badute, nahi duzuen eska, eta beti egingo zaizue⁹⁶. 34 Nunahi bizpahiru nere izenean biltzen baldin badira, hantxe naute ni ere beren artean⁹⁷. 35 Horra, zuekin izango nauzue munduaren azkenetarikoxe⁹⁸. 63 *Nik esan dizkitzuedan hitzok espiritua eta bizitza dira*⁹⁹. 37 *Ni naiz bidea, egia eta bizitza*¹⁰⁰.

38 Egon gaitezen beti leial haren hitz, bizitza, dotrina eta Ebanjelioari. Leial, alegia, gugatik bere Aitari erregutu, eta Aita horren izena agertu zigunari, esanez: 39 *Aita, zabaldu diet zure izena eman zenizkidan gizonei. Bai, zerorrek eman zenizkidan hitzak berak eman diz-*

89. Lc 21, 36.

90. Mc 11, 25.

91. Lc 18, 1.

92. Jo 4, 23-24.

93. 1 Pt 1, 25.

94. 1 Jo 10, 11. 15.

95. Mt 23, 8-10.

96. Jo 15, 7.

97. Mt 18, 20.

98. Mt 28, 20.

99. Jo 6, 64.

100. Jo 14, 6.

kiet. Hauek, berriz, ondo hartu dituzte eta benetan ezagutu dute zugandik atera nintzela, eta zuk bialdu nautzula sinetsi dute. 40 Hauetxengatik eskatzen dizut nik; munduagatik ez, baizik zuk eman dizkidazun hauen-gatik, zerorrenak baitira; eta nere gauza guztiak zureak dira. 41 Aita Santu horrek, gorde itzazu zerorren ize-nean neri eman dizkidazun hauek, gu biok bezala, berak ere bat izan daitezen. 42 Munduan naizen bitartean gau-zaok esaten dizkiet, nere poza bete-betea berekin izan dezaten. 43 Nik hauei zure hitza eman diet, eta mun-duak gorroto izan die, zeren ez baitira munduaren ni nerau ere munduarena ez naizen bezalaxe. 44 Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, gaitzetik gorde ditzazula baizik. 45 Santu itzazu egiatan: zure hitza da egia. 46 Zuk ni mundura bialdu ninduzun bezala, horrelaxe bialdu ditut nik ere hauek mundura. 47 Eta neure burua santutzen dut nik hoiengatik, berak ere egiatan santutuak izan daitezen. 48 Ez dizut eskatzen hoiengatik bakarrik, hoién hitzaren bidez neregán si-netsiko dutenengatik ere eskatzen dizut, guztiak bat izan daitezen, eta munduak jakin dezan zuk bialdu ninduzula, eta hauek maite izan dituzula ni maite izan nautzun bezalaxe. 49 Eta agertuko diet nik zure izena, zuk izan didazun maitasuna berengan izan dadin, eta ni halaber berengan. 50 Aita, ni naizen tokian zuk eman dizkidazunak ere nerekin batean han bertan egotea nahi dut nik, ikus dezaten zure ospea zure erresuman¹⁰¹.

HOGEI ETA HIRUGARREN KAPITULUA

OTOITZA, GORESMENA ETA ESKERRAK EMATEA

- 1 Guztiahaldun, goren, txit santu eta goi-goiko Jainkoa, Aita santu eta zuzena, zeru-lurretako jaun errege horri,
eskerrak bihurtzen dizkitzugu zeure ederragatik,
- 2 zeure borondate santuaz

¹⁰¹. Jo 17, 6-28.

- eta zeure Seme bakarraren bitartez Espiritu
Santuagan
gauza guztiak kreatu zenituelako,
bai espiritualak eta bai korporalak ere;
- 3 eta gu, zeure irudi-antzera eginak,
*paradisuan jarri ginduzulako*¹⁰².
- 4 gu, berriz, geure erruz erori ginen.
- 5 Baita ere eskerrak ematen dizkitzugu
zeure Semearen bidez gu egin ondoren, era berean
zeure benetako *amorio* santuaz *maite* izan
*gaituzulako*¹⁰³,
eta Bera, egiazko Jainko eta egiazko gizona,
Andre Maria beti Birjina do-
hatsuarengandik jaio arazi
zenuelako,
- 6 eta beraren gurutze, odol eta
heriotzaz
gu gatibuok birrerosiak iza-
tea nahi izan zenuelako.
- 7 Eta orobat eskerrak ematen
dizkitzugu
zure Seme hori bere jaunta-
sun haundiaz berriro eto-
riko delako
penitentziarik egin ez zutenak
eta zu aitortu ez zinduzten
madarikatuak
sekulako surtara bialtzera,
- 8 eta zu aitortu, adonatu
eta penitentzian zerbitzatu zinduzten guztiei esatera:
Zatozte, ene Aitaren bedeinkatuok,
torizue munduaren sorreratik zeuentzat egindako
*erresuma hau*¹⁰⁴.
- 9 Eta gu guztiok, errukarri eta bekatariok,
ez baikara din zure izena aipatzeko,
arren eskatzen dizugu,



102. Ikus Gn 1, 26; 2, 15.

103. Jo 17, 26.

104. Mt 25, 34.

- 10 zeure Seme maite Jesukristo gure Jaunak
*—zeinengan jarri baitzenuen zeure atsegina—*¹⁰⁵
 Espiritu Santu Poz-emalearekin batean,
 zeuri eskerrak eman diezazkizula,
 zeuri eta berei gogoko zaizuen bezala, gauza
 guztiongatik.
- 11 Izan ere beti eta zernahitarako aski duzu berarekin,
 eta beraren bidez hain gauza handiak egin dizkiguzu.
 Alleluia.
- 12 Eta Andre Maria beti Birjina eta Ama txit dohatsuari,
 Jondone Mikeli, Gabrieli, Rafaeli,
 eta zeruko espiritu talde guztiei,
—serafin, kerubin, aulki,
nagusi, agintedun, ahaldun,
bertute, aingeru, goi-aingeruei—
- 13 San Joan Bautista dohatsuari,
 Joan ebanjelistari, Pedro, Paulo
 eta patriarka zorionsuei, profetei, errugabeei,
 apostolu, ebanjelista, dizipulu,
 martiri, aitorle, birjina,
- 14 Elias eta Henok dohatsuei eta santu guztiei,
 lehenago izan eta gero izango eta orain direnei,
- 15 zeure amorioagatik humilki eskatzen diegu,
 zerorri gogoko zaizun bezala,
 gauza guzti hauengatik zeuri eskerrak eman
 diezazkizutela,
 egiazko Jainko goren horri, betiereko eta bizi horri,
 zeure Seme kutun Jesukristo gure Jaunarekin
 eta Espiritu Santu Poz-emailearekin batean
 gizaldi eta gizaldietan. Alleluia.
- 16 Eta Eliza santu, katoliko eta apostolikoaren barre-
 nean Jainko Jaunari zerbitzatu nahi dioten guztiei, 17 eta
 Elizako Ordena guztiei, apaiz, diakono, subdiakono,
 akolito, exorzista, irakurle, atezain eta klerigo guztiei,
 18 fraide eta moja guztiei, 19 ume eta haur, eskale eta
 behartsu, errege eta printzipe, langile, nekazari, morroi

^{105.} Mt 17, 5.

eta jaunei, 20 birjina guztiei, emakume ezkongue eta se-nardunei, gizaseme eta emakume laikoei, ume ttipi mu-til-neskatoei, 21 gazte eta zaharrei, sendo eta gaixoei, xume eta handiki guztiei, 22 eta *herri, jendaki, gizaki, tribu, mintzaira*¹⁰⁶, nazio guztiei, eta mundu osoan diren eta izango diren gizon guztiei, humilki eta arren erre-gutzen diegu guk, *zerbitzari ezerezak*¹⁰⁷ garen fraide txikarrok, iraun dezagula guztiok egiazko fede eta penitentzian, zeren bestela ez baitauka inork salbaziorik. 23 Maita dezagun guztiok *bihotz-bihotzez, arima osoz, gogo guztiz, indar guztiz, adimen guztiz, ahalmen guz-tiz, ahalegin eta nahi osoz*¹⁰⁸, barren-barrendik, errai guztiekin eta lehia biziz Jainko Jauna, 24 bere gorputz osoa, arima guztia eta bizitza guztia gu guztioi eman zigun eta ematen digun Jainkoa; 25 gu egin eta erosi ginduan eta bere erruki hutsez salbatuko gaituen Jain-koa; 26 guri, zoritxarreko errukarri ustel eta kirastuoi, eskergabe eta okerroi, on guztiak egin zizkigun eta egiten dizkigun Jainkoa.

27 Deus besterik ez dezagun, bada, opa izan, ezer besterik ez nahi, beste ezerk ez biezagu atseginik eman, ez gaitzala alai geure Egile, Erosle eta Salbatzaile egiazko Jainko bakarrak baizik; 28 Bera da on betea, on osoa, on guztia, egiazko eta goreneko ona, *bera bakarrik ona*¹⁰⁹, bihozpera eta otzana, bigun eta gozoa, 29 bera bakarrik santua, zintzoa, egiaiti eta zuzena, bera bakarrik laztana, errugabe eta garbia, 30 *beragandik eta beragatik eta beragan*¹¹⁰ daukagu barkapen guztia, grazia guztia, loria guztia penitente eta justu guztiena, zeruan pozetan diren zerutar guztiena.

31 Ea, bada, ezerk ez diezagula galeraz, ezerk apar-ta, ezerk traba. 32 Gu guztiok nunahi, toki orotan, ordu orotan, egunoro eta etengabe sinets dezagun egia-tan eta humilki, eta bihotzean gorde eta maita dezagun, ospa, agur, zerbitza, gora eta bedeinka, haintza eta

106. Ap 7, 9.

107. Lc 17, 10.

108. Dt 6, 5; Mc 12, 30. 33; Lc 10, 27.

109. Lc 18, 19.

110. Ikus Rom 11, 35.

gorets, alaba eta esker goi goiko eta goreneko Jainko betikoa, 33 Hirukoitz eta Bakarra, Aita eta Seme eta Espiritu Santua, gauza guztien Egilea, beragan sines-ten eta itxoiten dutenen eta bera maite dutenen Salbatzailea, 34 hasiera eta bukaerarik ez duena, aldakaitza, ikuskaitza, konta-ezina, esan-ezina, ulerkaitza, bilakaitza, bedeinkatua, goragarria, haintzatsua, goren-gorena, goi-goikoa, goienekoa, biguna, maitagarria, zoragarria eta beti eta denen gainetik guztiz opagarria dena gizaldi eta gizaldietan.

HOGEI ETA LAUGARREN KAPITULUA

AZKENA

35 Jaunaren izenean arren eskatzen diet fraide guztiei, gure arimen salbaziorako bizimodu hontan idatzirik gelditzen diren hitz hauen esanahi eta helburua ikasten saia daitezela eta guzti hau sarritan gogora dezatela. 36 Eta ahalguztidun, Hirukoitz eta Bakarra den Jainkoari erregutzen diot bedeinka ditzala berak gauza hauek irakasten eta ikasten, gordetzen eta oroitzen ditzutenak, gure salbaziorako hemen idatzi diren gauzok gogoratzen eta betetzen ditzuten bakoitzean.

37 Eta erregutzen diet denei, beren oinak munkatuz, ondo maita, bete eta beren bihotzetan ekar ditzatela. 38 Eta Jainko ahalguztidunaren eta Aita Santuaren partez, eta obediencia dela medio, nik anai Frantziskok, gogo biziz agintzen dut, agindu eta behartu, bizimodu hontan idatzi direnetan, ez dezala inork ezer ken, ez eta deus gehiago ezar ere, eta ez dezatela fraideek beste erreglarik izan.

39 Loria Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari. Hasieran zen bezalaxe orain eta beti, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

BIGARREN ERREGLA

Hauxe da frantziskotar fraileok profesakoan besarkatzen duguna. Erregla buldatua deitzen zaio, Honorio III-garrenak buldaz onartu baitzuen 1223-ko Azaroaren 29-an.

Esana dago Frantziskok 1221-ko Erreglarentzat nahi zuela Aita Santuaren baiespena, baina ezin iritxi izan zuen. Luzeegitza jotzen zuten eta zehaztasun txikikotzat. Munduan barreiatu bizi ziren hainbeste frailek Erregla labur, zehatz, garbi bat behar zuten.

Bildu ziren, beraz, Fonte Colombo-ra Frantzisko, frai Leon eta frai Bonizo, eta hantxe burutu zuten lana hiruron artean. Erregla berriaren oinarria lehenengo Erreglan dago; zenbait gauza aldatu egingo da, arau berriak sartu, eta batez ere laburtze lan haundia ageri da.

Espirituak otoitzean ematen zion erara diktatzen zuen santuak, eta besteak idatzita jarri.

Ezaguna da nola frai Elias-ek Erregla egin-berria galdu zuen. Santuak, ordea, leku berera joan eta berriro idatzi zuen lehenbizikoaren antzera.

Fundatzaileak Erregla zegoen bezalaxe aproba-arazi nahi zuen. Ministroak, baina, ez zeuden konforme; latzegia izango ote zen bildur ziren. Orduan Frantziskok Hugolino kardenalarengana jotzen du. Kardenalak, berriz, frai Elias eta beste ministroen laguntzaz, goitik behera eraberritzen du Erregla berria, santuaren idealak gogoan dituelarik. Horrela pasarte batzuk kendu egiten dira, beste batzuk arindu, eta lege idazkera berezia ematen zaio Erreglari.

Aita Santuak onartu zuen 1229-an eta halaxe sortzen da Erregla buldatu hau. Lehenengoa baino askoz laburragoa duzu; ez du haren bihotz bertasunik, haren muinik gehientsuena gordetzen du, ordea. Kendu ziranen artean dago santuak hain gogoko zuen Lk 9, 3 pasarte hura: "Ez hartu ezer biderako..."; nork-bere ukapena adierazten duten beste zenbait pasarte ere kendu egiten dira. Gauza berri dituzu ordenaren gobernuari buruz saritzen direnak eta kardenal babestzaileari buruzkoak.

AITA SANTU HONORIO HIRUGARRENAK, SAN FRANTZISKOREN ORDENAKO ERREGLA ONARTUZ, ATERA ZUEN BULDA

Honorio Apezpiku, Jainkoaren zerbitzarien zerbitzariak: Seme maite ditudan Anai Frantzisko eta Fraide Txikarren Ordenako beste Anaiei: Osasuna, eta Apostoluen bedeinkazioa. Ohitura du Apostoluen Aulki honek eske datozkionen nahi jainkotiar eta asmo egokiei harreara on egitea eta onginahiaz laguntzea. Horregatik, bada, seme kutunok, zuen eskari jaieratsuei men eginez, Ordenako erregla —oroitzapen oneko Inozentzio gure aurreko Aita Santuak lehen inoiz onetsia—, Bulda honen barnean datorren eran, Apostoluen autoritateaz nahi dugu finkatu, eta idazki honen babesaz sendotu.

Erregla hori hara zer-nolakoa den:

LEHENBIZIKO KAPITULUA

JAUNAREN IZENEAN HASIERA EMATEN ZAIO FRAIDE TXIKARREN ERREGLA ETA BIZITZARI

1 Fraide Txikarren Erregla eta Bizitza honela da, alegia: Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio santua gordetzea, obedientzian, berenik gabe, eta garbitasunetan biziz. 2 Anai Frantziskok obedientzia eta begirunea hitz ematen dizkio jaun Honorio Aita Santuari, eta elizlekeen arabera segidan etorriko diren haren ondokoei, eta orobat Erromako Elizari. 3 Beste Fraideak, berriz, Anai Frantzisko eta haren ondorengoei obeditzera daude behartuak.

BIGARREN KAPITULUA

BIZITZA HAU HARTU NAHI DUTENEN GAINEAN, ETA HARTZE HORI NOLA EGIN BEHAR DEN

1 Bizimodu hau zenbaitek har nahi baleza, eta gure Fraideengana baletor, bidalia izan bedi hoiien ministro probintzialengana, eta hoiiek bakarrik, eta ez beste inork, izan bezate Fraideak hartzeko eskubide. 2 Ministroek, berriz, arretaz iker bitzate, Fede katoliko eta Elizaren



Sakramentuen gainean haiei galdetuz. 3 Eta gauza guzti hoiiek sinesten baldin badituzte, eta zintzoki aitortu eta azkeneraino gorde nahi baldin badituzte; 4 eta emazterik ez badute, eta izatez gero, emazteak komenturen

batean sartuak baldin badira, edo baimena eman baldin badiete eliz barrutiko Apezpikuaren oniritziaz, garbitasunezko botoa egin ondoren, eta susmo txarrik ez izateko adinekoak badira emazteak, 5 orduan Ebanjelio santuko hitz hura esan biezaiete¹: Dihoazela, alegia, eta beren ondasun denak saldu eta banatzeko ahaleginak egin ditzatela; 6 baina hori egiterik ez balukete, aski izan bedi borondate ona. 7 Eta begira bezate fraideek, eta beren ministroek, ez daitezela haien ondasunen gutziatsu izan, baina askatasun osoz egin dezatela beren gauzekin Jainkoak gogora ematen dien bezala. 8 Kontseju eske etor badaitez, ordea, ministroek izan bezate aukera Jainko-zale diren batzuegana bidaltzeko, eta hioen kontsejuaren arabera parti bitez ondasunok behartsuen artean. 9 Gero eman biezazkiete probantza-



denborako oialak: hau da, bi tunika txano gabekoak, eta gerriko soka, eta galtzak, eta sokarainoko kaparoia, 10 inoiz ministroei berei Jainkoaren arabera beste zerbait irudituko ez balitzaie behintzat. 11 Probantza urtea bukatutakoan, obedientzian hartuak izan bitez, bizitza hau eta erregla beti gordeitzeko hitza emanik; 12 eta Ordena honetatik irtetea inondik eta inolaz ere ez zaie zilegi izango, Aita Santuak agindu bezalaxe, 13 zeren Ebanjelio santuak esaten baitu: *Goldean eskua ezarri eta atzekaldera begiratzan duena ez da zeruko erresumarako gai*².

14 Eta obedientzia hitz eman dutenek izan bezate tunika bakarra txano eta guzti, eta nahi dutenek eduki dezakete beste bat, txano gabekoa. 15 Eta premiatan direnek erabil ditzakete oinetakoak. 16 Eta Anaia guztiak

1. Ikus Mt 19, 21.

2. Lc 9, 62

soineko arruntekin jantz bitez: eta zaku-txatal eta beste adabakiekin adabatzeko aukera izan bezate Jainkoaren bedeinkazioaz: 17 baina arren eta arren eskatzen diet ez dezatela inor ere meziprezia, eta ez juzgo txarrik egin jazkera leun eta zurigorriez dabiltzan gizonengatik, edo jan-edari finak hartzen dituztenengatik; baina areago juzga eta meziprezia beza bakoitzak bere burua.

HIRUGARREN KAPITULUA

OTOITZ-OFIZIOAZ ETA BARAUAZ. ETA ANAIEK NOLA IBILI BEHAR DUTEN MUNDUAN ZEHAR

1 Klerigoek egin bezate otoitz-ofizioa Erromako Eli-za Santuaren gisan, Salterioaz landara, 2 eta horretarako zilegi izan bekie Brebiarioak edukitzea. 3 Laikoek, berriz, esan bezate hogei eta lau Gure-Aita Maitinen orde; bost, Laudorioen orde; Prima, Tertzia, Sexta eta Nona, hoietako bakoitzagatik, zazpi; Bezperengatik hamabi; Konpleten orde, zazpi; 4 eta hildakoen alde egin bezate otoitz. 5 Eta egin bezate barau Santu Guztien jaian hasi eta Jaunaren jaiotz egunera bitartean. 6 Erregeen egunean hasi eta hurrengo berrogei egunetako garizuma —Jaunak bere barau santuaz santutu zuena³—, beren borondatez gordetzen dutenak, bedein-
katuak izan bitez Jaunaren aldetik, eta nahi ez dutenak, ez daitezela behartuak izan; 7 Jaunaren Bizkunderainoko beste hartan, orde, barau egin bezate. 8 Eta beste garaietan ez dezatela barau egiteko obligaziorik izan, ostiralez izan ezik. 9 Eta makalaldi ageria denean, ez bitez anaiak gorputzeko baraua egitera behartuak izan.

10 Arren eta arren eskatzen eta erregutzen diet neure Fraideei Jesukristo Jaunagan, munduan zehar dihoaztenean, ez daitezela eztabaidatan ari, eta *hitzekin ez dezatela liskarrik egin*⁴, eta ez beste inor juzga ere;

3. Ikus Mt 4, 2.

4. Ikus 2 Tim 2, 14; Tit 3, 2.

11 bainan izan bitez gozoak, baketsuak eta moduzkoak, otzan eta apalak, eraz denekin behar den bezala hitz eginez. 12 Eta ez bitez ibil zaldiz, premia ageri batek hortaratzen ez baditu. 13 *Edozein etxetan sartzen dirrelarik, hauxe esan bezate: Bakea etxe honi*⁵. 14 Eta Ebanjelio santuak dionez, zilegi izan bekie *aurkezten zaizkien* janari guztietarik *jatea*⁶.

LAUGARREN KAPITULUA

ANAIK EZ DEZATELA DIRURIK HAR

1 Garrazki agintzen diet Anaia den-denei ez dezate la inolaz eta inondik ere diru edo txanponik har, ez berenez eta ez beste inoren bitartez ere; 2 erien premiak erremediatzeko, ordea, eta beste Fraideak jazteko, adiskide espiritualen bidez, ministroek xoilki eta kustodioek har bezate kontu handia, herri, eguraldi eta lurraldeetako hotzaren arabera, eta behar-izanak eskatzen duen neurrian. 3 Baina honako hau beti zutik gelditzen dela, halere: esan bezala, diru edo txanponik hartu gabe.

BOSKARREN KAPITULUA

LAN EGITEKO ERAZ

1 Jaunak emanik, lan egiteko grazia duten Anaiak, egin bezate lan zintzo eta debotki, modu honetara, ordea: 2 arimaren galgarri den alferkeria uxatuz, eta otoitz santuaren eta debozioaren espirtua ez itotzeko arduraz, zeren horri behar baitiote lagundu gainerako gauza guztiek. 3-4 Lan-saritzat, berriz, diru edo txanponik ez, baina gorputzari beharrezko zaizkionak jaso ditzakete, bai berentzat eta bai beren Anaientzat ere; 5 eta hori humilkiro, Jainkoaren zerbitzariei eta pobretasun guztiz santuaren jarraitzaileei dagokienez.

5. Lc 10, 5.

6. Lc 10, 8.

SEIGARREN KAPITULUA

ANAIK EZ DAITEZELA EZEREN JABE IZAN, ETA LIMOSNA ESKATZEAZ, ETA GAIXORIK DAUDEN FRAIDEEZ

1 Anaiak ez bezate gauzarik berentzat har: ez etxe, ez lur, ez beste ezer; ² eta *erromes eta bidazti antzo*⁷ lurrian, Jaunari pobretasunean zerbitzatuz, ³ bihoaz limosna eske beldurrik gabe; eta ez bitez lotsa, Jauna ere guregatik pobre egin zenez gero mundu honetan. ⁴ Hau da *zeharo pobre izatearen*⁸ bikaintasuna. Honek egin zaituzte, ene Anaia guztiz laztanak, behartsuak gauzez, baina bertuteetan aberats. ⁵ Hau izan bedi zuen *senipartea, bizidunen herrira*⁹ daramana; ⁶ eta honi, Anaia maite-maiteak, oso-osorik atxikiak izanik, Jesu-kristo gure Jaunaren izenean, ez dezazuela sekulakotz beste ezer zerupean eduki nahi.



⁷ Eta Fraideak, nunahi daudelarik, elkar topo egiten dutenean, etxetiar bezala ager bitez bata besteakin. ⁸ Eta beldurrik gabe azal biezazkiote elkarri beren estuasunak. Izan ere, *amak haragizko bere semea hazi eta maite baldin badu*¹⁰, zenbatenaz gehiago bakoitzak ez ote du maite eta hazi beharko bere anaia espiritualak? ⁹ Eta

7. Ikus Ps 38, 13; 1 Pt 2, 11.
8. 2 Co 8, 2.

9. Ikus Ps 141, 7.
10. 1 Th 2, 7; 251, 26.

beren arteko bat gaixo baledi, beste Fraideak beude hari zerbitzatzera behartuak, berei egitea nahiko luketen bezalaxe.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

FRAIDE BEKATARIEI EZARRI BEHAR ZAIEN PENITENTZIAZ

1 Fraideren arteko batzuek, etsaiak zirikaturik, bekatu mortala egin balezate —ministro probintzialengana jotzea erabakirik dagoen bekaturen bat, alegia—, behartuak bitez halako Fraideak hoiengana joatera, lehen-bai-lehen, luzapenik gabe. 2 Ministro hoiek, berriz, apaiz baldin badira, errukiz penitentzia ezar biezaiete. Apaiz ez baldin badira, ezar araz biezaiete Ordenako beste apaiz batzuen bidez, berei Jainkoaren arabera ondoena irudituko zaien moduan; 3 eta begira inoren bekatuagatik ez daitezela haserre edo bere onetik atera. Izan ere haserreak eta asaldurak karitatea galerazi ohi du, bai norberagan eta bai besteengan ere.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

ANAI DI HONETAKO MINISTRO JENERALAREN HAUTATZEAZ, ETA MENDEKOSTEKO KAPITULUAZ

1 Fraide guztiak behartuak izan bitez Ordena honetako Fraide bat Anaidi osoaren ministro jeneral eta zerbitzaritzat hartzera, eta obligatuak beude hertsiki berari obeditzera. 2 Hura hil dadinean, ministro probintzialek eta kustodioek egin bezate ondorengoaren hautatzea Mendekosteko kapituluan. Ministro probintzial guztiak kapitulu horretan —ministro jeneralak erabakitako tokian— beti elkarrekin biltzera behaturik daude: 3 eta hori hiru urtetik hiru urtera, nahiz bakanago nahiz sarriago, ministro hark berak agindu bezalaxe. 4 Eta inoiz ministro eta kustodioen multzoari azalduko baltzaio ministro hura ez dela gai Fraideen zerbitzurako,

eta ororen onerako, behartuak egon bitez —hautatzeko eskubidea duten Fraide hoiek—, Jaunaren izenean beste bat kustodio bezala hautatzera.

5 Mendekosteko kapitulu ondoan, ministroek eta kustodioek, nahi baldin badute eta on dela iruditzen bazaie, urte berean bil ditzakete Fraideak beren kustodietan, kapitulua eginez.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

PREDIKARIEZ

1 Fraideek ez bezate predika inongo Apezpikuren eliz-barrutian, hark galerazi baldin badie; 2 eta inor ez dadila inolaz ere herriari predikatzera ausart, baldin Anaiddi honetako ministro jeneralak miatu eta onetsi ez baldin badu, eta honek beronek predikatzeko zeregina hari eman ez badio. 3 Arren eta arren eskatzen diet neure Fraideei predikuetako beren *esanak* izan daitezela *zuhur eta garbiak*¹¹, jendearen onerako eta deboziorako, 4 adierazten dizkietela bekatuak eta bertuteak, ifernua eta zerua, eta hori guztiori prediku laburretan, zeren *hitz motxa egin baitzuen Jaunak lurgainea*¹².

HAMARGARREN KAPITULUA

FRAIDEEI EGIN BEHAR ZAIZKIEN ZUZENKETA ETA ABISUEN GAINEAN

1 Beste Anaïen ministro eta zerbitzari diren Anaiek egin biezazkiete ikustaldiak eta abisuak, apalkiro eta karitatez zuzen bitzate, haien arimaren eta gure Erreglaren aurka den gauzarik haiei agindu gabe. 2 Menpeko diren Fraideek, berriz, gogora bezate Jainkoagatik beren

11. Ikus Ps 11, 6; Ps 17, 30.

12. Rom 9, 28; ikus Js 10, 23.

borondateak ukatu zituztela. 3 Beraz, gogorki agintzen diet beren ministroei obeditzeko, Jaunari eskeini zizkioten gauza denetan, baldin agindutakoak arimaren kontra eta gure Erreglaren kontra ez badira. 4 Eta Fraideek, nunahi egonik ere, Erregla espiritualki ezin gorde dutela ohar eta kontura balitez, beren ministroetara jotzeko eginbidea eta eskubidea izan bezate. 5 Ministroek, berriz, egin biezaiete harrera on eta begitsua, eta eman biezaiete aski zabaltasun nagusiek beren morroiekin bezalaxe esan eta egin ahal izateko. 6 Izan ere, halaxe behar da: Nagusiak Fraide guztien morroi izatea.

7 Arren eta arren eskatzen dut Jesukristo Jaunagan, *begira daitezela* Fraideak inongo eta inolazko harrokeriatik, handiuste, ondamu, *gutizia*¹³, mundu honetako gauzen kezka eta gehiegizko arduretarik, gaizki esate eta marmarrean aritzetik; 8 eta eskolarik ez dakitenek, ez bezate eskola ikastearen kezkarik izan; 9 baina jar bezate kontu guztia Jaunaren Espiritua eta haren egintza santua eskuratzen, Hari beti bihotz garbi batez otoitz egiten, humiltasuna irixten, eta persekuzio eta gaixoaldian pazientzia izaten; 10 eta guri gaitz, haserre eta errita egin dигutenak maitatzen, Jaunak esaten duen bezala: *Maita zeuen etsaiak, eta erregu, persegitzen eta beztutzen zaituzteenen alde*¹⁴. 11 *Zorionekoak zuzentasunagatik persegituak direnak, zeren zeruko erresuma hoiena izango baita*¹⁵. 12 *Azkeneraino irauten duena, huraxe salbatuko da*¹⁶.

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

FRAIDEAK EZ DAITEZELA MOJA-KOMENTUETAN SAR

1 Garrazki agintzen diet Fraide guztiei ez ditzatela izan susmo txarreko tratu edo har-emanik emakumee-kin, eta ez daitezela moja komentuetan sar, hortarako Apostoluen Aulkitik baimena eman zaienak salbu. 2 Eta

13. Ikus Lc 12, 15.

14. Mt 5, 44.

15. Mt 5, 10.

16. Mt 10, 22.


ez bitez gizon nahiz emakumeen aitabitxi izan, hortik Fraideen artean edo Fraideengandik zer-esana sor ez dadin.

HAMABIGARREN KAPITULUA

MAIRU-HERRIRA ETA BESTE FEDEGABEENGANA DIHOAZTENEN GAINEAN

1 Jainkoak argi emanik, mairu-artera nahiz beste fedegabeetara joan nahi luketen Fraideek, eska bie-
zaiete baimena beren ministro pro-
bintzialei; 2 ministroek berriz, ez
bezate joateko baimenik eman,
bidaltzeko gai direla ikusten di-
tuzten haiei baizik.

3 Gainera, obedientzi azpian
agintzen diet ministroei eska die-
zaiotela Jaun Aita Santuari Erro-
mako Elizaren Kardenaletarik
bat, Anaidi honen Gobernari,
Zaindari eta Zuzentzaile izateko. 4 Eta hori, asmo hone-
kintxe, alegia: behin betiko hitz eman genituen pcbreta-
suna, humiltasuna eta Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelik
santua, Erromako Eliza santu honen beronen menpean
eta oinetan beti egonik, eta *fede* katolikoan *sendo*
*egonik*¹⁷, gorde ditzagun.



—oOo—

Inori ere ez dakiola zilegi izan guk ontzat emandako
orri hau haustea edo berari ausarkeriaz kontra egitea.
Eta baldin baten batek horrelako atrebentziarik izango
balu, jakin beza halakoak Jainko guztiz Ahaltsuaren
eta haren Apostolu Pedro eta Paulo dohatsuen haserreaz
izango duela bere gain.

Letran-en emana, Azaroaren hogei eta bederatzian,
gure Aita Santu goaren zortzigarren urtean.

17. Col 1, 23.

BAKARTEGIETARAKO EGIN ZUEN ERREGLA

Frantzisko dohatsuak maite zituen bakar lekuak. Apostoladutza utzi ta sarritan erretira ohi zen Rieti ondoko Greccio-ra, Kortona hurreko Celle-ra, Subasio mendiko Carceri-ra, Alverna-ra... Harkaitz-pe batean edo basoan jaso arazten zuen txabolatxoa ta hantxe barneratzen zen bake osoz Jaungoikoaren ikuskizunean.

Bizimodu bera opa die santuak bere fraileei ere: batzuk gauzetaz arduratzen diren bitartean —amatzakoa egin, dio berak—, besteak dena alde batera utzi ta Jainkoa bakarrik bilatuko dute.

Bakartegi-zaleak ordenaren haseratik izan ziren nunbait fraileen artean. Ez dakigu zihur noiz egin zuen Frantziskok Erregratxo hau. 1218-rako idatzirik zegoen behintzat. Laburra letraz, espirituz gainezka dator.

1 Bakartadean erlijiozki bizi nahi dutenak izan bitez hiru, edo gehienez lau Fraide. Hoietarik bi amak izango dira, eta eduki bitzate bi seme, edo guttinaz bat. 2 Amak diren bi hauek Martaren bizitza egin bezate, eta bi semeek egin bezate Mariarena, eta eduki bezate klaustro bakar bat, zeinetan bakoitzak izango baitu bere gela, otoitz eta lo egiteko. 3 Erreza bitzate betiere Konpletak egun argiz eguzkia sartu ondoan, eta saia bitez isiltasuna gordetzen. Erreza bitzate beren orduak, eta jaiki bitez Maitinetara; eta *bila bezate lehenik Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna*¹. 4 Dagokion orduan erreza bezate Prima, eta Tertzia ondoan isiltasuna hauts dezakete, eta zilegi izango zaie hitz egitea eta beren amengana joatea, eta nahiko luketenean haiei limosna eskatzea Jainko Jaunaren amorioagatik, pobre gaixoen antzera. Eta gero erreza bitzate, bere garaian, baita Sexta, Nona eta Bezperak ere. 5 Eta berak bizi diren

1. Lc 12, 31.

klaustroan ez dezatela inor sartzen utz, eta ez bezate han bertan jan. ⁶ Eta amak diren Fraide hoiek ahaleginak egin bitzate pertsona orotarik apartaturik egoteko, eta beren ministroaren aginduz gorde bitzate beren semeak pertsona orotarik, inork ere hoiekin hitz egin ez dezakeen moduan. Eta seme hauek ez bezate inorekin hitz egin, beren amekin, eta beren ministro eta kustodioarekin izan ezik —hauek, Jainkoaren bedeinkazioaz bisitatzera joan dakienean—. ⁷ Semeek, ordea, noizean behin har bezate amen ofizioa, txandaka, on eta egoki irudituko zaien denborarako. Eta saia bitez gauza guzti hauek txintxo eta arduraz betetzen.



GURE AITA SAN FRANTZISKOREN TESTAMENTUA

Portziunkulan idatzi arazi zuen Frantziskok bere azken borondatea, heriotzara eramango zuen gaixotasunez zegoelarik. 1226-garren urtea zen.

Hiru urte aurrez emana zien fraileei Aita Santuak onetsitako Erregla. Ikusten zuen, ordea, iadanik gauza bat zela Erreglak zioena, haren zentzu garbia, eta nahiko bestea zenbait ministrok ordenari har erazi nahi zioten bidea: apostoladutza jartzaren baitzuten praktikan otoitz eta apaltasun bizitzaren aurretik, liburu lanetarako gogo biziagia agertzen zen; gero ta gehiago baztertzen esku-lana, eginkizun umilak eta lepradunen zaintzea; ordenak beretzat hartzen zituen elizak, pribilegioak iristen ziren Erromatik...

Hil-ohean hasera hartako ideal goitarra dizdiratzen zaio buru-bihotzetan Frantziskori. Bide argitsu horixe erakutsi nahi die berriro ere bere anaiei, helduko ez badira ere, ahalegin osoz helburu eder hortaraxe jo dezaten.

Berehalaxe ikusten denez, esaera Frantziskoren ezpainei zeriena bera da, trabarik gabe isuria, orrazkera gutxikoa agian, baina bihotz beroz, grina santuz eta edertasunez oratua.

Garai bateko "espiritualak" lege balio osoa ematen zioten Testamentu honi eta Erreglak bezalaxe, kontzientzian behartzen zuela baieztan zuten.



1 Neri, Anai Frantzisko honi, era honetara eman zidan Jaunak penitentzia egiten hastea: Beka-tutan nengoelarik, samina oso egiten zitzaidan legendunak ikus-tea: 2 Jaunak, ordea, hoi en artera eram an ninduen, eta errukia egin nien. 3 Eta haiengandik alde egi-terakoan, samina iruditzen zitzai-dana, gozo bihurtu zitzaidan, bai

arima eta bai gorputzarentzat ere. Eta pixka bat ge-roago, mundua utzi nuen.

4 Eta Jaunak hain fede handia eman zidan elizentzat, non xaloki adoratu, eta hauxe esan ohi nuen: 5 Adoratz-en zaitugu, Jesukristo Jauna, [hemen], eta mundu guz-tian diren zeure eliza denetan, eta bedeinkatzen zaitugu, zcure gurutze santuaren bidez mundua erosi zenuelako.

6 Gainera, Erromako Eliza santuaren arabera bizi diren apaizen alderakotzat, beren apaizgoagatik, hain fede handia eman zidan eta eman ohi dit Jaunak, non, persekuzioa egingo balitzait, hoiengana jo nahi baitut. 7 Eta Salomon-ek hainbat jakinduria baneza, eta mundu honetako apaiz txiroak, berak bizi diren parroketan aurki banitza, haien borondatearen kontra ez dut pre-dikatu nahi. 8 Eta hoiei eta beste denei nahi diet lotsa gorde, eta nahi ditut maitatu eta ohoratu, nere nagusiak bezala. 9 Eta hoiengan ez dut bekaturik ikusi nahi, zeren Jainkoaren Semea nabaitzen baitut beroiengan, eta nere nagusiak baitira. 10 Eta hori denori arrazoi honengatik egiten dut, alegia: Ez dudalako mundu honetan Jainkoaren Seme gorenaren gauzarik korpo-ralki ikusten, apaiz hoiek berek hartu eta berek bakarrik besteei banatzen dizkieten haren gorputz santu eta odolaz kanpora. 11 Eta misterio santu hauek nahi dut gauza guztien gainetik ohoratuak eta beneratuak, eta toki preziatuetan ezarriak izatea.

12 Eta haren izen eta hitz guztiz santuak egoki ez diren tokietan aurki banitza, nahi ditut bildu, eta erre-gutzen dut bil eta toki egokietan jartzea.

13 Eta teologo guztiak, eta Jainkoaren hitz guztiz santuak guri banatzen dizkigutenak, ohoratu eta bene-ratu behar ditugu, espiritua eta bizitza banatzen diz-kigutenez gero.

14 Eta Jaunak Anaiak eman zizkidanean, zer behar nuen egin, inork ere ez zidan adierazten: baina Jaun gorenak berak Ebanjelio santuaren arabera bizi behar

nuela azaldu zidan. 15 Eta hitz labur eta xaloetan idatz arazi nuen, eta jaun Aita Santuak ontzat eman zidan.

16 Eta bizikera hau hartzera zetoztenek, izan zeza-keten gauza oro, pobreei partitu ohi zieten. Eta pozik izaten ginen tunika bakarraz, barne eta kanpotik adabatu —hala nahi zutenak—, soka eta galtzekin, 17 eta beste ezer ez genuen eduki nahi.

18 Guk, klerigook, Ofizioa esaten genuen, beste klerigoek bezalaxe; laikoek, berriz, Gure-Aita esaten zuten. Eta gustora oso egoten ginen elizetan, 19 eta ezjakinak ginen, eta denen menpeko.

Eta nik neure eskuez lan egiten nuen, eta egin nahi dut; 20 eta beste Anaia guztiak errime nahi dut lan on batetan saia daitezen; 21 eta ez dakitenek, ikas bezate, ez lan-saria jasotzeko gutziagatik, baizik eta ejemplo ona eman eta alferkeria haizatzeko.

22 Eta lan-saria emango ez baligute, jo dezagun Jaunaren mahaira, atez-ate limosna eskatuz.

23 Diosala hau adierazi zidan Jaunak, esateko: Jaunak bakea dizula.

24 Begira bezate Anaiek, ez elizarik, ez bizileku pobrerik, ez berentzat egiten den beste gauzarik, ez dezatela sekulan eta inolaz ere har, baldin Erreglan eskeinitako pobretasun santuari dagozkion bezalakoak ez badira; eta bizi bitez beti hoietan *bidazti eta erromesen antzera*¹.

25 Garrazki eta obedientzi azpian agintzen diet Fraide guztiei, nunahi egonik ere, ez daitezela ausart Erromako kurian letrarik eskatzera, ez berenez, ez beste inoren bitartez, ez elizaren alde, ez inongo tokiren alde, ez predikazioaren aitzakiaz, ez beren gorputzen persekuzioagatik; 26 baina tokiren batean hartuak ez badira, ihes egin bezate beste lurralde batera, han Jainkoaren bedeinkazioaz penitentzia egitera.

27 Eta alde guztiz nahi diot obeditu Anaidi honetako

1. 1 Pt 2, 11.

ministro jeneralari, eta hark eman nahiko didan Guardianari; 28 eta hainbesteraino egon nahi dut haren eskuetan, non, haren borondatearen kontra inora joaterik edo ezer egiterik izan ez dezadan, zeren nere nagusia baita.

29 Eta ezjakin eta gaixo naizenarren, hala ere beti eduki nahi dut klerigo bat, Ofizioa egin diezadan, Erreglan esaten den bezalaxe. 30 Eta beste Fraide guztiak ere oso behartuak egon bitez beren Guardianei obeditzera eta Ofizioa Erreglaren arabera egitera.

31 Eta aurki balitez Fraide batzuk Ofizioa Erreglaren arabera egiten ez dutenak, eta beste erataria aldatu nahi luketenak, edo katoliko ez direnak, Fraide guzti-guztiak, nunahi daudelarik, obedientzi azpian behartuak izan bitez, halakoren bat aurkitzen duten edozein tokitan, hura dagoen parajetik hurbilen dagoen kustodioari eramatera. 32 Eta kustodioa, obedientzi azpian, behartua bego halakoa hertsiki gordetzera, gatibu dagoen gizona gorde ohi den bezala, egunez eta gauez, bere eskuetarik ihes egin ez lezakeen moduan, bere ministroaren eskuetara eraman dezan artean. 33 Eta ministroa, obedientzi azpian, errime bego behartua, halakoa, egunez eta gauez gordeko duten Fraideekin —preso dagoen gizona bezala— Ostia-ko jaunaren aurrera aurkeztera, zeren hura baita Anaidi honen Jaun, Begiraile eta Zuzentzailea.

34 Eta Anaiek ez bezate esan: Hona hemen beste Erregla bat, zeren hau ez baita oroigarri bat besterik: aholku bat, exortu bat, eta nire testamentua, neuk, Anai Frantzisko zuen haurrak, zeuei, ene Anaia bedeinkatuoi, asmo honekintxe egiten dizuedana: Jaunari eskeini genion Erregla, katoliko aldetik hobekiago gorde dezaguntzat.

35 Eta ministro jenerala eta gainerako beste ministro eta kustodioak obedientzi azpian beharturik beude hitz hauetan ez erantsi eta ez kentzera. 36 Eta izkribu hau beti eduki bezate Erreglaren ondoan. 37 Eta egiten di-

tuzten kapitulu guztietan, Erregla irakurtzen dutenean, irakur bitzate hitz hauek ere.

38 Eta ene Fraide guzti-guztiori, nahiz klerigo nahiz laikoei, agintzen diet garrazki, obedientzi azpian, ez dezatela jar adigarririk ez Erreglan eta ez hitz hauetan ere, esanez: 39 Era honetara ulertu behar dira. Baina Jaunak niri, xaloki eta garbiki, bai Erregla eta bai hitz hauek, esatea eta idaztea eman zidan bezalaxe, zuek ere era berean, xaloki eta garbiki, adigarririk gabe, uler, eta Jaunaren egintza santua dela medio, azkene-raino gorde ditzazuten.

40 Eta gauza hauek gordetzen dituen, zeruan beteaz izan bedi zeruko Aita gorenaren bedeinkazioaz, eta lurrean bete bedi haren Seme maitearen bedeinkazioaz, Espiritu guztiz Santu kontsolatzailearekin batean, eta zeruko bertute guztiekin, eta santu guztiekin. 41 Eta nik, Anai Frantzisko, zuen haur eta morroia naizen honek, ahal dudan bezain beste, bedeinkazio santu hau baretik eta kanpotik sendotzen dizuet. Amen.



SENA-KO TESTAMENTUA

Sei hilabete hil aurretik egon zen Frantzisko Sena urian, ikusmena nola sendatuko. Hango fraileek, Aita maitearen eritasunengatik penaz beterik, oroigarri bat eskatu zioten santuak bihotzean zeramana gogoan har zezaten.

Orduan —liburu zaharrek diotenez— hots egin zion Frantziskok Pirato-ko anai Benedito-ri ta Testamentu hauxe eman zion idaztera.

Idazkera desberdinetan iritsi da gureganaino; ezin esan, bada, formaz santuarena denik. Ideiak, bai, ardatz-ardatzekoak dituzu Frantziskoren bizitzan: elkar maitasuna, pobretasuna, esaneko izatea.

1 Ipin i ezazu nola bedeinkatzen ditudan neure fraide guztiak, Ordenan direnak eta munduaren azkeneraino izango direnak... 2 Ahuleziaz eta gaisoaren oinazeagatik hitzegin ezin dudanez gero, laburki hiru hitz hauetan agertzen diet neure fraideei neure nahia, alegia: 3 ene oroitzapen, bedeinkazio eta ene testamentuaren seinaleztat beti elkar maita dezatela, 4 gure dama santa Pobretasuna beti maita eta gorde dezatela, 5 eta eliza ama santuaren nagusi eta klerigo guztiei leial eta azpiko egon daitezela.

KLARA DOHATSUARI EGINDAKO IDAZKIAK

Frantziskoren hurrengo bi idazki hauek Klara dohatsuaren Erreglatik (VI. kap.) jasota daude hitzez-hitz, handixe baiditugu ezagunak. Ez da gure egunotara hoi en esku-izkriburik heldu. Ezin dai-teke gaurkoz erabaki bakoitza idazki osoa den ala beste luzeago baten atal dugun.

Klarak gurasoen etxetik ihes egin eta San Da-mian-era bildu ondoren idatzi zuen Frantziskok harentzako bizimoldea, 1212-garren urtean edo apur bat geroxeago. Azken nahia, berriz, hil aurretxoan idatzi ziela dio Klarak berak. Pobretasunean ditu Frantziskok bihotz-begiak!

KLARA DOHATSUARI IDATZITAKO BIZIMOLDEA

1 Goi-inspirazioz Ebanjelio santuko perfezioaren ara-bera bizitzea hautatuz Errege handi eta zeruko Aitaren alaba egin eta Espiritu Santuari esposatu zatzaizkio-tenez gero, 2 nahi dut eta hitz ematen dut, bai neronen bidez eta bai neure fraideen bidez ere, beti zuen axola arduratsua eta kontu apartekoa izango dudala, neure Anaiena dudan bezalaxe.

SAN FRANTZISKOREN TESTAMENTUA SANTA KLARARENTZAT

1 Nik Frai Frantzisko ttipi honek nahi dut Jesu-kristo gure Jaun guztiz handiaren eta haren Ama guztiz santuaren bizitza eta pobretasuna segitu eta azkeneraino hartan iraun.

2 Eta erregutzen dizuet, ene andreak, eta bai kontseju ere ematen, beti bizitza eta pobretasun txit santu horretan bizi zaitezte. 3 Eta har zazue konturik handiena inoren irakaspenez edo kontsejuz ez zaitezten sekulan hartarik aparta, ezta gauzarik ttipienez ere.

3. ATALA

FRANTZISKO OTOITZEAN

GURE AITA-ren PARAFRASIA
ETA
JAUNAREN GORESPENAK

Bi zati bereiz ditzakegu hemen: Gure Aita-ren parafrasia edo adierazpena, ta "Santu, santu" hasten diren gorespenak.

Lehenengoari buruz Frantziskoren egiletza ukatu egin dute batzuek: sakonegia omen, ederregia bere esaeretan, hala-moduzko kultura zuen gure santuak egina izateko. Ikastun gehienak, ordea, Erdi Aroan autoretza nolakoa izan ohi zen gogoan eukiaz eta kodize zaar zenbaiti jarraiki, Frantziskorenatzat daukate.

Edozeinetara ere, parafraasi mamitsu ta bikain hau oso bere zuen santuak, eta hemengo gogai berak zabal ereinak ditu bere idazkietan. Frantziskotar gogokeraren iturria ez da besterik: Jainkoa bere Ontasun muga-gabea ikusia ta gozatua.

Gorespenei buruz ez dago eztabaidarik. Santuarenak dira zihur. Idazteuna, Eskritura Santua beti ere Frantziskoren otoitz-gairik maiteena.

Ama Sorazu-k —otoitz geldia hain gogozko zuen moja euskaldun harek— egunero ordu ta erdi eman ohi zuela dio bere bizitz liburuan San Frantziskoren gorespen hauek ausnartzen. Bi-hiru bertsoz nahikoa omen zituen, Hirutasun Jainko bakkarrari ta Jesus gizon eginari begira-begira, denbora zenik ere igerri gabe igarotzeko.

Asisko esku-idazkiak hontara ematen dio sarrera otoitz honi: "Hona hemen gure aita Frantzisko txit zoriontsuak eratu zituen gorespenak. Gau ta egun ordu guzietan eta Maria Birjina zoriontsuaren ofizio aurretik esaten zituen, honela hasiaz: Gure Aita guztiz santua, zeruetan zarena, eta abar, Haintza-rekin. Hurrengo Santu, santu eta abar gorespenak esan bitez".

GURE AITA-ren PARAFRASIA

1 GURE AITA guziz santua,
gure Sortzaile, Erosle,
Salbatzaile ta Poz-emailea.

2 ZERUETAN ZARENA,
aingeru ta santuengan,
ezagun zaitzaten argi eginaz,
zu baitzara, Jauna, argia;
maita zaitzaten su emanaz,
3 zu baitzara, Jauna, maitasuna;
haiengan biziaz eta zorionez beteaz,
zu baitzara, Jauna, onik gorengoena, betidanik ona;
zugandik dator on guzia,
ta zu gabe ez da inolako onik.



4 SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA:

Gero ta argiago dadila gugan zure ezagupena,
zure on-egiteen zabala nolakoa den ezagun dezagun,
nolakoa zure agintzarien luzeera,
zure handi-izatearen goitasuna,
zure epaien sakona¹.

5 ETOR BEDI ZURE ERREINUA:

Graziaren bidez zu izan zaitezela errege gugan
eta etor-arazi gaitzazula zure erreinura;

1. Ikus Eph 3, 18.

han trabarik gabea da zure ikustea,
oso-oso zukanako maitasuna,
zoriontsua zurekiko elkartasuna,
betirakoa zutaz gozatzea.

**6 EGIN BEDI ZURE NAHIA ZERUAN BEZALA
LURREAN ERE:**

Bihotz osoz maita zaitzagula
gogoa beti zukan edukiaz,
arima osoz
beti zu desiratuaz,
espiritu osoz
asmo guziak zukan zuzenduaz
eta gauza denetan zure ospea bilatuaz,
eta geure indar guziz
geure gorputz-arimetako ahalmen eta zentzu denak
zure maitasunaren zerbitzuan ez bestetan txautuaz.

7 Lagun-hurkoak geure burua bezala maita ditzagula,
egin-ahalean zure maitasunera erakarriaz,
besteen ondasunetaz geuretat bezala poztuaz,
gaitzetan erruki izanaz
eta inori inolako irainik ez eginaz.

8 EMAIGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA,
zure Seme maite, Jesukristo gure Jauna:
guri izan digun maitasuna,
eta gure onerako esan, egin eta eraman zituen guziak
gogoratu, ezagutu ta begirunez har ditzagun.

9 BARKATU GURE ZORRAK
zure erruki esan-ezinagatik,
Jesukristo zure Seme maite, gure Jaunak,
eraman zuen Nekaldiaren indarragatik,
Birjina Mariaren eta zure aukeratu guzien
irabazi ta eskariengatik.

**10 GUK ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN
DIEGUNEZ GERO.**
Eta erabat barkatzen ez duguna,

egizu zuk, Jauna, guztiz barka dezagun:
gure etsaiak zuregatik maita ditzagula,
eta zure aurrean haien alde bihotzez erregu dezagula;
ez dezaiogula inoren gaitzari gaizki erantzun
eta denei zugar on egiten saia gaitzezela.

11 TA EZ GU TENTALDIRA ERAMAN,
izkutukoa izan, nahiz agerikoa,
bat-batekoa, nahiz gogaikarria.

12 BAINA ATERA GAITZAZU GAITZETIK,
lehengo, oraingo ta gerokotik.

AMEN

bihotz-bihotzez eta geure indar guziz.

13 HAINZA AITARI eta abar.

JAUNAREN GORESPENAK

14 *Santu, santu, santua da Jainko Jaun guziahaltsua,
dena, zena eta etorriko dena*².

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

15 *Dina zara, Jainko gure Jaun hori,
gorespena, haintza ta ohorea ta bedeinkapena hartzeko*³.

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

16 *Hila izan den bildotsa dina da indarra ta Jainkota-
suna, jakituria, ahalmena, ohorea, haintza ta bedeinka-
pena hartzeko.*

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

17 Bedeinka dezagun Aita ta Semea, Espiritu Santua-
rekin.

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

18 *Bedeinka ezazute Jauna zuek, Jaunaren egintza gu-
ziok*⁵.

2. Apoc 4, 8.
3. Apoc 4, 11.

4. Apoc 5, 12.
5. Dan 3, 57.

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

19 *Gores ezazute Jainkoa haren serbitzari guztiok eta txiki ta haundi, Jainkoaren bildur zaretenok*⁶.

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

20 *Gora bezate hura, loriatsua bait da, zeruek eta lurrak eta zeruan, lur gainea eta lur-pean den sorkari orok, eta itsasoak eta hartan direnek*⁷.



— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

21 *Haintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.*

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

22 *Haseran zen bezala, orain eta beti gizaldien gizaldietan. Amen.*

— Gora ta ospa dezagun gizaldietan.

23 EGIN DEZAGUN OTOITZ

Jainko guzialtsu, txit santu, goi-goiko ta guziz gainekoa, onik gorengoena, on guzia, on osoa, su zara bakarrik on, zuri eman dezaizugula gorespen dena, haintza guztia, esker guztia, ohore guztia, bedeinkapen guztia, eta zureak aitor ditzagula ontasun denak. Amen.

6. Apoc 19, 5.

7. Apoc 5, 13.

JAINKOA GORESTEKO ESORTAZIOA

Frantziskok berak ohol batean idatzirik agiri omen ziren gorespen hauek "Ermitauaren lekua" zeritzaion hartan jasotako baselizatxoan.

Bibliako liburu berezietatik, salmutegitik gehienbat, eta liturjiatik hartutako esakunez osatua dago idazki hau. Guziari begiratzuz gero, orijinaltasun ukaezin bat ikusten da.

Ondo nabari da hemen ere santuak nola otoitz egin ohi zuen sorkariekin estu elkartuta. Kreaturen ordeztu eta haiengatik baino gehiago, badirudi haien bitartez eta haiekin batera goresten duela Jauna.

- 1 Izan zaitezte Jaunaren bildur eta eman hari ohorea.
- 2 Dina da Jauna gorespina ta ohorea hartzeko.
- 3 Jaunaren bildur zaretenok, goretsazue bera.
- 4 Agur, Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin.
- 5 Goretsazue bera, zeru ta lurak.
- 6 Goretsazue Jauna, hibai guztiok.
- 7 Bedeinka ezazue Jauna Jainkoaren semeok.
- 8 Hauxe da Jaunak egin duen eguna, alai ta poz gaitezen egun hontan. Alleluia, Alleluia, Alleluia! Israelen Errege!
- 9 Espiritu orok gora beza Jauna.
- 10 Goretsazue Jauna, ona baita; hau irakurtzen duzuen denok, bedeinka ezazue Jauna.
- 11 Sorkari guztiok, goretsazue Jauna.
- 12 Zeruko hegazti guztiok, goretsazue Jauna.
- 13 Haur guztiok, goretsazue Jauna.
- 14 Gazte ta neskatxok, goretsazue Jauna.
- 15 Dina da hila izan den bildotsa, gorespina, haintza ta ohorea hartzeko.
- 16 Bedeinkatua izan bedi Hirutasun eta Batasun atalgabea.
- 17 Mikel goiangerua, babes gaitzazu gudaldian.

SAN DAMIANGO GURUTZEAREN AURREAN OTOITZA

*Frantziskoren konbertsio haserakoa nunbait.
"Espirituak eraginda San Damiano elizan sartu
zelarik, belaunikatu zen otoitz gartsuz gurutzearen
aurrean. Eta berebiziko graziek ikuturik, sartu zen
haren oso bestelako eginda atera zen" (2 C 10).*


*Gurutze pintatu hartatik, mirariz, behin eta
berriro erantzungo zion Kristok gaztearen eska-
riari: "Frantzisko, berri ezazu dena erortzen ikus-
ten duzun nire etxea".*

1 Jainko goren eta aintzaz bete hori, atoz nire bi-
hotzeko ilunbeak argitzera;

eman ezaidazu fede zuzena, itxaropen sendoa eta
goimaitasun guztiz bikaina;

eman ezaidazu Jainko-gauzen zentzua eta zu zeu
ezagutzea, Jauna;

2 okerbideratuko ez nauen zure borondate santua
bete ahal izan dezadan. Amen.



JAINKOARI GORESPENAK

LEON ANAIARI EMAN ZION PAPERA

*Idazki honen autografoa Asisko konbentuan da-
go gorderik. Haseran anai Leonen ohar bat dakar
gotiko idazkera garbiz: "Zoriondun Maria, Jainkoa-
ren Ama, ta Mikel goiaingerua ohoratu nahirik,
Frantzisko dohatsuak berrogei eguneko garizuma
egin zuen bi urte hil aurretik Alverna mendian,
Birjina Mariaren Jasokundetik iraileko Mikel do-
nearen jaira arte. Eta Jaunak bere eskua zabaldu
zuen haren gain: Serafina ikusi ta berari entzun
ondoren, Kristoren zauriak bere gorputzean hartuaz
gero, orri honen atzekaldeko Gorespenak asmatu
zituen eta bere eskuz idatzi, Jaunak egin zion
mesede haundiagatik eskerrak ematearren".*

*Eskerrak emateko, noski, ta Celanok dioenez
(2 C 49), beste zerbaitetarako ere bai: espirituko
tentaldi latz batek kezkatzen zuen santuaren lagun
bat. Frai Leon bera hain zuzen ere. Eta hura men-
deratu edo behintzat arindu nahian, Frantziskoren
paper kontsolagarri baten atzetik ibili zen eta
hauxe iritxi. Tentaldiak bertantxe ihes egin omen
zion.*

*Auxe duzu Asistarraren idazkirik goitarreneta-
koa, hitzez aukeratua, herri kutsukoa eraz, abestia
berezko duena. Jaungoikoa haundi agertzen zaio
"poverello" ari, Ontasun eta Erruki azkengabez
gainezka.*

*Geldiro ausnartzen duenari, zauriak hartu-berri
zituen serafin sutsuaren bihotz-muina ukitzen due-
la iruditzen zaio.*

1 Zu bakarrik zara santu, Jainko Jauna,
harrigarriak egiten dituzun hori!

2 Zu zara indartsua,
Zu zara haundia,
Zu zara goi-goikoa,
Zu zara errege guziahaltsua,
Zu zara, Aita santu hori,
zeru-lurretako Erregea.

3 Zu zara hiru ta bat,
Jainko Jauna, on guzia.
Zu zara ona, on guzia, onik gorengoena,
Jainko Jaun, bizi ta egiazko hori.

4 Zu zara karidadea, maitasuna.
Zu zara jakituria,
Zu zara humiltasuna,
Zu zara pazientzia,
Zu zara segurantzia,
Zu zara atsedena,
Zu zara poza ta alaitasuna,
Zu zara zuzentasuna ta neurria,
Zu zara asetzen gaituen aberastasuna.



5 Zu zara edertasuna,
Zu zara otzantasuna,
Zu zara gure babestzailea
Zu zara gure zaindari ta begiratzailea,
Zu zara indarra,
Zu zara hotz-giro atsegina.

6 Zu zara gure itxaropena,
Zu zara gure fedea,
Zu zara gure gozotasun haundia,
Zu zara gure betiko bizia,
Jaun haundi ta harrigarri,
Jainko guziahaltzu,
Salbatzaile errukior hori.

Oharra: 70. eta 106. orrialdeetan daduzkazu beste otoitz bikain batzuk.

ANAI LEONI BEDEINKAPENA

Ohar hau dakar pergaminoak: "Frantzisko dohatsuak bere eskuz idatzi zuen bedeinkapen hau niretzat, anai Leonentzat.

Bere eskuz egin zituen T zinua ta burua ere".

Tau zinua —gurutzearen irudia— sarritan erabili ohi zuen Frantziskok, eskutitzetan izenpe bakar bezala, geletako hormen apaingarri, sendabidetzat... Tauga konjuru erara azaltzen da Bibliatik hartutako bedeinkapen hontan, Frai Leonen buru gainean dirudienez, honen tentaldiak uxatzeko.



- 1 *Jaunak bedeinka ta gorde zaitzala;
bere aurpegia erakutsi
eta erruki dakizula!*
- 2 *Bihur dezala zuregana bere begitarte
eta bakea eman dezaizula!*¹
- 3 *Jaunak bedeinka zaitzala, anai T Leon!*

1. Num 6, 24-26.

BIRTUTEEI AGURRA

Santuaren idazkirik orijinalenetakoa. Garai hartan gorte-giroa ta alegori-era ziren nagusituak literaturan. Horrela Frantziskok andre irudiz ikusten ditu onbide edo birtuteak.

Esku-idazkietan batek irakurburu hau ezartzen dio "Agur" honi: "Birjina Maria donea apaintzen zuten birtuteei buruz...". Ama Birjinari egindako "Agur"aren jarraipena dirudi.

Binaka agurtzen ditu Frantziskok hemen birtuteak.

JAKITURIA-SINPLETASUNA: "Sinpletasun santua, graziaren alaba, jakituriaren ahizpa, zuzentasunaren ama, halako arreta haundi batez iritxi nahi zuen santuak beregan eta maite zuen besteeengan arkitzea. Ez zuen baina edozein sinpletasun onartzen, bere Jainkoarekin pozez beterik beste zer denak gutxien dituen hura baizik..."

Aita txit santuak birtute hauxe nahi zuen anai eskolatuengan eta hermanengan, eta ez zeukan jakituriaren kontrakotzat, haren egiazko ahizpatzat baizik, jakintza baino iritxi-errazago hala ere behartsuentzat, eta bizitzan eskurago dagoena" (2 C 189).


POBRETASUNA-HUMILTASUNA: "Ardura bitez anaiak Jesukristo gure Jaunaren pobretasun eta humiltasunari jarraitzen, eta gogoan har bezate ez dugula mundu hontako beste gauzarik eduki behar, baizik eta, Apostoluak dionez, zer jan eta zer jantzi izanez gero, hauekin asebate egin behar dugula. Eta poztu behar dute jende arrunt eta meezpeziatu, pobre eta arlote, gaixo eta legenak jotako eta bideetako eskaleekin aurkitzen direnean" (1 Reg 9, 1-3).

KARIDADEA-OBEDIENTZIA: "Esanera dagoenak ez du bere nagusiarengan gizon hutsa ikusi behar, baizik-eta norenganako maitasunagatik esaneko egin zen, huraxe ikusi behar du. Zenbat eta agintaria berez ziztrinago izan, hainbat eta atseginago baitzaio Jainkoari obeditzen duenaren menpetasuna" (LM 6, 4).

BIRTUTEEI AGURRA

- 1 Agur, erregina Jakituria, Jaunak gorde zaitzala
zure ahizpa Sinpletasun garbi santuarekin.
- 2 Andre Pobretasun santua, Jaunak gorde zaitzala
zure ahizpa Humiltasun santuarekin.
- 3 Andre Karidade santua, Jaunak gorde zaitzala
zure ahizpa Obedientzia santuarekin.
- 4 Birtute txit santu guztiok, Jaunak gorde zaitzatela,
harengandik irten eta baitzatozte.
- 5 Mundu osoan ez dago ezta gizon bat ere,
aurrez hiltzen ez baldin bada,
zuetako bat eduki dezakeenik.
- 6 Bat eduki ta besteak iraintzen ez dituenak,
denak daduzka;
- 7 Eta bat iraintzen duenak, ez daduka bat ere,
eta denak iraintzen ditu.
- 8 Haietako bakoitzak lotsa-arazten ditu
grina txarrak eta bekatuak.
- 9 Jakituria santuak
Satan eta haren gaiztakeria denak lotsarazten ditu.
- 10 Sinpletasun garbi santuak, mundu honetako jakituria
dena eta haragiaren jakituria lotsarazten du.
- 11 Pobretasun santuak, gizaldi honen diru-gosea
eta zekenkeria ta ardurak lotsarazten ditu.
- 12 Humiltasun santuak, harrokeria ta mundu honetako
gizon denak eta munduan dagozen gauza guztiak
lotsarazten ditu.
- 13 Karidade santuak, deabru ta haragiaren tentaldi denak
eta haragiaren bildur denak lotsarazten ditu.

- 14 Obedientzia santuak,
gorputzaren eta haragiaren nahi denak
lotsarazten ditu.
- 15 Eta hilduratua daduka bere gorputza,
espirituaren esaneko eta bere anaiaren esaneko
izan dadin:
- 16 Gizona mundu honetako gizon denen menpean
jartzen du,
- 17 eta ez gizonen menpean bakarrik,
abere ta pizti guztien menpean ere bai,
- 18 haren gain nahi duten guztia egin dezaten,
goitik Jaunak uzten dien adina.



AMA BIRJINARI AGURRA

Hona zer dion Celanok Frantziskoren Mariagako maitasunaz: "Esan-eziñezko maitasuna zion Jesusen Amari, berak eman baitzigun anaiatzat haunditasunaren Jauna. Gorespen bereziak asma-tzen zizkion, eskariak zuzentzen, zaletasuna es-keintzen; ezingo luke mingainak esan zenbat aldiz egiten zuen eta nolako bihotz beroz. Gehien pozten gaituena, ordea: bera egin zuen Ordena guztiaren zaindari eta haren hegapean jarri zituen uztera zihoan semeak, azkenera arte gorde ta babes zitzan. Ea, behartsuen bitartekoa, bete ezazu gure gain zure zaindaritza, Aitak izendatua daukan egu-nera arte" (2 C 198).

Argitasunak duen ederrez azaltzen du Frantziskok "Agur" hontan Mariaren Jainko-amatasuna. Garbi ikusten da bertan santuak liturgian zuela bere otoutz iturri oparoa.

Baliteke "Agur" hau birtuteenaren lehenengo atala izatea. Jarraipen egokia du behintzat beste "Agur" horretan.

- 1 Agur, Andre santua, Erregina txit santua,
Maria, Jainkoaren Ama,
beti Birjina zarena,
- 2 Aita guziz santuak zerutik aukeratua,
bere Seme maite txit santuarekin
eta Espiritu Paraklitoarekin sagaratu zintuena:
- 3 Zuregan egon da eta dago
grazi betetasun guztia eta on dena.
- 4 Agur, Jainkoaren Jau-
regia!
Agur, Jainkoaren
Etxola!
Agur, Jainkoaren
Etxea!
- 5 Agur, Jainkoaren Jan-
tzia!
Agur, Jainkoaren
Mirabea!
Agur, Jainkoaren
Ama!
- 6 Eta agur zuek, birtute
santu guztiok,
Espiritu Santuaren
graziaz eta argi-egitez,
- 7 fededunen bihotzetan isuriak zaretenok,
sinesgabe izatetik Jainkoagan sinestun egin
gaitzazuten.



FRAI BERNARDORI BEDEINKAPENA

Nahiko bariantez ageri da bedeinkapen honen testoa. Bestek idatzita jarria da gainera. Esanahian, ez dago zalantzarik, San Frantziskorena da.

Heriotza aurreko astean nunbait, jateko goxoa prestatu zioten Frantziskori. Orduan berak esan zuen: "Janari hau frai Bernardorentzat da ona".

Deitu arazi zuen bere lehenengo laguna. Frai Bernardo etorri zen eta Frantzisko zetzan ohe ondoan eseri zenean, eskari hauxe egin zion: "Ene Aita, bihotz bihotzez eskatzen dizut bedeinka naza-zula eta eman diezaidazula zure aita-maitasunaren probaren bat, horrela Jainkoak berak eta beste fraile denek gehiago maite izango nautelakoan nago ta".


Aita Frantziskok, itsu baitzegoen, frai Gil-engana luzatu zuen eskuia. "Hau ez da frai Bernardoren burua", konturatu zen. Hurreragotu zitzaion orduan Frai Bernardo, eta eskua honen buru gainean ezarririk, bedeinkatu zuen bere lagun zaharra, anaia bati esaten ziolarik:

¹ Idatz ezazu esaten dizudan bezala: ² Jaunak lehen-bizi eman zidan anaia frai Bernardo izan zen, eta beronek hasi zuen aurrenik eta txit bikain bete Ebanjelio santuaren onbidea, bere ondasun guztiak behar-tsuei banatuaz; ³ horregatik eta beste alde on askorengatik, behartua nago erlijio guztiko beste edozein anaia baino gehiago berau maitatzea. ⁴ Nahi dut, beraz, eta agintzen dut, ahal dudan bezainbat, ministro jeneralak edonor delarik maite dezala berau eta ohora neroni bezalaxe, ⁵ eta beste ministro probintzialek eta erlijio guztiko anaiek ere neure lekuan eduki dezatela.

KLARAREN ALABEI BERTSOTAN EGIN ZIEN TESTAMENTUA

“Frantzisko dohatsuak anai Eguzkiaren eresia egin ondoren, beste abesti batzuk ere eratu zituen, andre behartsuak —klaratarrak— kontsolatzeko ta onbidean aurreratzeko. Bazekien oso ilun zeudela bere gaisotasunagatik. Eta ezin baitzituen berak bisitatu, hitz hauek bidali zizkien bere lagunene bitartez” (SpP. 90).

Herriko hizkera zen umbro-eraz eginak daude, eta bertsotan. Doinu ta guzti asmatu zituen santuak, 1225-garreneko udaberrian seguru asko, eta halaxe kanta arazi zituen mojen gozagarri.



- 1 Entzun, Jaunak deitu zaituzten behartsu tipiok,
leku ta lurralde askotatik bilduak izan zaretenok:
- 2 Bizi zaitezte beti egian,
hil zaitezte obedienciaz.
- 3 Ez begira kanpoko bizitza,
espirituarena baida hobea.
- 4 Bihotz osoz dizuet eskatzen
zentzuz erabil ditzazuela limosnak
Jaunak dizkizuenak ematen.
- 5 Gaisotasun zamapean daudenak
eta hauengatik nekatzen diren besteak,
bakez eraman dezazuela denak,
txit baliotsu ikusiko baidituzue nekeak,
- 6 bakoitza erregina zarete-ta
zeruan koroatua
Maria Birjinarekin batera.

POZ BETE ETA EGIAZKOAREN GAINEAN

Gutziz famatua da Fioretti-Loretxoak liburuko VII-garren atalburua: Frantziskok erakusten du pazientzian dagoela poz bete. Hurrengo idazkitxo honek gai bera darabil, baina beste era batera: tradizio zaharrago bati dagokionez, apainduria gutxiagoz. Horrexegatik iturburuan bertan jaiotzen ikusten duzunaren lillura berria igartzen zaio.

Kontatzaille bezala, Asisko frai Leonardo ageri da, 2 C 31 pasartean santua asto gainean eta bera oinez barne marmar koskorretan ikusten dugun hura bera.

Idazkia "opuscula dictata" horietakoa duzu, santuak inori idaztera emana, berak idearik eta esakerarik nagusienak adierazten zizkiolarik.

Alegia Portziunkulan diktatua izan zen, eta ez bidez zijoazela.

1 Berak —Fraile Leonardok— kontatu zuen han bertan egun batean Frantzisko dohatsuak Andre Mariaren eliz ondoan hots egin ziola Fraile Leoni, eta esan:

—Anai Leon, eskribi ezazu.

2 —Gertu nago.

3 —Eskribi —esan zion— zein den egiazko poza.

4 Badator berri ekarle bat eta esaten du Parisko irakasle guztiak Ordenara etorri direla. Eskribi ezazu: Ez da egiazko poza. 5 Halaber, mendiez bestaldeko eliz nagusi guztiak, goi-apezpiku eta apezpikuak; halaber, Frantziako erregea eta Ingalaterrako erregea. Eskribi ezazu: Ez da egiazko poza. 6 Orobat, ene fraideek fedegabeetara joan eta guztiak federa konbertitu dituztela. Era berean, hain grazia handia dudala Jainkoarengandik, non gaisoak sendatzen eta mirari asko egiten ditudan: bada nik esaten dizut hoietan denetan ez dela egiazko poza.

7 —Zein da, bada, egiazko poza?

8 —Perusatik itzultzen naiz eta banator honera gau beranduan, eta neguko garai lohitsu da, eta hain hotza, non ur hotz jeltuaren latrontxak egiten baitira tunika barrenetan, eta etengabe belaunetan jotzen ari zaizkit, hoiien zaurietarik odola dariola egoteraino. 9 Eta dena lokatza, hotz eta izotz atera nator, eta luze jo eta hots egin ondoren, badator fraidea eta galdetzen du: “Nor da hor?” Nik erantzuten dut: “Anai Frantzisko”. 10 Eta berak dio: “Joan hadi hortik. Ez da ibiltzeko garai egokia; ez haiz sartuko”. 11 Eta nik berriz eskea eginez, erantzuten du: “Joan hadi; hi zozo eta lelo bat haiz; orain ez haiz gurera etorriko. Hainbeste gaituk eta halakoak, eta hire beharrik ez diagu”. 12 Eta ni beti atean, eta esaten dut: “Jainkoaren amorioarren, har nazazue gau hontan”. 13 Eta hark erantzuten du: “Ez dut bat ere nahi. Joan hadi legendunen etxera eta eska zak han”. 14 Esaten dizut, bada, pazientzia baneza eta larrituko ez banitz, hortan dela egiazko poza eta egiazko bertutea eta arimaren osasuna.



ANAI EGUZKIAREN ERESIA

Zauriak hartu ondoren (1224-ko irailak 17), Aingeruen Santa Marian igaro zituen Frantziskok heriotzara arteko bi urteak. Gero ta gaisoago arkitzen zen; begietako gaitza erabat gaiztotu zitzaion, itsu gelditzeke zorian.

Aita Santuaren sendagileek osatuko zutela-ta, haiengana jo baino lehen, San Damiango komentutxora igo zen 1224-ko udazkenean Klara ta bere alabak agurtzera.

Santa Klarak komentu ondoko loretegian txabolatxo bat egin zion kainaberaz eta esteraz. Eta hantxe bizi izan zen Frantzisko hilabete ta erdi. Ilunetan bizi ere, min ematen baitzion begietan edozein argik, min eguzkiaren argiak. Saguak omen zebiltzan bitartean gora ta behera.

Gau batez, sekula baino latzagoak izan begietako minak, eta intzirika dago santua. Hala ere otoitzari ekiten dio gartsu. Une hortan goitik ahoiz batek: Frantzisko, emazu urre dela mundu osoa, ta urre hori huskeri bihurtzen duen aintzazko saria ematen zaizula zure oinazeengatik, ez ahal zinake min artean poztuko? —Horixe poztuko nintzatekela ta izugarri, erantzun Frantzi-kok. Jau-nak orduan: Poztu zaitez, bada: zure gaisotasuna nere Erreinuaren segurantzia da-ta (2 C 213).

Santuaren gainezkako poza, loretegiko txabolatxo ilunean, umbro-erazko eresi hontantxe leher-tzen da orduan, izakien edertasunak eta argia bera —Eguzkia!— Jaunaren aintza bide egiten di-tuelarik.

Heriotzari buruzko ahapaldia noiz eta hil aurre-txoan! abestu zuen. Pakearena, berriz, 1225-ko udaran asmatu zuela esaten da, Asis-ko podestá-gobernariaren eta Gido gotzaiaren artean pakeak egiteko.


Italierazko "per" izen-aurrekoa kausal bezala itzulia izan da euskeraz, tradizioak nahi duenari jarraituaz.

ANAI EGUZKIAREN ERESIA

- 1 Gorengo ahalguztidun Jaun onbera,
zeureak dituzu gorespenak, haintza, ospea ta bedein-
kapen dena.
- 2 Zuri bakarrik dagozkizu, gorengo horri,
eta ez da inungo gizonik zu aipatzeko dina.
- 3 Goratua zaitez, ene Jau-
na, zure sorkari guztie-
kin,
batez ere anai jaun eguz-
kiarekin,
bera baita eguna ta bere
bidez gaituzu argitzen.
- 4 Eta ederra da ta dirdai
haundiz dizdiratsua,
zurea, goi-goiko horrena,
darama itxura.
- 5 Goratua zaitez, ene Jau-
na, arreba ilargi ta izarrengatik,
zeruan argitsu, bitxi ta eder jarri dituzularik.
- 6 Goratua zaitez, ene Jauna, anai haizeagatik,
aide ta laino, oskarbi ta edozein girogatik,
hauen bidez ematen baitiezu zeure sorkariei jan-
edanetik.
- 7 Goratua zaitez, ene Jauna, arreba uragatik,
txit onurakor, humil, bitxi ta garbi delarik.
- 8 Goratua zaitez, ene Jauna, anai suagatik,
bere bidez argitzen baituzu gaua,
eta bera eder, alai, sendo ta indartsu da.
- 9 Goratua zaitez, ene Jauna, gure arreba ama-lurragatik,
berak mantentzen baigaitu ta bera dugu gidari,
eta koloretako lore ta belarrekin fruitu asko dakarki.



- 10 Goratua zaitez, ene Jauna, zuganako maitasunez
barkaturik,
gaisotasuna ta nahigabea eramaten dituztenengatik.
- 11 Zorionekoak, hauek bakez sufri baditzaite,
zuk, gorengo horrek, koroatuak izango baitirade.
- 12 Goratua zaitez, ene Jauna, gorputzeko gure arreba
heriotzagatik,
bizi den gizonek ezin ihes egin dezake harengandik.
- 13 Oi bekatu larritan hil daitezenak errukarriak!
Zorionekoak zure nahi txit santuan aurki ditzanak,
ez baitie gaitzik egingo bigarren heriotzak.
- 14 Gora ta bedeinka ene Jauna,
eskerrak eman eta apaltasun haundiz serbi bera.





J A U N A R E N
NEKALDIKO OFIZIOA

JAUNAREN NEKALDIKO ELIZ-OTOITZA

Elizaren seme leial zenez, Frantziskok zintzo errezzatu ohi zuen egunero ta bihotz osoz Elizaren otoitz ofizioa. Hartarako aurrez bizten zuen berak labea, bere aldetik beste zenbait otoitz eginaz: Gure Aita-ren parafrasia ta ondorengo gorespenak, Ama Birjinaren ofizioa eta orain ematen dizugun Nekaldikoa.

Salmo sail honi Nekaldiko ofizioa deitu zaio, beharbada guziaren erdi-erdian Gurutze santuaren iluna ta dirdaia —hauxe batez ere!— zabaltzen omen delako. Nolanahi ere, bost otoitz-kerakusi ditzakezu bertan: Nekaldikoa lehenengoa, ta hurrengoak berriz honela: Biztuerakoa, igande-jaietakoa, abendukoa ta Eguberrikoa.

San Frantziskok berak osatu zuen guztiz bere erara Nekaldiko ofizio deritzan hau. Salmoetan bi, salmutegitik hartuak ditu dauden-daudenean. Horiek ez beste denak, berberak mamitu zituen handik eta hemendik jasotako osagarritz: salmutegian —erromatar eraz zein galikano eraz— darduka harrobirik aberatsena; Bibliako beste liburuetat ere baliatzen da, meza-liburuaz eta brebiarioaz ere bai.

Aldaketak edonun igarri daitezke: kendu egin-go dizu batean, erantsi hurrengoan, edo aldatze hutsera joko dizu. Salmoak buruz esaten zituelako ere bai, edo halako kasutan (Greccio-koan, adibidez) hobeto zetorkiolako, baina aldatu batez ere bere barru giroari jarraituaz aldatzen dizu: "Jaun" hitza esate baterako, "Aita" sentitzen dizu berak...

Era hortara, testo desberdinen mosaiko ez-baina ikuskera osoko otoitz sorta bihurtzen dira osagarri guzti hoiek santuaren ahoan.

Bide bikaina otoitz ofizio hauxe Frantziskoren espiritua barnetik ezagutu ta bizi nahi duenarentzat. Klara dohatsuak bere maisuagandik ikasi zuen —Celano-k dioenez— Gurutzearen ofizioa, eta harexek adinako maitasunez errezzatzen omen zuen.

JAUNAREN NEKALDIKO ELIZ-OTOITZA

Hona hemen gure Aita Frantzisko txit zoriontsuak Jaunaren Nekaldia agurtzeko, gogoratzeko ta goresteko eratu zituen salmoak. Ostegun santuko arrats-otoitzetik hasten dira, gau hartan izan bait zen Jesukristo gure Jauna saldu ta preso hartua. Ohar bedi honela esaten zuela eliz-otoitz hau Frantzisko zoriontsuak: lehenengo, Jaun eta Maisuak erakutsi zigun otoitza esaten zuen: *Gure Aita guziz santua*, eta abar, gorespen eta guzi, hots, *Santu, santu, santua* esanaz. Gorespenak otoitzaz bukatu, antifona esaten zuen, hots *Santa Maria*. Santa Mariaren salmoak esaten zituen lehendabizi; gainera, berak aukeratuko beste salmo batzuk ere bai, eta salmo guztien bukaeran, Nekaldiko salmoak esaten zituen. Salmoak amaituz gero, *Santa Maria Birjina* esaten zuen. Antifona bukatu, amaitua zen eliz-otoitza.

I ERA

ARRATS OTOITZEAN

Antifona: Santa Maria Birjina.

Salmoa

- 1 Jainkoa, nire bizitza zuri adierazi dizut;
nire malko guztiak zure begien aurrean jarri dituzu.
- 2 Nire etsai denek gaiztakeriak asmatzen zituzten nire kaltetan;
batzarrea egin dute nire kontra.
- 3 Eta nire on-egiteen ordezkalte egin didate;
eta nire maitasun ordezkorroto izan.
- 4 Ni maitatu beharrean, gezurrez ari zitzaizkidan maitatzen;
nik, ordea, otoitz egiten nuen.
- 5 Nire Aita santu, zeru lurren Errege hori, ez zaitez nigandik aldentu;
atsekabea gertu bait dago eta ez dut lagunduko didanik.

- 6 Nire etsaiek atzera egingo dute, dei egin dezaizudan edozein egunetan;
badakit-eta zu nire Jainko zarena.
- 7 Nire adiskideak eta lagunak hurrera zaizkit, gero bertan gelditu dira;
nire ahaideak urrutitik dagoz begira.
- 8 Nire ezagunak urrundu egin dizkidazu, higuingarri jo naute;
saldua izan naiz eta ez dut irteerarik.
- 9 Aita santu horrek, ez ezaidazu urrutira zure laguntza;
nire Jainkoa, itzul begiak lagun dezaidazun.
- 10 Zatoz azkar niri laguntzera,
Jauna, Jainko nire salbatzaile hori.
- 11 Haintza Aitari.

Santa Maria Birjina, munduan ez da emakumeen artean zure antzekorik jaio, txit goiko Errege Aita zerukoaren alaba ta mirabea, Jesukristo gure Jaun guztiz santuaren ama, Espiritu Santuaren emaztea. Otoitz egiozu gure alde Mikel goi-aingeruarekin eta zeruko birtute guziekin eta santu guziekin zure Seme maite txit santu, gure Jaun eta Maisuari.

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Hasieran zen bezala, orain, beti eta gizaldien gizadietan. Amen.

Ohar bedi antifona hau ordu denetan esaten dela; eta hain zuzen, antifona, irakurgai labur, goratarre, bertoska ta otoitzaren lekuan esaten da; maitinetan eta ordu denetan berdin. Ez zuen horietan antifona hau ta beronen salmoak besterik esaten.

Eliz-otoitza bukatzeko, Frantzisko zoriontsuak hauxe esaten zuen beti:

Bedeinka dezagun Jainko Jaun bizi ta egiazkoa; eman dezaiogun beti hari gorespena, haintza, ohorea, bedeinkapena ta on oro. Amen, amen. Hala egin bedi. Hala egin bedi.

MAITINETAN

Ant. Santa Maria Birjina.

Salmoa

- 1 Nire osasunaren Jainko Jauna;
gau ta egun hots egin dut zure aurrean.
- 2 Iritxi bedi zure aurrera nire otoitza;
makur zure belarria nire eskarira.
- 3 Hurbil zakizkio nire arimari eta aska ezazu;
atera nazazu nire etsaietatik.
- 4 Zuk atera bait ninduzun sabeletik, nire amaren bu-
larretatik zu bait zaitut itxaropen;
haur-tokitik zuregana zuzendua izan naiz.
- 5 Nire amaren sabeletik zu zaitut ene Jainko;
ez zaite niregandik aldendu.
- 6 Zuk ezagutzen duzu nire lotsa ta nahasmendua,
eta zuri dizudan begirunea.
- 7 Zeure begien aurrean daduzkazu ni larritzen nautenak;
nire bihotzak iraina ta nahigabea jasan du.
- 8 Erruki dadin norbaiten zai egon naiz eta ez da azaldu;
poz-araziko nauen norbaiten zai, eta ez dut arkitu.
- 9 Jainkoa, gaiztoak nire kontra jaiki dira, eta jauntxo
sail bat dabil nire biziaren atzetik;
ez zaduzkate zu begien aurrean.
- 10 Hilobira jaisten direnekin jarri naute;
laguntzarik ez duen gizon bihurtu naiz, hilen artean
bizi den bat.
- 11 Zu zaitut nire Aita guziz santu,
nire Errege ta nire Jainko.
- 12 Zatoz azkar niri laguntzera,
Jauna, Jainko nire Salbatzaile hori.
- 13 Haintza Aitari.

GOIZ-OTOITZEAN (Ad primam)

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Erruki zaitez, Jainkoa, erruki nitaz;
nire arimak zugar bait du usteon.
- 2 Zure hegoen itzalpean babestuko naiz,
zoritxar-aldia igaro arte.
- 3 Dei egingo diot nire Aita txit santu gorenenari,
hainbeste on egin didan Jainkoari.
- 4 Zerutik bidali dit laguntza ta askatu nau;
eta lotsaz bete ditu ni zapaltzen nindutenak.
- 5 Jainkoak bidali ditu bere indarra ta egia;
askatu nau nire etsai txit indartsuetatik eta gorroto
izan nauten haietatik,
harro agertzen bait ziren nire gain.
- 6 Sarea zabaldu diete nire oinei;
eta makur-arazi dute nire arima.
- 7 Zuloa ireki dute nire aurrean,
eta beraiek erori dira hartara.
- 8 Gertu dadukat bihotza, Jainkoa, gertu dadukat bihotza
abestuko dut eta salmoa esango.
- 9 Esna zaitez, nire haintza, esna, salterio ta zitara:
goizean goiz esnatuko naiz ni.
- 10 Herrien artean aitortuko zaitut, Jauna;
eta salmoak esango dizkizut atzerrien artean.
- 11 Zeruetaraino bait da haundi zure errukia,
eta hodeietaraino zure egia.
- 12 Jaiki zaite, Jainkoa, zeruen gain;
eta jaiki bedi lur osoaren gain zure aintza.

BEDERATZIETAKO OTOITZEAN (ad tertiam)

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Erruki nitaz, Jainkoa, zapaldu egin bait naute;
erasotuaz egun guzian atsekabetu naute.
- 2 Nire etsaiek egun guzian zapaltzen naute;
asko bait dira nire kontra burrukan ari direnak.
- 3 Nire etsai denek oker-asmatzen dabiltza nire aurka;
gezurrezko hitzak esaten dituzte nire aurka.
- 4 Nire biziaren zelatan dagozenek
batzarrea egin dute.
- 5 Kanpora irten,
eta gauza berari buruz marmarra.
- 6 Ikusten nauten denek iseka egiten didate;
irri egin eta buruari eragiten diote.
- 7 Harra bait naiz ni, izan ere, eta ez gizona,
gizonen lotsakizun eta herriaren higui.
- 8 Nire etsaientzat ez-ezik, nire hauzokoentzat lotsakizun
haundi egin naiz;
nire ezagunentzat bildurgarri bihurtu naiz.
- 9 Aita santu horrek, ez urrundu zure laguntza nigandik;
begira, babes nazazun.
- 10 Zatoz azkar niri laguntzera,
Jauna, Jainko nire Salbatzaile hori.

HAMABIETAKO OTOITZEAN (ad sextam)

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Oihuka egin diot dei Jaunari;
oihuka egin diot eskaria Jaunari.
- 2 Haren aurrean isurtzen dut nire otoitza;
nire nahigabea haren aurrean agertzen dut.

- 3 Nire gogoa larritzen denean,
 zuk ezagutzen duzu nire bidea.
- 4 Nik daramadan bide honetan,
 harroak sarea izkutatu didate.
- 5 Begiratzen dut eskuira, aztertzen dut:
 ez nau inork ezagutzen.
- 6 Ez dut ihesbiderik:
 ez dago nire bizia zaindu nahi duenik.
- 7 Zuregatik eraman bait dut iraina;
 zuregatik estali du lotsak nire aurpegia.
- 8 Arrotz egin naiz nire anaientzat;
 kanpotar nire amaren semeentzat.
- 9 Aita santua, zure etxearen sugarrak jan nau;
 mintzen zaituztenen irainak nire gain erori dira.
- 10 Nire kontra poztu ta bildu dira;
 zigorkadak pilatu dira nire gain, eta nik barkatu
 egin dut.
- 11 Nire buruko ileak baino ugariago dira
 arrazoirik gabe ni gorroto izan nautenak.
- 12 Gogorak dira bidegabek erasotzen nauten etsaiak;
 lapurtu ez dudana ordaindu dut.
- 13 Testigu gaiztoak jaiki dira;
 ta nik ez nekizkien gauzak galdatu dizkidate.
- 14 On-eginen ordetan kalte egin didate, eta gaizki esan
 dute nitaz;
 nik ontasunez jokatzeko bait nuen.
- 15 Zu zaitut nire Aita txit santua,
 nire Errege ta nire Jainkoa.
- 16 Zatoz azkar niri laguntzera,
 Jauna, Jainko nire Salbatzaile hori.

HIRURETAKO OTOITZEAN (ad nonam)

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Oi zuek, bidean zehar zoazten denok; begira,
 ta ikus nire atsekabea bezalako atsekaberik bai
 ote den.

- 2 Zakur askok inguratu bai naute;
gizatxar talde batek hesitu nau.
- 3 Begiratu naute, goitik behera aztertu;
zatitu dituzte berentzat nire jantziak eta nire soine-
koa zotz egin dute.
- 4 Nire esku-oinak zulatu dituzte,
eta nire hezur guztiak zenbatu.
- 5 Nire kontra zabaldu dute beren ahoa,
orroka zarrastatzen duen lehoiak bezala.
- 6 Ura bezala isuria izan naiz;
atereak izan dira nire hezur denak.
- 7 Urtuaz doan argizaria bezala egin zait bihotza,
nire bularraren erdian.
- 8 Nire indarra teila bezala lehortu da;
mihia aho-sapaiari itsatsi zait.
- 9 Behazuna eman didate janaritzat,
eta nire egarrian ozpina eman didate edaritzat.
- 10 Heriotz hautsetara eraman naute;
nire zaurien oinazea haundiago egin dute.
- 11 Nik lo hartu dut, baina berbiztu egin naiz,
nire Aita txit santuak bere haintzatan hartu nau.
- 12 Aita santu horrek, eskuitik heldu didazu;
zeure nahian eraman nauzu eta zeure haintzatan
onartu.
- 13 Izan ere zer beste saririk dut zeruan?
Eta zutaz kanpo, zer nahi izan nezake lurrean?
- 14 Begira, begira, ni naiz Jainkoa, dio Jaunak;
goratua izango naiz atzerrietan eta goratua lurra-
ren gain.
- 15 Bedeinkatua Israelen Jainko Jauna,
bere odol txit santuaz erosi bait ditu bere morroien
arimak,
eta ez dira zigortuak izango harengan itxaropen
dutenak.
- 16 Eta badakigu badatorrena:
zuzenbidez epaitzera etorriko da.

BEZPERETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Herri guziok, jo txaloak!
Jai egin Jainkoari pozezko oihuz!
- 2 Jaun txit goikoa izugarria bait da;
lurbira osoaren gain Errege haundi.
- 3 Zeruko Aita guziz santu, haseratik gure Errege denak,
bere Seme maitea bidali bait du goitik;
salbamen egin du lurbiraren erdian.
- 4 Alai bitez zeruak eta poz bedi lurra,
dardara bedi itsasoa ta hura betetzen duena;
bozkariatuko dira landak eta haietan dagoen oro.
- 5 Abes ezaiozue hari kantu berri bat;
kanta Jainkoari lurbira osoak.
- 6 Haundi bait da Jauna eta neurririk gabe goragarri,
izugarria jainko guztien aldean.
- 7 Eman Jaunari, jentil herriok,
eman Jaunari haintza ta ohorea,
eman Jaunari haren izenaren haintza.
- 8 Eskaini zuen gorputzak eta eramane gurutze
santua,
jarrai azkenera arte haren agindu guziz santuak.
- 9 Ikara bedi haren aurpegi aurrean lurbira osoa;
esan atzerrien artean, Jauna Errege da.

Honera artekoa Ostiral Santutik Igokundera
bitartean esaten da. Igokunde jaiari, bertoska
hauek gaineratzen dira:

- 10 Eta zeruetara igo da;
Aita txit santuaren eskui aldean dago jarrita
zeruetan.
- 11 Jaiki zaitez, Jainkoa, zeruen gain;
jaiki bedi zure haintza lur osoaren gain.

12 Eta badakigu badatorrena:
zuzenbidez epaitzera etorriko da.

Ohar bedi, Igokundetik Jaunaren Etorrerara arte, era honetan esaten dela *Herri guziok salmoa*, goragoko bertsoskekin. *Zuzenbidez epaitzera etorriko da* salmoa bukatzen denean, *Haintza Aitari* esaten da.

Gogoan eduki goragoko salmo horiek Ostiral Santutik Berbizkunde igandera arte esaten direla. Era berdinez esaten dira Pentekosteko zortzihurrenetik Jaunaren Etorrerara arte, eta Epifaniako zortzihurrenetik Ostegun Santura bitartean, igande ta jai nagusietan ez bestetan, hauetan ez bait dira esaten; beste egunetan ordea, beti esaten dira.

II ERA

LARUNBAT SANTUKO ARRATS OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Zatoz azkar,
Jainko, salmuted-
gian bezala.*

Egunero esaten da
horrela arrats otoitzean
Pentekosteko zortzihu-
rrenera arte.



BERBIZKUNDE IGANDEKO MAITINETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

1 Abestu Jaunari kantu berri bat:
harrigarriak egin bait ditu.

2 Haren eskuiak santutu du haren Semea;
haren beso santuak goretsi du.

- 3 Jaunak bere osasuna ezagun arazi du;
bere zuzentasuna agertu du atzerrien aurrean.
- 4 Egun hartan bidali du bere errukia;
eta gau honetan entzungo da haren abestia.
- 5 Hau da Jaunak egin duen eguna;
poz eta alai gaitezen.
- 6 Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena;
Jauna Jainkoa da, ta berak egin digu argi.
- 7 Alai bitez zeruak, poz bedi lurra,
dardara bedi itsasoa eta hura betetzen duena,
bozkariatuko dira landak eta haietan dagoen oro.
- 8 Eman Jaunari, jentil herriok,
eman Jaunari haintza ta ohorea,
eman Jaunari haren izenaren haintza.

Honera artekoa, Berbizkunde igandetik Igokunde jaira arte, egunero esaten da ordu guzietan, bezpera, arrats otoitz eta goiz-otoitzean izan ezik. Igokunde gauez, bertsoska hauek gaineratzen dira:

- 9 Lurreko erreinuok, abes Jainkoari, kanta salmoak
Jaunari:
kanta zeruetan gora eguzki aldera doan Jainkoari.
- 10 Hona, indarrez entzun araziko du bere ahotsa;
eman Jainkoari haintza Israelengatik;
haren haunditasuna ta indarra hodeietan agertzen da.
- 11 Harrigarria da Jainkoa bere santuetan;
Israelen Jainkoak emango dio kemen eta sendotasun bere herriari;
bedeinkatua izan bedi Jainkoa.

Ohar bedi salmo hau egunero esaten dela goragoko bertsoskekin Jaunaren Igokundetik Pentekosteko zortzihurrenara arte, maitinetan, bederatzietan, hamabietan eta hiruretan; *Bedeinkatua izan bedi Jainkoa* esaten denean, ez bestetan, *Haintza Aitari* erasten da. Orobat, ohar bedi era berdinez egun hauetako maitinetan bakarrik esaten dela: igandeetan eta jai nagusietan, eta Pentekoste zortzihurrenetik Ostegun Santura arte, egun hone-

tan jan bait zuen Jaunak pazkoa bere ikasleekin; edo beste salmo bat ere esan daiteke, nahi bada, maitinetan nahiz bezperetan, *Goretsiko zaitut, Jauna* eta abar, adibidez, salmutegian dagoen araura, eta honela Berbizkunde igandetik Igokunde jaira arte, ez gehiago.

GOIZ-OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Erruki zaitetz, Jainkoa, erruki nitaz* (I. erako goiz-otoitzean bezala).

BEDERATZI, HAMABI TA HIRURETAKO OTOITZEAN


Salmoa: *Abes Jaunari kantu berri bat* (II. erako maitinetan bezala).

BEZPERETAN

Salmoa: *Herri guziok* (I. erako bezperetan bezala).

III ERA

Hemen hasten dira gure aita Franziskok orainartekoen antzera eratu zituen beste salmo batzuk. Gorago jarri diren Jaunaren Nekaldiko salmoen ordezkari esatekoak dira igandeetan eta jai nagusietan, Pentekoste zorzi-hurrenetik Abendura arte, eta Epifaniako zortzi-hurrenetik Ostegun Santura arte.



ARRATS OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Zatoz azkar, Jainkoa, salmutegian dagoen arauera.*

MAITINETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Abes Jaunari* (II. erako maitinetan bezala).

GOIZ-OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Erruki zaite, Jainkoa, erruki nitaz* (I. erako goiz-otoitzean bezala).

BEDERATZIETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Gora ezazu lur guziak Jainkoa,
salmoak esan ezaizkiozu haren izenari.
eman haintzazko gorespina berari.
- 2 Esan Jainkoari: Bai izugarriak direla zuk eginak,
Jauna,
Zure indar haundiagatik zurikeriaz datozkizu zure
etsaiak.
- 3 Gurtu bizaitza lurbira osoak eta kanta bezaizu,
salmoak esan bezaizkio zure izenari.
- 4 Atozte, entzun eta kontatuko dizuet
Jainkoaren bildur zareten guztioi,
nolako gauza haundiak egin dizkion nire arimari.
- 5 Dei egin diot hari nire ezpainez;
eta nire mihiaz goretsi dut.
- 6 Eta entzun du bere tenplu santutik nire ahotsa;
nire deihadarra haren aurrera heldu da.
- 7 Bedeinka, herriok, gure Jauna;
entzun-araz haren gorespen abestia.
- 8 Bedeinkatuak izango dira harengan lurreko leinu
denak;
herri guziek goratuko dute.

- 9 Bedeinkatua Israelen Jainko Jauna,
berak bakarrik egiten bait ditu harrigarriak.
10 Eta bedeinkatua betierean haren izen loriatsua;
haren haunditasunak lurbira osoa beteko du.
Amen, amen.

HAMABIETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Jaunak entzun zaitzala atsekabe egunean;
Jakoben Jainkoaren izenak babes zaitzala.
2 Laguntza bidal dezaizula bere etxe santutik;
eta Siondik zaindu zaitzala.
3 Oroi bedi zure opari guzietaz,
eta bedeinkatua izan bedi zure erre-oparia.
4 Zure bihotzak nahi duena eman bezaizu;
zure asmo guztiak bete bitza.
5 Poztuko gara zure osasunean;
Jaunaren izenean goretsiak izango gara.
6 Jaunak bete ditzala zure eskari denak;
orain badakit Jaunak Jesukristo bere Semea bidali
duela,
eta herriak zuzenbidez epaituko dituela.
7 Jauna behartsuaren ihesleku egin da,
egokiera denean, nahigabeen laguntzaile;
zure izena ezagutu dutenek itxaron bezate zugar.
8 Bedeinkatua nire Jainko Jauna;
babestzaile ta ihesleku gerta bait zait nire atsekabe
egunean.
9 Zuri abestuko dizkizut salmoak, nire laguntzaile horri;
Jainkoa nire babestzaile bait da, nire Jainko, nire
erruki.

HIRURETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Zugan izan dut itxaropen, Jauna, ez nadila betieran
lotsa;
zure zuzentasunagatik aska nazazu ta salba.
- 2 Itzul niregana zure belarria
eta salba nazazu.
- 3 Izan zakizkit Jainko zaindari ta leku-babes,
onik atera nazazun.
- 4 Zu bait zaitut, Jauna, nire euskarri;
zu, Jauna, gaztarotik nire itxaropen.
- 5 Zuk sendotu nauzu ume-tokitik,
nire amaren sabeletik zu zaitut zaitzaile,
zuregana doaz etengabe nire kantuak.
- 6 Gorespenez bete bedi nire ahoa, zure haintza abes
dezadan,
egun osoan zure haunditasuna kanta dezadan.
- 7 Entzun ezaidazu, Jauna, onbera bait da zure errukia;
begira nazazu zure erruki haundiari dagokionez.
- 8 Ez ezazu aldendu aurpegia zeure haurragandik;
nahigabeturik nago-ta, azkar entzun ezaidazu.
- 9 Bedeinkatua nire Jainko Jauna;
babestzaile ta ihesleku gerta bait zait nire
atsekabe egunean.
- 10 Zuri abestuko dizkizut salmoak, nire laguntzaile horri;
Jainkoa bait da nire babestzaile, nire Jainko,
nire erruki.

BEZPERETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Herri guziok* (I. erako bezperetan bezala).

IV ERA

Hona hemen gure aita Frantziskok antzera eratu zituen beste salmo batzuk; gorago jarri diren Jaunaren Nekaldiko salmoen ordeez esatekoak dira Jaunaren Etorreratik Eguberriko bijiliara arte, ez gehiago.



ARRATS OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Noiz arte, Jauna*, salmutegian dagoen erara.

MAITINETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa

- 1 Ospatuko zaitut, Jauna, Aita txit santu, zeru ta lurreko Errege,
poz-arazi egin bait nauzu.
- 2 Zu zaitut nire Jainko Salbatzailea;
uste onez jokatuko dut eta ez naiz bildur izango.
- 3 Jauna dut nire sendotasun eta haintza;
osasun izan zen bera niretzat.
- 4 Zure eskuia, Jauna, goraipatua izan da bere indarragatik,
zure eskuia, Jauna, zauritu du etsaia;
zure haintzaren haunditasunean azpiratu dituzu nire arerioak.
- 5 Ikus bezate hau behartsuek eta poz bitez;
bila Jainkoa eta biziko da zuen arima.
- 6 Gora bezate hura zeru-lurrek,
itsasoak eta han mugitzen diren guziek.

- 7 Jainkoak salbatuko bait du Sion;
 eta Judako uriak berriro eraikiak izango dira.
 8 Han izango dute bizitokia,
 ondarez jasoko dute hura.
 9 Jainkoaren morroien ondorengoak izango dira Sionen
 jabe,
 eta haren izena maite dutenak biziko dira bertan.

GOIZ-OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Erruki zaitte, Jainkoa, erruki nitaz* (I. erako goiz-otoitzean bezala).

BEDERATZIETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Gora ezazu lur guziak* (III. erako bederatzie-tako otoitzean bezala).

HAMABIETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Jaunak entzun zaitzala* (III. erako hamabie-tako otoitzean bezala).

HIRURETAKO OTOITZEAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Zugan izan dut ifxaropen* (III. erako hirure-tako otoitzean bezala).

BEZPERETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa: *Herri guziok* (I. erako bezperetan bezala).

Hau ere ohar, ez dela salmoa osorik esaten, *Ikara bedi haren aurpegi aurrean lurbira osoa* bertsora arte baizik; *Eskaini zuen gorputzak* bertsoa, ordea, osorik esaten da. Bertso hau bukaturik, *Haintza Aitari* erasten da. Eta horrela egunoro bezperetan, Eguberriko bijiliara arte.

V ERA

JAUNAREN JAIOTZAKO BEZPERETAN

Ant. Santa Maria.

Salmoa



- 1 Gora Jainko gure Salbatzailea;
pozezko oihuz ospa Jainko bizi ta egiazkoa.
- 2 Jaun txit goikoa izugarria bait da;
Errege haundi lurbira osoaren gain.
- 3 Zeruko Aita txit santu, haseratik gure Errege denak,
bere Seme maitea bidali bait du goitik,
eta Santa Maria Birjina zoriontsuagandik jaio da.
- 4 Harek dei egingo dit: Zu nire Aita zaitut.
Eta nik lehenseme jarriko dut,
lurreko erregeen aldean txit goiko.
- 5 Egun hartan bidali du Jainko Jaunak bere errukia,
eta gau honetan entzungo da haren abestia.
- 6 Hau da Jainkoak egin duen eguna;
poz ta alai gaitezen.

- 7 Haur txit santu maitea emana izan bait zaigu;
gure onerako jaio zen bidean;
eta aska batean jarria izan zen
ostatuan ez bait zuen lekurik.
- 8 Haintza goi-goietan Jainko Jaunari;
eta bakea lurrean gogo oneko gizonei.
- 9 Alai bitez zeruak eta poz bedi lurra,
dardara bedi itsasoa eta hura betetzen duena,
bozkarioz beteko dira landak eta haietan dagoen oro.
- 10 Kanta hari abesti berria;
lur osoa, kanta Jaunari.
- 11 Jauna haundi bait da ta neurririk gabe goresgarri,
jainko guzien aldean izugarri.
- 12 Eman Jaunari, jentil herriok,
eman Jaunari haintza ta ohorea,
eman Jaunari haren izenaren haintza.
- 13 Eskaini zuen gorputzak eta eraman haren gurutze
santua;
bete itzazute azkenera arte haren agindu txit
santuak.

Ohar bedi salmo hau ordu guzietan esaten dela
Jaunaren Jaiotzatik Epifaniako zortzihurrenara
arte.



**arreba
klara**

SANTA KLARAREN ERREGLA

Gauza jakina da, baina ez behar adina eza-gutua, klaratar mojek erregla bat baino gehiago izan dutela. Labur dezagun kondaira.

1211-tik 1218-19 urteetara bitartean, Klara ta bere alabak Frantziskok emandako erakutsien arabera bizi izan ziren, batez ere harek emandako "bizimoldea" beteaz.

1218-19 bitarte hortan Hugolino kardenalak Erregla berri bat idatzi ta har erazi zien, gero Gregorio IX-ak (1239) ta Inozentzio IV-ak (1245) ontzat emango zutena. I Erregla deritzaio honi, eta bertan San Benitoren Erreglari erantsiak bezala legez onartzen ziren klaratarrak.

1247-an Inozentzio IV-ak beste Erregla bat eratu zien, lehenengoaren antzekoa. Araudi honi II Erregla deritzaio.

Klarak frantziskotar arreba behartsuen ideala gordetzen zuen, ordea, bihotzean. San Damiano komentutxoan zeramaten bizikera berezi huraxe ikusi nahi zuen Elizak bedeinkatua. Eta halaxe, 1247-tik 1252-ra bitartean bere Erregla eratu zuen.

Azken urte hortan bertan eman zion hontzat Erregla hau Rainaldo kardenalak Aita Santuaren izenean. Inozentzio IV-ak, berriz, hitzez onartu zuen 1253-ko abuztuaren 9-an, eta 10-an bidali zion onartzearen bulda. Klararen hil bezpera zen. Bulda behin eta berritan laztanduaz, gaixoa hurrengo egunean hegatu zen zerura.

Klarak mamitutako hauxe da III Erregla deritzaiona. Eta hain zuzen ere beronen lehen-idatzia Klara dohatsuaren gorputza jazten zuen tunike-tako baten tolestura artean arkitua izan zen 1893-an.

Santa Klararen heriotza ondoren, beste bi Erregla sortzen dira. Frantziako Isabel-ek egina bat, eta 1263-an Urbano IV-rena bestea, IV Erregla deritzaiona. Hauek lehenengo bi Araudiei jarraitzen zieten, ez Klarak egindakoari.

Klaratarren monastegi askok IV Erregla hauxe dute bizibide; gutxiagok, Klara beraren Erregla; ta batzuek, Isabel-dar bizimoldea onartzen dute, bihotzean denek beren Amaren Erregla badaukate ere. Gaur egun asko bizkortu da Araudi honen aldeko zaletasuna.

Klararen Erreglak San Frantziskoren iturri beraxe du, honek hitzez eta izkribuz erakutsi zien huraxe: Ebanjelio santua zintzo betetzea, Jesus humil, behartsu ta oinazetuaren jarraipenean, fede katolikoa ta Erromatar Eliza santari leialtasun osoa gordeaz. Hortarakoxe hartu zuen Klarak oinarritzat frantziskotar anaien 1223-ko Erregla buldatua.

Emakume sikolojiara egokituko dizu frantziskotar Araudia, eta kontenplazio bizitzak eskatzen duenera. Baina Frantziskok bezalaxe, "Jaunaren Espirituari" emango dio nagusitza ta "haren langintzari". Badaki "arriba" —halaxe deitzen die— bakoitzaren espiritu-arnasa errespetatzen, ez ditu erabat lotu nahi. Arriba-elkarte bero bat sortzea du amets, monastegiko arazo denak bakoitzak bere bezala har ditzala.

Jabetzarik ez du onartuko, dirua behar denean erabiltzen utziko dizu. Lehenengo bi Erreglen aldean —Frantziskoren itzala hemen ere—, arindu egingo ditu arau batzuk, baraua bigundu, isiltasuna giza izakeraren neurrirago jarri. Ez dago otoitz ofizioa abestu beharrik, arriba ez-ikasiak ez dezatela latinik ikas: aski dute otoitz espirituarekin. Eta nola ez: har-eman santu estuak nahi ditu "anaia txikiekin".

SANTA KLARAREN ERREGLA

1 Inozentzio Apezpiku, Jainkoaren zerbitzarien zerbitzaria: Kristorengan alaba maite ditudan Klara abatisa eta Asisko San Damian monasterioko beste ahizpa guztiei: Osasuna eta Apostoluen bedeinkazioa.

Ohitura du Apostoluen Aulki honek eske datozkionen boto jainkotiar eta nahiera egokiei harrera on egitea eta onginaliaz laguntzea. Eta hain zuzen, zuen aldetik eskari bat etorri zaigu, humilki egina, Frantzisko dohatsuak zuei emandako bizikera Apostoluen autoritateaz finka dezagula, arren, eskatuz; hau da: espirituazko batasunean eta goi-goieneko pobretasun botoaz egin behar duzuen bizimolde hori finkatzeko eskaria. Lehendik ere bizikera hau gure anaia agurgarri Ostia eta Velletri-ko Apezpikuak onartua zuen, xede honetarako idatzi zizuen Gutunean hobekiago ageri den bezala. Guk, bada, deboziozko zuen erreguei men eginez eta Apezpiku hark egin zuena ontzat eman ez eta ederretsiz, Apostoluen autoritateaz finkatzen eta idazki honen babesaz babesten dugu, Gutun hura hitzez-hitz hemen sar arazirik. Zeinek honela baitio:



2 Reinaldo, Jainkoaren errukiagatik Ostia eta Velletri-ko apezpiku denak, Kristorengan Ama eta Alaba maite dudan andre Klara, Asisko San Damian-go abatisari, eta haren ahizpei, oraingo nahiz ondorengoei: Osasuna eta aitatiar bedeinkazioa.

Zuek, Kristorengan alaba maiteak, munduko ponperiak eta atseginak arbuiatu dituzue, eta Kristo eta haren Amaren oinatzai jarraikiz, itxiturazko bizitzan eta guztizko pobretasunean Jaunaren mirabetza hautatu zenuten, hari espirituzko askatasunean zerbitzatu na-

hirik. Guk, bada, zuen asmo santu hori Jaunarengan biziki goratuz, gogo onez eta aita bati dagokion mai-tasunaz harrera on egin nahi diegu zuen boto eta nahi santuei.

Beraz, zuen jainkotiar erreguetara makurturik, ba-tasun santu eta goren-goreneko pobretasun bizikera —hitzez eta idatziz San Frantzisko, zuen aita doha-tsuak gorde zenezaten emana— betirako finkatzen eta idazki honen indarrak sendotzen dugu, bai zuentzat eta bai zuen monasterioko gerokoentzat, eta idazki honekin batean dihoakizue. Horra, bada, bizikera hori zer-nolakoa den.

LEHENBIZIKO KAPITULUA

JAUNAREN IZENEAN HASIERA EMATEN ZAIO AHIZPA POBREEN BIZIMOLDEARI

3 Ahizpa Pobreen Ordenako bizikera, Frantzisko dohatsuak jarria, hauxe da: Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio santua gordetzea, obedientzian, berenik gabe eta garbitasunean biziz.

Klara, Kristoren mirabe duin gabe eta Aita Frantzisko dohatsuaren landaretxoak, obedientzia eta begirunea hitz ematen dizkio jaun Inozentzio Aita Santuari, eta eliz legeen arabera segidan etorriko diren haren ondo-rengoei, eta orobat Erromako Elizari. Eta bere kon-bersioko hasieran, bere ahizpekin batean, Frantzisko dohatsuari obedientzia agindu zion bezala, haren ondo-koei ere obedientzia hori bera huts egin gabe gordeko diela agintzen du. Beste ahizpak, berriz, behartuak beude Frantzisko dohatsuari, ahizpa Klarari eta eliz legeen arabera ondotik etorriko diren abatisei obeditzera.

BIGARREN KAPITULUA

BIZITZA HAU HARTU NAHI DUTENEN GAINEAN, ETA HARTZE HORI NOLA EGIN BEHAR DEN

4 Baldin Jainkoak argiturik, norbait bizimodu hau hartu nahiz, guregana baletor, abatisa beharturik bego beste ahizpa guztien oniritzia eskatzera; eta gehienak baiezkorearen alde baleude, jaun Kardenal gure Zaintzailearen baimena izanik, har lezake.

Eta hartua izateko modukoa dela iruditzen baldin bazaio, arretaz iker beza, edo eta iker araz beza fede katolikoaren eta Elizako sakramentuen gainean. Eta gauza guzti hoiak sinesten baldin baditu, eta zintzoki aitortu eta azkeneraino gorde nahi baldin baditu; eta senarrik ez badu, edo izanez gero, senarra, elizbarrutiko Apezpikuaren baimenaz Erljioan sartua baldin bada, garbitasunezko botoa egin ondoren; eta adin handiak edo gaitz edo ergelkeriaren batek bizimolde hau gordetzea galeraetzen ez badio, eman bekio arduraz gure bizikeraren berri.

Eta baldin gai balitz, esan bekio Ebanjelio santuko hitza, alegia: Dihoala, eta bere ondasun denak saldu eta banatzeko ahaleginak egin ditzala¹; baina hori egiterik ez balu, aski da borondate ona. Eta begira bezate abatisak eta honen ahizpek ez daitezela haren ondasunen kezkatik izan, baina askatasun osoz egin dezala bere gauzeekin Jaunak gogora emango dion bezala. Kontseju eske etor badadi, ordea, bidal bezate zuhur eta Jainkozale diren batzuegana, eta hoiaren kontsejuaren araberak parti bitez ondasunok behartsuen artean.

5 Gero, ilea biribilki moztu eta soineko sekularra utzirik, eman biezazkiote hiru tunika eta mantua.

1. Ikus Mt 19, 21.

Eta ordutik aurrera, ez bekio zilegi izan monasteriotik kanpora irtetea, probetxuzko, arrazoizko, agiriko eta ontzat emateko arrazoi bategatik ez bada.

Eta probantza urtea bukatutakoan, obedientzian hartua izan bedi, pobretasunezko gure bizimodua eta era beti gordetzeko hitza emanik.

Probantza urteak diraueino ez beza inork belorik jantz. Manteletak eduki ditzakete ahizpek, beren lan eta zereginak erosoago eta honeskiago egiteko. Abatisak eduki beza kontu handia haiei behar diren jantziak emateko, bai pertsonen kondizioari begiratuz, eta bai toki, eguraldi eta lurraldeetako hotzaren arabera ere, behar izanak eskatzen duen neurrian, alegia.

Legezko adina bete gabe monasterioan harturiko gaztetxoei ebaki bekie ilea biribilki, eta soineko sekularra utzirik jantz bitez erlijiozko zapiez, abatisari irudi lekioken bezala. Eta adin egokira iristean, beste gainerakoen erara jantzirik egin bezate beren profesia.

6 Eta abatisak eman biezaie, bai hauei eta bai beste nobiziei ere, monasterioko zuhurren artetik hautaturiko Maistra bat, bizitza santua eta ohitura onak irakas diezazkien, profesatu dugunaren arabera.

Beren zeregina monasteriotik kanpora duten ahizpak aztertze eta hartze kontuan, ordea, esandako era gorde bedi; eta hauek oinetakoak erabil ditzakete.

Ez bedi inor gurekin monasterioan bizi, gure profesamoldearen arabera onartua izan ez bada.

Eta oial guztiz pobretan bildua eta askan etzana izan zen Haur guztiz santu eta guztiz maitatuaren amorioagatik, eta haren Ama guztiz santuaren amorioagatik, kontseju ematen, erregutzen eta arren eskatzen diet, jantz daitezela soineko arruntez.


HIRUGARREN KAPITULUA

OTOITZ-OFIZIOAZ ETA BARAUAZ; AITORKETAZ ETA JAUNARTZEAZ

7 Irakurtzen dakiten Ahizpek egin bezate Otoitz-ofizioa Fraide Txikarrek ohi duten eran; eta horretarako zilegi izan bekie Brebiarioak edukitzea, kantatu gabe irakurriz. Eta arrazoizko arrazoi bategatik inoiz orduak irakurriz ezin esan balitzate, zilegi izan bekie gainerako Ahizpak bezala Gure-Aita esatea.

Irakurtzen ez dakitenek, berriz, esan bezate hogeitau Gure-Aita Maitinen ordezt; bost, Laudorioen ordezt; Prima, Tertzia, Sexta eta Nona, hoietako bakoitzagatik, zazpi; Bezperengatik, hamabi; Konpletan ordezt, zazpi. Eta hildakoen alde ere erreza bitzate zazpi Gure-Aita *Requiem aeternam* eta guzti, Bezperetan, eta hamabi, Maitinetan, irakurtzen dakiten ahizpak hildakoen Ofizioa egitera behartuak daudenean. Eta gure monasterioko ahizparen bat hil dadinean, berriz, esan bitzate berrogei eta hamar Gure-Aita.

8 Aldi oroz egin bezate barau ahizpek; baina Jau-naren jaiokunde egunean, den eguna dela, bi otordu egin ditzakete. Gaztetxo ahulei eta monasteriotik kanpora ari direnei errukiz barka bekie abatisari irudituko litzaiokeen gisa. Eta makalaldi ageriko uneetan, ez bitez ahizpak gorputzeko baraua egitera behartuak.



9 Kofesa bitez urtean hamabi aldiz bedere, abatisaren baimenaz, eta begira bezate orduan ez dezatela nahas kofesioaz eta beren arimen etekinaz zer-ikusirik ez duen hitzik.

Jauna har bezate zazpi aldiz, hau da: Jaunaren jaio-kunde egunean, Ostegun Santu egunean, Jaunaren Bizkunde egunez, Mendekostez, Andre Mariaren Jasokundean, San Frantziskoren eta Santu guztien jaietan. Ahizpei, sendo eta gaixoei, Jauna emateko, zilegi izan bekio kapeilauari barnean meza ospatzea.

LAUGARREN KAPITULUA

ABATISAREN HAUTAKETAZ ETA OFIZIOAZ; KAPITULUAZ; OFIZIALE ETA DISKRETEI BURUZ

10 Behartuak bitez ahizpak abatisaren hautaketan eliz legeak gordetzera.

Eta ardura bitez aldez aurretik Fraide Txikarren Ordenako Ministro Jenerala edo Probintziala beraiekin edukitzen, zeinek Jainkoaren hitzaz hautaketa egiterakoan elkarbatasun osora eta ororen ona bilatzera bultzatuko baititu.

Eta ez bedi profesatua dena baizik hauta. Eta baldin profesatua ez dena hautatua edo bestela emana izango balitz, halakoari ez bekio obedi, baldin lehenago gure pobretasun era profesatzen ez badu.

Hura hil dadinean, egin bedi beste baten hautatzea. Eta inoiz Ahizpen multzoari azalduko balitzaio abatisa hura ez dela gai beraien zerbitzurako eta ororen onerako, behartuak bitez ahizpa hoiek beste bat abatisa eta ama bezala lehen-bait-lehen esan den modura hautatzera.

11 Eta hautatua izan denak kontsidera beza zernolako pisua hartu duen beregain, eta nori eman beharko dion berari gomendatu zaion artaldearen kontu.

Saia bedi, gainera, ofizioaz baino areago bertutez eta ohitura onen bidez besteen buru izaten; halako moldez non ahizpek, haren ejenpluaz eraginik, maitasunez obedi diezaioten, beldurrez baino gehiago. Ez beza eduki adiskidetasun pribaturik, ez dadin gerta, batzuk besteak baino maiteago izanik, denak gaizpidean ipintzea. Kontsola bitza atsekabetuak. Bera izan bedi nahigabetuentzat azken iheslekua; ez dadin gerta, harengan erremedio osagarritzorik ez aurkitzean, gaixoetaz etsipenezko gaitza jabetzen dela. Gorde beza orotan guztien bizimoldea, batez ere elizan, lotokian, jantokian, eritegian eta jantzietan. Eta hori bera egitera behartua bego Bikaria ere.

12 Abatisa beharturik dago astean behin bedere bere ahizpak kapitulura deitzera. Eta han, bai berak eta bai ahizpek ere aitor bitzate humilki falta arrunt-agirikoak eta zabarkeriak. Eta monasterioaren probetxu eta onerako trata beharreko diren gauzak bere ahizpa guztiekin trata bitza. Izan ere frankotan hoberena xumee-nari agertzen baitio Jaunak.

Ez beza zor larririk egin ahizpa guztien oniritzia izan gabe eta agiriko premiarik gabe, eta egitekotan, prokurateore baten bidez.

Begira bezate abatisak eta ahizpek ez dezatela monasterioan gordairurik har, zeren gauza hoietarik sarritan kezkak eta eskandaluak sortzen baitira.


13 Elkar maitasunaren eta bakearen batasuna gordetzeko, monasterioko ofiziale guztiak ahizpa guztien oniritziaz hauta bitez. Eta era berean zuhurren artean hauta bitez zortzi ahizpa guttienez, eta hoi-entzuek kontsejuaz beharko da baliatu beti Abatisa gure bizikeraz zer-ikusi duten arazoetan. Eta on eta komenigarri dela iruditzen baldin bazaie, ahizpek badute ahala eta bai obligazioa ere, Ofizialeak eta Diskretak inoiz aldatzeko, eta haien lekuan beste batzuk jartzeko.

BOSKARREN KAPITULUA

ISILTASUNAZ, MINTZATEGIAZ ETA BURDINSAREAZ

14 Konpletetako ordutik Tertzia arte gorde bezate ahizpek isiltasuna, salbu eta monasteriotik kanpoan ari direnak. Isilik beude, gainera, beti elizan, eta lotokian, eta jantokian berriz jaten ari diren bitartean bakarrik; ez hala eritegian: han hitzegin dezakete beti ahizpek begiramenduz, erien solas eta zerbitzurako. Gainera, beti eta nunahi, adieraz dezakete, ahopetik eta labur, behar litzatekeena.

15 Ez bekie zilegi izan ahizpei mintzategian edo sarean abatisaren edo haren bikariaren baimenik gabe hitzegitea. Eta mintzategira joateko baimena daukate-nak ez bitez hitz egitera ausart, baldin han bi ahizpa presente eta entzuten ez badaude. Eta sarera joaten di-renean, presente egon bitez abatisari kontseju emateko ahizpa guztiek hautatu dituzten zortzi diskreta haietarik hiru guttienez, abatisak edo haren bikariak hartarako izendatuak. Abatisa bera eta haren bikaria ere behar-tuak izan bitez hitz egiteko arau hau betetzera. Eta sarera joate hori ez bedi oso guttitan baizik egin; atera, berriz, sekulan ere ez.



Sareari ezar bekio oial bat bar-neko aldetik, eta ez bedi idiki Jain-koaren hitza predikatzerakoan edo norbaitek norbaiti hitz egin behar diezaionean baizik. Sareak eduki be-za, gainera, zurezko ate bat, burdi-nezko bi sarraila ezberdinez, eta eus-karriz eta morroiloiz oso ongi segur-tatua; gauez baitipat egon bedi bi giltzaz itxia, eta bata abatisak eduki beza eta bestea sakristanak. Eta bego beti itxia, Otoitz-ofizioa entzu-teko eta gorago aipaturiko arrazoiengatik izan ezik.

Eta inork ere ez dio inori sarean hitz egingo eguzkia irten aurretik edo sartu ondoren.

Eta mintzategian bego beti oial bat barneko alde-tik, inoiz ere kenduko ez dena.

16 San Martinen garizuman eta garizuma nagusian ez beza mintzategian inork ere hitz egin, apaizari aitorketa egiteko edo beste agiriko premiaren batengatik ez baldin bada. Hau abatisaren edo haren bikariaren zentzu onari uzten zaio.

SEIGARREN KAPITULUA

ONDASUNIK EZ EDUKITZEAZ

17 Nik penitentzia egin nezan gure Aita San Frantzisko dohatsuaren ejemplo eta irakaspenaz zeruko Aita gorenak nere bihotza bere graziaz argitu zuenean, haren konbertsioetik denbora gutira, gogo onez, nere ahizpekin batean, obediencia hitz eman nion.

Eta ikusirik Aita dohatsuak ez zela ez pobretasunik, ez nekerik, ez penarik, ez mezpzeziorik, ez munduaren arbuiorik guk beldur genuenik, baina guzti hori atsegin handitzat jotzen genuela, errukiak eraginik bizimoldea idatzi zigun era honetara: “Goi-inspirazioz Ebanjelio santuko perfezioaren arabera bizitzea hautatuz Errege handi eta zeruko Aitaren alaba egin eta Espiritu Santuari esposatu zatzaizkiotenez gero, nahi dut eta hitz ematen dut, bai neronen bidez eta bai neure fraideen bidez ere, beti zuen axola arduratsua eta kontu apartekoa izango dudala, neure Anaiena dudan bezalaxe”. Eta guzti hori arduraz bete zuen bizi izan zen artean, eta bere fraideek ere beti hala egin zezaten nahi izan zuen.

18 Eta onartu genuen pobretasun guztiz santutik inoiz ere aparta ez gintezen, ez gu eta ez gure ondoren etortzeko zirenak ere, hil baino lehentxeago bere azken

borondatea idatzi zigun berriro, esanez: “Nik Frai Frantzisko ttipi honek nahi dut Jesukristo gure Jaun guztiz handiaren eta haren Ama guztiz santuaren bizitza eta pobretasuna segitu eta azkeneraino hartan iraun. Eta erregutzen dizuet, ene andreoi, eta bai kontseju ematen ere, beti bizitza eta pobretasun txit santu horretan bizi zaitezteela. Eta har zazue konturik handiena inoren irakaspenez edo konsejuz ez zaitezten sekula hartarik aparta, ezta gauzarik ttipienez ere”.

Eta nik, neure ahizpekin batera Jainko Jaunari eta Frantzisko dohatsuari agindu genien pobretasun santua gordetzen beti arduratsu izan nintzen bezala, era berean



behartuak bitez nere ofizioan ondotik etorriko diren abatisak eta ahizpa guztiak azkeneraino huts egin gabe gordetzera, hau da: ez ondasunik eta ez jabetzarik ez dezatela ez har eta ez eduki ere, ez berenez eta ez beste inoren bitartez ere, ez eta arrazoinenez jabetza bezala har daitekeen ezer ere, monasterioaren honestasunerako

ko eta bakardaderako behar den ainako lur puxka bat besterik: eta lur hori ez bedi lant monasterioko ahizpen beharretarako baratza bezala izan ezik.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

LAN EGITEKO ERAZ

19 Jaunak emanik, lan egiteko grazia duten Ahizpek, Tertziako orduaren ondoren, lan honest eta guztientzat on den batean jardun bezate zintzo eta debotki, modu honetara, ordea: arimaren galgarri den alferkeria uxatuz, eta otoitz santuaren eta debozioaren espiritua ez itotzeko arduraz, zeren horri behar baitiote lagundu gainerako gauza guztiek.

Eta abatisa edo haren bikaria behartuak bitez, kapituluan, guztien aurrean, esku lanak banatzera. Orobat egin bedi inorengandik ahizpen beharretarako limosnaren bat etorriko balitz, hartaz oroitzapena batasunean egin dadin. Eta limosna guztiok guztien onerako parti bitza abatisak edo haren bikariak, Diskreten kontsejuaz.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

AHIZPAK EZ DAITEZELA EZEREN JABE IZAN, ETA
LIMOSNA ESKATZEAZ, ETA GAIXORIK
DAUDEN AHIZPEZ

20 Ahizpek ez bezate gauzarik berentzat har: ez etxe, ez lur, ez beste ezer; eta erromes eta bidazti antzo lurrian, Jaunari pobretasun eta apaltasunean zerbitzatuz, bidal bitzate limosna eske beldurrik gabe. Eta ez bitez lotsa, Jauna ere guregatik pobre egin zenez gero mundu honetan. Hau da zeharo pobre izatearen bikaintasuna. Honek egin zaituztee, ene ahizpa guztiz laztanak, zeruko erresumaren jabegai eta erreginak; gauzez behartsu, baina bertuteetan aberats. Hau izan bedi zuen senipartea, bizidunen lurraldera daramana. Eta honi, ahizpa maite-maiteak, oso-osorik atxikiak izanik, Jesukristo gure Jaunaren eta haren Ama guztiz santuaren izenean, ez dezazuela sekulakotz beste ezer zerupean eduki nahi.

Ez bekio zilegi izan ahizpetarik inori abatisaren baimenik gabe eskutitzak bidaltzea, edo zerbait hartzea, edo eta zerbait monasteriotik kanpora ematea. Ez eta ere, ez bedi zilegi izan abatisak eman edo utzi ez duen gauzarik edukitzea. Eta inori senitartekoek edo bestek zerbait bidal baliezaiote, eman araz biezaio abatisak. Eta hark, premia baldin badu, erabil dezala; eta ez badu, eman diezaiola premian dagoen ahizpari. Baina dirurik bidal balekio, abatisak, Diskreten aholkuaz, horni araz beza behar dituen gauzez.

21 Ahizpa gaixoen kontuan, abatisa bego estuki behartua, bai berez bai beste ahizpen bidez, haien eritasunak zer eskatzen duen ikastera, bai kontsejuetan, bai janarietan eta bai gainerako beste beharrezkoetan ere, eta tokiko ahalmenen arabera maitasunez eta errukiz hornitzera. Izan ere, guztiak daude behartuak ahizpa gaixoak horni eta zerbitzatzera, berei egitea nahiko luketen bezalaxe, baldin eritasunaren azpian baleude.



Eta beldurrik gabe azal biezazkiote elkarri beren estuasunak. Izan ere, amak haragizko bere alaba hazi eta maite baldin badu, zenbatenaz gehiago Ahizpak ez ote du maite eta hazi beharko bere Ahizpa espirituala?

Lastairetan etzan bitez gaixoak, eta eduki bitzate bururako lumazko oheburukoak, eta artilezko galtzerdiak eta koltxoiak behar dituztenek, erabil ditzakete.

Eta gaixo hoiek, monasteriora bisitatza sartzan direnei, hauek hitz egiten dietenean, erantzunezko hitz on batzuk laburki erantzun diezazkiekete. Eta baimena duten beste ahizpek monasterioan sartzan direnei ez biezate hitzik egin, ez baldin badaude han presente eta entzuten abatisak edo haren bikariak izendaturiko bi ahizpa zuhur. Eta abatisa eta haren bikariak ere hitz egiteko era hau berentzat gordetzera behartuak beude.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

AHIZPA BEKATARIEI EZARRI BEHAR ZAIEN PENITENTZIAZ, ETA MONASTERIOTIK KANPORA ZERBITZATZEN DUTEN AHIZPEZ

22 Ahizparen batek, etsaiak zirikatutik, gure profesioko bizikeraren kontra bekatu mortala egin baleza;

eta abatisak edo beste ahizparen batek bitan edo hirutan oharrak eginik, zuzenduko ez balitz: zenbat egunetan bere teman egon den, beste hainbestetan jan beza ogia eta ura lurrean ahizpa guztien aurrean, jantokian; eta oraino zigor larriagoa eman bekio, abatisari hala irudituko balitzaio; eta bere teman iraun dezan bitartean, egin bedi otoitz Jaunak haren bihotza argi dezan penitentzia egiteko. Baina abatisak eta haren ahizpek begira bezate ez daitezen inoren bekatuagatik haserre edo beren onetik atera. Izan ere, haserreak eta asaldurak karitatea galerazi ohi du, bai norberagan eta bai besteengan ere.

23 Inoiz gerta baledi —Jainkoari nahi ez dakio-laila!— bi ahizparen artean, hitzez nahiz keinuz, liskar-biderik edo gaizpiderik sortzea, liskarbidea jarri nahi duenak, berehala, bere bihotzeko oparia Jaunari eskeini baino lehen², bestearen oinetan barka eske ahozpeztuko da, eta gainera Jaunari berarentzat barkazioa eskatzeko erregutuko dio apalkiro. Eta besteak, berriz, gogora bitza Jaunaren hitz haiek: *Zuek bihotzez barkatzen ez baduzue, zeruko zeuen Aitak ere ez dizue barkatuko*³, eta bere ahizpari bihotz zabalez barka biezaio irainak oro.

42 Monasteriotik kanpora zerbitzatzen duten ahizpak ez bitez luzaro kanpoan egon, premia ageri batez ez bada. Eta honeski behar dute ibili eta gutti hitz egin, ikusleentzat ejemplo on gerta daitezen. Eta har bezate konturik handiena susmo txarreko traturik edo harremanik eduki ez dezaten inorekin. Eta ez bitez gizon nahiz emakumeen amabitxi izan, hori dela eta zer-esana edo gaizpidea sor ez dadin.



2. Ikus Mt 5, 23.

3. Mt 6, 15.

Ez eta ez bitez munduko kontuak monasterioan kon-
tatzeraz ausart. Eta garrazki debekatua eduki bezate
barnean esaten edo egiten diren eta gaizpidea sor araz
lezakeen gauzarik monasteriotik kanpoan kontatzea. Eta
inork bi gauza hauetan sinplekeriaz huts egin baleza,
abatisaren zentzu onari bego halakoari penitentzia erru-
kiz ezartzea. Baina hori egiteko ohitura gaiztoa baleu-
ka, erruaren neurriko zigorra ezar biezaio abatisak,
Diskreten kontsejuaz.

HAMARGARREN KAPITULUA

AHIZPEI EGIN BEHAR ZAIZKIEN ZUZENKETA ETA ABISUEN GAINEAN

25 Abatisak bere ahizpei egin biezazkiete ikustal-
diak eta abisuak, eta zuzen bitza humilkiro eta kari-
tatez, haien arimaren eta gure bizimoldearen aurka den
gauzarik haiei agindu gabe. Menpeko diren Ahizpek,
berriz, gogora bezate Jainkoagatik beren borondateak
ukatu zituztela. Beraz, estuki beude beren abatisei obe-
ditzera behartuak Jainkoari eskeini zizkioten gauza de-
netan eta arimaren eta profesatu dugunaren aurkakoak
ez direnetan.

Eta abatisak eman biezaie aski zabaltasun andreek
beren neskamearekin bezalaxe esan eta egin ahal iza-
teko. Izan ere, halaxe behar da: abatisa ahizpa guz-
tien neskame izatea.

26 Arren eta arren eskatzen dut Jesukristo Jau-
nagan, begira daitezela ahizpak inongo eta inolazko
harrokeriatik, handiuste, ondamu, gutizia, mundu hone-
tako kezka eta gehiegizko arduretarik, gaizki esate eta
marmarrean aritzetik, eztabaida eta zatiketetarik. Aitzi-
tik, izan bitez lehiatsu perfezioaren lokarri den elkar
maitasunaren batasuna bata besteekin beti gordetzen.

Eta eskolarik ez dakitenek, ez bezate eskola ikastea-
ren kezkarik izan; baina jar bezate kontu guztia Jau-

naren Espiritua eta haren egintza santua eskuratzen, Hari beti bihotz garbi batez otoitz egiten, humiltasuna iristen, eta persekuzio eta gaixoardian pazientzia izaten; eta guri gaitz, haserre eta errita egiten digutenak maitatzen, Jaunak esaten duen bezala: *Maita zeuen etsaiak, eta erregu, persegitzen eta beztutzen zaituzteenen alde*⁴. *Zorionekoak zuzentasunagatik persegituak direnak, zeren zeruko erresuma hoienna izango baita*⁵. Azkeneraino irauten duena, huraxe salbatuko da⁶.

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

KLAUSURA GORDETZEAZ

27 Atezaina izan bedi ohituretan heldua eta begiratu, eta adinetakoa, eta egunez egon bedi han, ate gabeko gela idiki batean. Eduki beza, gainera, lagun egoki bat hartarako izendatua, behar denean orotan haren ordezeko izan dadin.

Atea ongi sedotua egon bedi, bi sarraila ezberdinez, euskarriz eta morroiloiz; gauez batez ere bego bi giltzaz itxia, eta abatisak eduki beza bat eta atezainak bestea; eta egunez ez bedi inolaz ere zaintzaile gabe utz, eta giltza batez ongi itxia bego.

28 Eta har bezate konturik handiena eta saia bitez atea inoiz ere zabalik ez edukitzeko, ahalik eta denborarik gutienez izan ezik, taxuaren arabera. Eta sartu nahi duen edozeini inolaz ere ez bekio idiki, Aita Santuaren edo gure Kardenal jaunaren baimena eman zaionari baizik. Eta eguzkia irten baino lehen monasterioan sartzen, edo eguzkia sartu ondoan norbait barnean egoten ez bezate utz Ahizpek, arrazoi nabari, egoki eta noraezeko batengatik ez baldin bada.

Abatisaren bedekaziorako edo ahizparen bat mojatzat sagartzeko edo bestetarako Apezpikuren bati

4. Mt 5, 44.

5. Mt 5, 10.

6. Mt 10, 22.

barnean meza emateko baimena emango balitzaio, kontenta bedi ahalik eta laguntzaile eta zerbitzaririk gutienekin eta garbienekin.

Eta batzuren batzuek obraren bat egiteko monasteriora sartu beharra balute, orduan abatisak arretaz jar beza ate ondoan pertsona egoki bat, obrakoei soilki zabal diezaien, eta ez beste inori.

Eta konturik handienaz begira bezate Ahizpa guztiek sartzen direnez ikusiak izan ez daitezen.

HAMABIGARREN KAPITULUA

BISITATZAILEAZ, KAPEILAUAZ ETA KARDENAL ZAINDARIAZ

29 Gure Bisitatzailea izan bedi beti Fraide Txikarren Ordenakoa, gure Kardenalaren borondate eta agindua-
ren arabera. Eta haren zintzotasun eta ohiturak guztiz ezagunak izan bitez. Haren egitekoa hauxe izango da: gure bizikeraren aurkako hutsegiteak zuzendu, hala buruan nola gorputz zatietan. Eta zilegi izan bekio hari, leku ageri batean egonik —besteek ikus dezaketen eran—, guztiekin eta bakoitzarekin bisitatzeko ofizioari dagozkion arazoez hitz egitea, egokien irudi lekion bezala.



30 Eta nola aipaturiko Fraide Txikarren Ordenatik urrikar-
riz beti izan baitugu kapeilau bat fama eta zuhurtzia oneko beste lagun batekin eta bi anaia laiko, bizitza eta honestasun santuaren lagungarri, Ordena berari eskatzen diogu, Jainkoaren eta Frantzisko dohatsuaren amorioagatik mesede hori guri egiten jarrai dezala.

Ez bekio zilegi izan kapeilauari lagunik gabe monasterioan sartzea; eta sartzean, beude leku ageritan,

batak bestea beti ikus ahal dezan eta besteez ikusiak izateko eran. Mintzategira joaterik ez daukaten gaixoen aitorketa entzuteko, Jauna emateko, gaixoen oliodura emateko eta arimaren gomendioa egiteko sar daitezke.

Hileteetarako eta hildakoen meza nagusietarako, hilibia idikitzeo nahiz prestatzeo, berriz, beharrezko eta egoki diren pertsonak sar daitezke, abatisak aginduko duenaren arabera.

31 Honetaz gainera, ahizpak erabat behartuak beude Jaun Aita Santuak Fraide Txikarrei eman diezaien erromatar Eliza santuko Kardenal hura gure zaindari, gobernari eta zuzentzaile bezala edukitzera. Eta hori asmo honekintxe, alegia: behin betiko eskeini genituen pobretasuna, humiltasuna eta Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio santua, Eliza santu honen beronen menpean eta oinetan beti egonik, eta fede katolikoan iraunkor izanik, gorde ditzagun. Amen.

Perusan emana, irailaren hamaseian, Jaun Inozentzio Aita Santu IV.aren Aita Santugoaren hamargarren urtean.

32 Inori ere ez dakiola zilegi izan guk ontzat emandako orri hau haustea edo berari ausarkeriaz kontra egitea. Eta baldin baten batek horrelako atrebentziarik balu, jakin beza halakoak Jainko guztiz Ahaltsuaren eta haren Apostolu Pedro eta Paulo dohatsuen haserreaz izango duela bere gain.

Asisen emana, abuztuaren bederatzian, gure Aita Santugoaren hamaikagarren urtean.

SANTA KLARAREN TESTAMENTUA

Hasera batean, Frantziskok emandako "Bizimolde"aren eta beste erakutsien arauera bizi izan zen Klara San Damianen bere ahizpekin, hau da, Ebanjelioaren pobretasun osoan. 1215-ko Letrango IV-garren Kontzilioaren ondorioz, San Benitoren Araudi-pean legeztatuak izan ziren arreba pobreak.

Klarak orduan —22 urte inguru zituen—, pobretasun goi-goikoaren idealari eutsi ahal izateko, "Pobretasun pribilejioa" deritzaiona iritsi zuen Inozentzio III-garrenagandik San Damiano komenturako. Pribilejio hori inolako jabetzarik ez edukitzea zen, ezta elkartearen izenean ere, eta bizitzeko ondasunak pobretasun estuan erabiltzea. Eskubide hau beste hiru moja txek ere lortu zuten.

Geroago Gregorio IX etorri zen, 1219-an Erregla berria asmatu zien Hugolino kardenal izana. Honek zaillegi ikusten baitzuen arreba behartsuen bizikera, ondasunak eta errentak eskaini zizkion Perusa-ko monastegiari. Eginahalak egin zituen Klarak berak ere pobretasun pribilejioa utz zezan; berak askatuko zuela pobretasun hartatik esan zion. Eta Klarak erantzun: "Aita Santua, ez nuke sekula nahi Kristori jarraitzearen zorionetik askatua izatea" (Legenda 14).

Orduko klaratar monastegiak Hugolino-ren Kostitutuzio-pean bizi ziren, oinarri kanoniko bezala San Benitoren Erregla zutelarik. Frantziskoren Ebanjelio ikuskerak ez zuen, beraz, haietan harrera gehiegirik. Eta honek min ematen Klarari; zuzendu nahi zuen nolabait.

1247-an Inozentzio IV-garrenak Erregla berria ematen die klaratar denei, 1219-koaren eratsukoa. Eliz-lege aldetik —eta hauxe zuen batez ere berri— San Frantziskoren Erreglan oinarritzen zen. Araudi hontantxe egingo zuten aurrerantzean profesa; baina —kontraesana dirudi— ...ondasunak eta errentak jabetzan hartzea zilegi zitzaien.

Azken erabaki honek nahigabea ekarri zion noski Klarari, eta hara berak nun idazten duen bere alabentzat Testamentua. Belauniko ta gorputz-arimetan auspez, ama ta serbitzari bezala eskarzen die, behartsu egin zen Jaunaren maitasunagatik, bizi daitezela arren erabat pobre.

SANTA KLARAREN TESTAMENTUA

Jaunaren izenean. Amen.

1 Geure Aita errukitsuagandik oparoki hartu ditugun eta egunoro hartzen ari garen grazien artean —zeinengatik eskerrak eman behar dizkiogun behin eta berriz Berari—, geure bokazioa dugu bikainetakoa. Zenbat eta goratuago eta handiagoa den hau, orduan eta gehiago zordun gatzaizkio Hari. Honela dio Apostoluak: “Ezagut ezazu zeure bokazioa”¹. Jainkoaren Semea bide egin zitzaigun, eta bide hori geure Aita Frantzisko dohatsuak, haren maitale egiazko eta jarraitzaile zintzoak, hitzez eta egitez agertu eta erakutsi zigun.



2 Horregatik, Jaunak egin dizkigun mesede zoragarriak gogoratu beharrean gara, Ahizpa maiteak; eta beste askoren artean, gure Aita Frantzisko dohatsu bere mirabe maitearen bitartez gugan egin dituenak, ez konbertitu ondoan bakarrik, baina munduko zorakerietan genbiltzanean ere bai. Izan ere, Santu honek, artean ez anaiarik eta ez lagunik ere ez zuenean, konbertitu eta laster, San Damiango eliza egiten ari zela, hemen, jainkozko zoramenez aserik, mundua zeharo uztera bultzatua izan zen, eta barne pozez eta Espiritu Santuaren argiz beterik, gugatik iragarri zuen gero Jainkoak bete zuena. Orduan, bada, esaniko elizaren orma gainera igorik, han inguruan bizi ziren behartsu batzuei dehdarka honela esaten zien frantses hizkuntzan: “Zatozte eta lagun iezadazue San Damiango elizagintzan, zeren gero hemen biziko baitira zenbait emakume beren bizitza ospetsu eta santuaren bidez gure zeruetako Aita Eliza santu guztian goratuko dutenak”.

1. Ikus 1 Cor 1, 26.

3 Hontan Jaunaren guganako samurtasun handia ikus genezake. Izan ere, haren onberatasun eta maitasunagatik horrelako gauza harrigarriak esan zituen Santuak gure bokazio eta hautapenaren gainean. Eta gure Aita dohatsuak honelako gauzak ez zituen guregatik bakarrik esan, baizik eta, Jainkoak deiturik, gu bezalako bokazio santura etorriko ziren beste guztiengatik ere bai.

Nolako arduraz, bada, eta nolako gorputz-arime-tako gogoz gorde behar ditugun Jaunaren eta gure Aitaren aginduak, horrela, Jauna bera lagun, jasoriko talentua gehitua bihur diezaiogun! Jaunak berak askoren eredu ipini gintuen, erakusbide eta ispilu, ez bakarrik besteentzat, baina gure Ahizpentzat ere bai, hauek era berean munduan bizi direnentzat ispilu eta ejenplo izan daitezen. Jaunak hain gauza handietarako deitu digunez gero —besteen ejenplo eta ispilu izan behar dutenek gugan ispilu izaten ikas dezatentzat, alegia—, Jauna oparoki bedeinkatu eta goratu eta obra onak egiteko Jaunagan geroago eta gehiago indarrak hartzera behartuak gaude. Horregatik, erakutsitako bidean bizi baldin bagara, ejenplorik bikainena utziko diegu denei, eta erraz baino errazago iritsiko dugu betiko zorionaren saria.



4 Zeruko Aita gorenak, bere errukiz eta graziaz nere bihotza, penitentzia egin nezan, gure Aita Frantzisko dohatsuaren ejenplo eta dotrinaz argitu nahi izan zuenean, haren konbertsiotik puska batera, Jaunak neri neure konbertsio ondoan eman zizkidan Ahizpa guti batzuekin, gogo onez bere esanetara jarriko nintzela agindu nion, haren bizitza goragarriaz eta dotrinaz Jaunak emandako grazi-argiaren arabera.


Eta ikusirik Frantzisko dohatsuak, gorputz aldetik ahul eta flakoak ginenok, ez beharrik, ez lanik, ez atsekaberik, irainik eta ez mundukoen mezipreziorik ere ez genuela arbuaiatzen, aitzitik guztiak atsegin handitzat jotzen genituela, santuen eta bere fraideen antzera —bai berak eta bai bere fraideek ere frangotan frogatu zuten bezala—, biziki poztu zen Jauna baitan; eta gureganako errukiak eraginik, behartu zen, bai berez eta bai bere Erlizioaren bidez, gutzaz arduratzera, hau da: bere Fraideen kontu zuen bezalaxe, gutzaz ere beti kontu arduratsua eta axola berezia izatera.

Eta halaxe, Jaunaren eta gure Aita Frantzisko dohatsuaren gogoz, puska batean lehenago beste toki batean bizi ondoren, San Damiano elizara joan ginen bizitzera. Han harrigarriro ugaritu gintuen Jaunak azkar asko bere erruki eta graziagatik, horrela Jaunak santuaren bidez iragarri zuena bete zedin.

5 Ondoren, nola bizi behar genuen idatzi zigun, eta batez ere pobretasun santuan iraun genezala beti. Eta pobretasun honen alde aritu zen bere bizi denbora guztian, ez hitzekin eta egiteekin bakarrik, baina idatziak ere ugari eman zizkigun, bera hil ondoren, sekula santan hartarik aparta ez gintezen; Jainkoaren Semeak ere, bizi izan zen bitartean, sekulan hartarik apartatu nahi izan ez zuen bezala. Eta gure Aita Frantzisko dohatsuak, haren oinatzei jarraituki, beretzako eta bere fraideentzako aukeratu zuen pobretasun santua, ez zuen inola ere utzi nahi izan, ez egiteetan eta ez hitzetan, bere bizitza guztian.

6 Nik, Klarak, Kristoren eta San Damian Monasterioko Ahizpa Pobreen mirabe gauzaez eta Aita guztiz santuaren landaretxo honek, ikusirik gainerako ahizpekin batean, gure profesioaren goratasuna eta hain Aita handiaren agindua, eta baita besteen ahulezia ere, eta gure Aita hil ondoren —Jainkoa kenduz gero bera baikenuen geure zutabe eta konsolamendu bakarra— ahulezia horren menpean erortzeko zorian gertatuko

ginela, behin eta berriz eta geure gogoz Andere Pobretasunari lotu gintzaizkion, nere heriotz ondoan ere oraingo eta geroko ahizpak inolaz ere hartarik aparta ez litezkeen bezala; Jainkoari eta aita Frantzisko santuari eskeini genion pobretasun maitagarria zaintzen eta nere lagunak oro gorde zezaten ni neu arduratsua eta begiratua izan naizen bezala, karguan nere ondoren datozenak ere behartuak beude berau gordetzera eta beste denei gorde araztera. Gehiago oraindik: segurtasun handiagoak nahiz, ahaleginak egin nituen Aita Santu Inozentziok —zeinen denboran hasiak ginen— eta era berean haren ondokoek, geure Aitari agindu genion pobretasun santuko geure profesioa beren pribilegioekin finka zezaten, ez zedin gerta gu inoiz hartarik apartatzea.



7 Guzti honengatik, be-launiko eta ahozpezturik, gomendatzen dizkiet neure ahizpa guztiak, oraingoak eta gerokoak, Erromako Eliza Ama Santuari, Aita Santuari, eta bereziki Fraide Txikarren erlijiorako eta guretzako izendatzen den Kardenal jaunari. Asmo honekin gomendatu ere,

alegia: Askan pobre bezala egona, munduan pobre bizi izana eta urkabeen biloisik iraun zuen Jaun haren amorioagatik, Frantzisko dohatsuaren hitz eta ejenploekin Aita Jaunak Elizan sor arazitako artalde ttipi honi bere Seme maitearen eta haren Ama Birjina loriosaren pobretasun eta humiltasuna —Jainkoari eta Frantzisko gure Aita dohatsuari guk hitz emandako pobretasuna—, guri gorde araz diezagun, eta hartan iraun araz gaitzan, bide horretan beti bizkor ibilirik.

Eta Jaunak guri geure Aita Frantzisko dohatsua fundatzaile, landatzaile eta Kristoren zerbitzuan eta

Jainkoari eta gure Aita horri hitz emandako gauzetan laguntzatzat eman zigun bezala —eta zinez bera bizi zen arte guztian txintxoia izan zen guri bere landaretxoak garenoi hitzez eta ejenploz lagun egiten eta bultzatzen—, era berean gomendatzen dizkiet gure Aita Frantzisko dohatsuaren ondorengoari, eta erlijio guztiari, gainerako neure Ahizpa guztiak, oraingoak eta etorkizunekoak, onean beti aurrera joaten, Jainkoa zerbitzatzen, eta guztiz ere pobretasun txit santua hobe-kiago gordetzen lagun diezaguten.

8 Baina, inoizko batetan ahizpa hauek etxe hau utzi eta beste batetara aldatu beharra izatea gerta baledi, hala ere, Jainkoari eta gure Aita Frantzisko dohatsuari agindu genien pobretasun molde hura gordetzera beharturik beude, edonun direla, ni hil nadinean. Eta izan bitez beti arduratsu eta begiratuak, bai karguan egongo dena eta bai gainerako ahizpak ere, ez dezaten toki hartan baratzetako beharrezkoa den baino lur gehiago har, barazkitarako alegia. Eta inoiz monasterioaren honestasun eta bakardaderako, baratzeko hesitik haruntz lur gehiago edukitzea beharrezko balitz, behar-beharrezkoa dena baizik ez bezate izan; eta lur hori ez bedi inolaz ere lant, ez erein, baina bego larre eta landugabe.

9 Neure ahizpa guztiei, oraingo eta gerokoei, Jesukristo Jaunaren izenean arren eta arren abisatzen eta erregutzen diet: Jesukristogana bihurtu ginen hasiera hartan geure Aita Frantzisko dohatsuak erakutsi zigun bezala, xalotasun santuko, humiltasun eta pobretasun santuko bidea eta baita bizikera santu baten begirunea ere gordetzen saia daitezela beti. Horrela, ez gure merituengatik, baizik eta grazia guztien Emaille eta erruki guztien Aita dugunaren ontasunagatik, gure Ahizpek izen onaren babesean iraun dezaten beti, bertan nahiz urruti bizi direnen onerako.

Eta Kristoren maitasunaz elkar maite izanik, barnean duzen maitasun hori ager ezazue zeuen egin-

tzetan; horrela, ejenplo honen indarrez, Ahizpa guztiak maitasunean beti haziz joan daitezten.

10 Ahizpen karguan egongo denari eskatzen diot, gainera, saia dadila besteen buru izaten bertute eta ohitura santuetan, aginpidean baino areago; halako moldez non ahizpak, ejenploak eraginik, ez bakarrik obligazioz, baina amorioz obedi diezaioten. Bere ahizpekin izan bedi begiratua eta onbera, ama on bat bere alabekin izan ohi den bezala; eta batez ere, Jaunak emango dizkionetarik eta bakoitzaren beharrak eskatzen duenaren arabera, haiei banatzen ardura bedi. Eta izan bedi denekin hain bihozpera eta lagunartekoa, non bakoitzak bere premiak beldurrik gabe ager eta beragana noiznahi jo ahal dezan, bai beretzat eta bai bere ahizpentzat ere behar denaren eske, egoki dela ikus dezan bezala.

Menpeko diren Ahizpek, ordea, gogoan har bezate Jaunarengatik beren borondate propioei uko egin zizkietela. Horregatik nahi dut beren Amari obedi diezaioten, Jaunari beren gogoz hitz eman zioten bezala. Era horretara Amak, elkarrekiko daukaten amorioa, humiltasuna eta batasuna ikusirik, bere kargutik heldu zaion karga guzti hori errazkiago eraman dezan; eta berez neketsu eta garratz dena, haien jokaera santu eta zintzoagatik, pozetan bihur dakion.

11 Eta nola bizitzara daraman bidea eta bidexidorra meharra den, eta orobat bizitzan sartzeko atea ere hertsia², guti dira hartan dabiltzanak eta hartarik sartzen direnak; eta oraino batzuen batzuk denbora puska batean hartan barrena badabilta ere, guztiz bakan dira azkeneraino irauten dutenak. Zorionekoak, ordea, hartan barrena ibili eta azkeneraino irauteko grazia eman zaienak!

Begira dezagun, bada, Jaunaren bidean sartu baldin bagara, inolaz ere geure erruz, zabarkeriaz eta

2. Ikus Mt 7, 14.

ezjakinez handik sekulan aparta ez gaitezen; Jainko handia, Ama Birjina, geure Aita San Frantzisko dohatsua, zeruko Eliza eta bai lurrekoa ere irain ez dezagun, idatzirik dagoen bezala: “Madarikatuak zure aginduetarik aldentzen direnak”³.

Horregatik, Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aurrean belaunikatzen naiz, haren Ama Andre Maria Birjina zoriontsuaren eta gure Aita Frantzisko dohatsuaren eta Santu guztien irabaziei esker, Jaunak berak hasiera ona eman zigun bezala, orobat eman diezagun hazkundera eta baita betiko iraupena ere. Amen.

12 Idazki hau, hobekiago bete dadin, uzten dizuet zeuei, neure Ahizpa laztan maiteoi, oraingoei eta etorkizunekoei, Jaunaren, gure Aita Frantzisko dohatsuaren eta zuen Ama eta mirabearen bedeinkazioaren seinaleztat.



3. Ps 118, 21.

Klararen eskutitzetatik ez zaigu sortatxo bat besterik geratu. Hala ere daduzkagunak bide txit egoki gertatzen dira santaren izakera ezagutzeko ta batez ere haren erlijio pentsakera ta espiritu bizitza onura haundiz ikasteko.

Ez dira guk "eskutitz" izen-pean uste izango genituzkeenak bezalakoak, gai arruntekoak eta idazkera labur bizian emanak. Klarak esanahi goitarragoak darabiltza, ta —esan behar da— idazkera nahiko jantziz.

Gure santa Asisko familiarik onenetako alaba zen, aberats eta haundikietakoa. Emakume zelako edo, baliteke hala ta guztiz ere garai haietan etxetik eskola berezirik ez ekartzea. Celano-k bere bizitzan dioenez, "letraduna izan ezarren, atsegin zuen Klarak sermolari eskolatuei entzuten" (Legenda 37). Idazle berak, beste batean, "jakituriaz jantzia" deitzen dio (1 C 8, 18).

Zalantzarik gabe, Klarak, Jainkoaren Hitza irakurriaz, hizlari trebeei beronen adierazpena en-

tzunaz, eta batez ere Hitz horren muina otoitzean barneraino ausnartuaz, jakituria apartekoa bereganatu zuen. Ikusi besterik ez dago zeinen sakonki darabiltzen Liburu Santuetako pasarteak, espirituaren goi-argiak jasotzeko duen begi ernea, erlijio bizitzarako aolkuak emateko igartzen zaion trebetasuna...

Graziak, bestalde, ez dizu izakerak berez on duena desagiten; alderantziz, berak emana denez, harexen gainean eraikiko dizu bere dohaiezko etxe ederra. Erabat emakume ta andre ikusiko duzu Klara eskutitz hauetan, sentikera fineko, maitasunik samurrenera inor gutxi bezala zabaldua.

Idaztankera apaina ageri dute eskutitzok, irudi aukeratuz jantzia, esaaldi landuetan luzatzen dena. Ez litzake harritzekoa izango lan hortan beste norbaitek lagundu izatea.

Eskutitzetatik lau lehenengoak Praga-ko Ines dohatsuari zuzenduak datoz. Bohemiako Ottokar I-ren alaba zenuen berau. Aukera ezin-hobeak izan zituen bere errege-mailako gizakumeekin ezkontzeko: Enrike, Federiko II enperadorearen seme zenari ezkontzeko hitz emana zen gaxtetatik, Inglaterrako Enrike III-garrenak geroago ta Federiko II-garrenak berak ere emaztetarako eskatua...

Nahiago izan zuen Inesek mundu hontako bide erosoak alde batera utzi ta Gizasamerik ederrinarekin maitasunik garbienean elkartu.

1232-an iritsi ziren aurreneko frantziskotarrak Praga-ra. Erregeren alaba Ines-ek eliza bat jaso arazi zuen haientzat, eta gaiso-etxe bat ere bai ondoren San Frantziskoren izenez. Horrezaz gainera Erosle Santuaren komentua eraiki zuen 1233-an gaisotegi alboan eta klaratar arrea po-break ekarri zituen Trentotik bertan bizi zitezen. Hurrengo urtean, Pentekoste inguruan, mundua erabat utzi ta bera ere aberastasun hobeen bila hantxe klaratar egin zen. Ogei ta bederatzi bat urte zeduzkan.

Praga-ko Ines haxe izan zuen Klarak Ebanjelio pobretasuna Frantziskoren erara osoki gordetzen zintzo lagundu zion adiskide bihotzekoa. Ez zuen bera aurrez-aurre ezagutu, baina begira hemen ideal bikain baten zaletasun biziak zenbateraino elkar-hurreratu ta gozoro lotzen dituen arima santu bi hauek.

BEATA INES PRAGA-KOARI (LEHENENGOA)

Ines moja sartu zen urte berekoa duzu eskutitz hau: 1234-koa.

Titulu haundiak ematen dizkio haseran, Errege ospetsu baten alaba baita. Geroxeago "haizpa txit maite" deituko dio, "edo areago Andre txit beneragarria, Jesukristo nere Jaunaren emazte, ama ta arreba zarenez gero": Frantziskok izan duen jarraitzailerik finenaren arrazoa duzu (ikus 1. Esk 50-53).

Zorion beroak damaizkio Klarak ahizpa berriari Jesukristoren besoetaratu delako birjintasunean maitasun osoa eskainiaz, eta —ohartu honi— pobretasun guztiz santuan. Hirutan ekingo dio Klarak asperenik barrenekoenaz: Oi pobretasun zoriontsua!...

Gregorio IX, borondaterik onenaz, klaratar monastegiei ondasunak eskaintzen ibilia zen 1228-an. Perusa-ko komentuari berari (pobretasun pribilejioa zuten hiruretako bat zenuen hau) ez zen donazio bat egin zahar. Kezkatsu dabil, beraz, Klara pobretasun harri-bitxia galduko ez ote duten.

Sendotu zaitez —eskatuko dio errege-alaba pobre eginari— Kristo behartsuaren serbitzu leialean.

1 Bohemia-ko errege agurgarri eta ahaltsuaren alaba
Andere Ines beneragarri eta birjina santuari, Klara, Jesukristoren mirabe xume eta San Damian-go moja itxien monasterioko zerbitzari gauzaeza, zuri eskeintzen naitzaizu oso-osoki begirune guztiaz zeure menpeko bezala, eta betiko zoriona opa dizut.

2 Zure bizikera jainkotiar eta txit prestuaren sona aditzean —neregana ezezik mundu osora ere heldu baita—, biziki pozten naiz Jainkoagan eta alaitzen; eta ni bezala, Jesukristoren zerbitzuan bizi diren eta bizi nahi duten guztiak ere bai. Hain zuzen ere, beste inork baino errazago munduko handirasun, ohore eta goi mailak eskura zenitzakeelarik —Zesar ospetsuarekin

ezkonduaz, haren maila eta zureari zegokion bezala—, halaz ere, handibide hoiek denak baztertuz, bihotzaren gogo guztiaz pobretasun txit santuari eta gorputzeko gabeziari heldu diozu, jatorri hobeagoko Esposo batekin zeure burua elkartuz, zeinek gordeko baitu zure birjintasuna beti orbanik eta akatsik gabe.



Eta zinez, Hura maitatzen duzularik garbi gelditzen zara; eta ukitzen duzularik, are garbiago, eta Hura hartuz birjina segitzen duzu. Haren ahalmen eta agintea, inorenak baino handiagoak dira, oparotasunean bera da gailen, aurpegiz denetan ederren, maitasunez goxoen, eta dohain eta dotoreria guztietan apainena. Eta Berarekin batu zara laztanik estuenaz: Berak apaindu du zure bularra harri preziazatuz eta zure belarriak belarritako pitxiekin. Zaren guztia jantzi zaitu udaberriko edergailu dirdiratsuz. Eta santutasunaren seinaletzat urrezko koroaz koroatu du zure burua.

Horregatik, bada, ahizpa maitea, edo areago Andere txit beneragarria, nere Jaun Jesukristoren esposa eta ama eta arreba zarenez gero, ukigabeko birjintasun eta pobrezia txit santuaren banderaz gailurtua: zaude sendo hain suharki eta gogotsu hasi duzun Kristo gurutziltzatu behartsuaren segizioan. Hark gu guztiongatik gurutzeko pena jasan zuen, ilunpe guztien buruzagi gaiztoaren menpetik ateratzen gintuelarik, eta gure lehen gurasoen bekatuagatik katigu geundenok Jainko Aitarekin baketu gintuen.

3 Oi pobretasun zoragarria, maitatzen eta besarkatzen dutenak, sekulako ondasunez betetzen baititu! Oi gabezia santua, berau onartzen eta desiatzen dutenei Jainkoak zeruko erreinua agintzen, eta betiko loria eta bizitza zoriontsua ematen baitie! Oi jainkotiar pobre-

tasuna, zein Jesukristo Jaunak —zeru-lurrak zaintzen zituen eta dituenak, eta bere esate hutsaz dena egin zuenak—, beste gauza guztien gainetik besarkatu nahi izan baitu! Izan ere —Berak esan zuen bezala—, azeriek badituzte beren gordelekuak eta aireko hegaztiek beren kabiak, baina Gizonaren Semeak, Kristok alegia, ez du etzateko tokirik¹, eta burua makurtuz eman zuen azken arnasa².

Orain, bada, halako Jaun handiak Birjinaren sabe-lera etorritz, mezpreziatua, on behar eta pobre munduan agertu nahi izan bazuen, era horretara gizonak —xoil lander eta behartsu zirenak—, zeruetako erreinuaren jabetzaz jabe zitezen, orduan salto egizu pozaren pozez eta alai zaitez barneko pozik lasaienaz eta espirituaren alegantzirik handienaz.

Zuk ere munduko ohorea baino haren arbuioa nahia-go izan duzu, munduko ondasunak baino gehiago po-bretasuna, eta lurrean baino gehiago zeruan gorde nahi izan duzu altxorra, non ez herdoiak eta ez zerrenak ez baitute jaten, eta ez lapurrek ere zulatzen eta ostutzen³. Era horretara seguratua duzu ordain guztiz oparoa ze-ruan, eta irabazia duzu Aita Goren eta Ama Birjina loriosaren Semearen arreba, esposa eta ama dei zai-tzaten.

⁴ Segurtzat daukat zuk badakizula ongi zeruetako erreinua ez diela Jaunak agintzen eta ez ematen ere pobre direnei baizik⁴. Izan ere, izaki tenporala maite den bitartean karitatearen frutua galdu ohi da. Eta halaber, ez dela posible Jainkoa eta ondasunak zerbi-tzatzea, ezen edo bata maite da eta bestea gaitzesten, edo eta bata zerbitzatzen eta bestea higuintzen⁵.


Eta orobat, ez dela posible biloisik dagoenarekin borrokatzea, zeren aguroago lurrera jaurtia baita nondik heldu daukana; eta era berean ez dela posible hemen

1. Mt 8, 20.
2. Jo 19, 30.

3. Mt 6, 20.
4. Ikus Mt 5, 3.

5. Mt 6, 24.

munduan harroputz bizi eta gero han Kristorekin errege izatea. Eta errazago dela kamelu bat jostorratz baten zulotik igarotzea, aberats bat zeruetako erresumara igotzea baino⁶.



Horregatik arbuiaitu dituzu zeure jantziak —hau da, munduko ondasunak—, borrokan garaitua gerta ez zaitezen, eta bide mehar eta ate estutik zeruko erreinura sartzeagatik⁷. Hau da, izan ere, traturik haundi eta abantailatuena: gauza tenporalak sekulakoen truk uztea, lurrekoen ordain zerukoak irabaztea, baten ordain ehun jasotzea, eta betiko bizitza dohatsuaren jabe egitea.

⁵ Horregatik, zure bikaintasun eta santutasunari, ahal dudan bezala erregutu nahi izan diot humilki Kristoren erraietan, arren, sendo egon zaitezen Beraren zerbitzuan, onetik hoberenera igoaz, bertutetik bertutera, bihotz guztiaz zerbitzatzen duzun horrek, hain gogotik itxaro duzun saria eman diezazun.

Halaber erregutzen dizut Jaunagan, ahal nezakeen indarraz, zure mirabe ezerez hau eta monasterio honetan nerekin bizi diren eta hainbeste maite zaituzten beste moja guztiak ere gogoan izan ditzazula zeure otoitzetan, zure laguntza hori dela medio, Jesukristoren errukia merezi eta zurekin batean betiko zoriona irits dezagun.

Adio Jaunagan, eta erregu nere alde.

6. Mt 19, 24.

7. Ikus Mt 7, 14.

BEATA INES PRAGA-KOARI (BIGARRENA)

*1234-1239 bitartean idatzia; eta zehatzago jar-
tzen dutenez, 1235-1236 bitarte hortan.*

*Badu data-hauzi honek bere zerikusia esku-
titzaren gaiarekin. Hugolino izanaren eskua Pra-
ga-ra ere iritsi zen aldi haietan. 1235-garren urtean
eskatzen dio hain zuzen Aita Santuak Inesi gorde
ditzala ordurarteko ondasunak beren bizi premie-
tarako. Oroitu Praga-ko klarisa-etxea 1219-ko Erre-
gla-pean zegoela, San Benitoren Araudi barnean.
Lege aldetik zilegi zitzaien, beraz, ondasunen ja-
betza.*

*Klarak ezagutzen baitzituen nunbait Inesen po-
bretasun gogoak, arren eskatzen eta aolkatzen dio,
oparitan eskaini zaion Harenganako maitasuna-
gatik, eutsi diezaiola lehenengo erabakiari: Fran-
tziskoren eredura, pobretasun osoan bizitzea noski.
Erne aukeratu-bidetik saiestu zaitzakeenarekin! On-
dotxo zekien bai Klarak horrelakoren berri.*


*Begira —dio— zuregatik erdeinagarri egin de-
nari: ikus, gogora, eman bihotzera zuregatik he-
riotzarainoko oinazetan dagoen zeure Senarra. Hor
duzu pobretasun aldatzari ekiteko kemena.*

1 Erregeen Erregearen alabari, jaun guztien Jauna-
ren mirabeari, Jesukristoren esposa txit onari eta beraz
erregina argi Andere Ines-i, Klara-k, moja pobreen zer-
bitzari apal eta hutsak agur dagio eta egiazko pobrezian
bizi dadila opa.

2 Eskerrak bihurtzen dizkiot graziaren Emaileari
—zeinengandik sinesten baitugu heldu dela emaitza bi-
kain oro eta dohain on guztia⁸—, zeren Hark hainbeste
bertuteren agiriez eta hain santutasun handiaren gora-
tasunaz hornitu baitzaitu, era hortara, guztiz santu den
Aitaren jarraitzaile zintzo izanik, zu ere santu izatera
iritsi zaitezten, eta ez dadin gerta Haren begiek zугan
deus makurrik ikustea⁹.

8. Jac 1, 17.

9. Ikus Ps 138, 16.



Hau da santutasun hura, zeini esker Errege berak beretzat hartzen baitzaitu zeruetako bizilekuan, nun baita izarrez inguraturiko aulkian jarria. Izan ere, lurreko erreinua gutietsiz eta erregearekin ezkontzeko aukera ezertan ez edukiz —pobretasun txit san-

tuaren maitale sutsu bezala—, humiltasun handiz eta karitate suhar batekin, esposatu zinen Horren oinatzai jarraitzera lotu zara.

3 Bertutez hain betea ikusten zaitudanez gero, alferriko hitzekin asper ez zaitzadan ez naiz luze mintzatu, nahiz eta zuk pozbide ekar dezakeen oro alferrekotzat ez eduki. Halaz guztiz, nola gauza bat bakarra baita ezinbestekoa¹⁰, hauxe bakarrik gogoratu eta erre-gutu nahi dizut opari santu eta atsegingarri bezala zeure burua Nori eskeini diozun, Haren amorioagatik: beste Rakel bat antzo¹¹, alegia, zeure erabakia gogoan edukiz eta zeure hasiera behin ere ez ahanztiz, gorde dezazula daukazuna, egiten duzuna egin dezazula, ez dezazula amorerik eman. Aitzitik ibilkera lasterraz, urrats arinaz, beti errime, pozkor eta alaitsu zorionaren bidean barna arduraz ibil zaitezela, zure oinek behaztoparik egin ez dezaketan moduan, ezta bideko hautsa bera ere itsats ez dakizun eran.

Eta ez zaitezela inorekin ere fida, eta ez sinesterik eman zeure asmotik okertu edo zeure bide horretan oztopoak jarri nahi dizkitzun edozeini; ez dadin gerta Jaunaren Espirituak deitu zaituen perfezio haretan bi-zitzeko botoak Jaunari ez bihurtzea¹².

4 Baina Jaunaren aginduen bidetik segurkiago ibil zaitezen, segi ezazu gure Aita beneragarri Anai Elias,

10. Lc 10, 42.

11. Ikus Gen 19, 16.

12. Ps 49, 14.

Ministro Jeneralaren kontsejua. Ipin eazula haren esana beste edozeinena baino lehenago, eta estima ezazu erregalorik handiena baino estimagarriagotzat. Eta inork zure perfezioa galeraz lezakeen edo zure jainkozko bokazioaren kontra dihoan zerbaite esan edo aditzera eman baliezazu, ez zaiozu, arren, kasurik egin —nahiz eta errespetoa zor berari—, baina zuk, birjina pobre bezala, Kristo pobre lastan ezazu.

Begira ezaiozu Hari, zuregatik higuingarri eginik den Hari, eta jarrai zakizkio, zuk ere zeure burua mundu hontan higuingarri egiten duzularik. So egiozu, kontsidera eta kontenpla ezazu, imitatzeko asmoz, oi erregina guztiz prestu horrek, zeure Esposoa, giza semen artean ederrena¹³, zu-zeu salbatzeagatik gizone-tan itsusiena bihurtua, mezipreziatua, zauritua eta gorputz osoan alde guztiz zehatua eta gurutzeko oinazeen artean hila.

Haren penetan parte hartzen baldin baduzu, haren erreinuan ere orobat izango duzu parte. Minetan laguntzen badiozu, pozetan ere lagunduko diozu. Harekin batean gurutzeko larrialdian hil bazaitez, era berean santuen bizilekuen jabe gertatuko zara betiko jauregietan, eta zure izena, bizitzako liburuan idatzia, ospetsu izango da gizonen artean.

Izan ere betirako izango duzu, mendez-mende, lurreko ohore iheskorren ordain, zeruko erreinuaren loria. Ondasun txalkorren ordain, sekulako onen partaide izango zara, eta gizaldi eta gizaldietan bizitzea izanen duzu.

5 Adio, ahizpa maite, eta are —zeure Esposoa den Jaunarekin duzun har-emanagatik— Etxekoandere ere, gomenda gaitzazu Jaunari zeure otoitz beroetan, bai ni eta bai ene ahizpak, Jaunak, bere grazia dela bide, zугan obratzen dituen onengatik hainbeste poztan baikara. Baita zure ahizpei ere, otoi, beroki gomenda gaitzazu.

13. Ps 44, 3.

BEATA INES PRAGA-KOARI (HIRUGARRENA)

Klararen antzera, Ines ere ez zegoen erabat konforme Hugolinoren Erreglarekin: frantziskotar espiritua gertuagotik bizi nahi zuen. Hala 1238-ko apirilean eta Gregorio IX-garrenagandik "pobretasun pribilejioa" lortu zizun berak ere Praga-ko monastegiarentzat.

Bere komenturako Erregla berria eratzen saiatu zen gainera. Hartarako Frantziskok Klarari emandako "Bizimoldea" hartu zuen oinarritzat, San Damiango usarioez osatzen zuelarik eta 1219-ko Erreglatik zenbait atal ere sartuaz.

Une hontantxe idazten dio Klarak hirugarren eskutitz luzeen hau Ines Praga-koari. Beronen lor-keta zorionekoen albistea ("de succesibus prosperis") iritsi baitzaio, pozaren eztitan idatziko dizkio letra hauek. Pobretasun pribilejioarena du nune bait Klarak gogoan.

Alaitzen da Klara horregatik. Betikotasunaren ispilu Kristoren aurrez-aurre ipintzen du Ines, Harexen dirdaietan blaitu, Harexekin elkartu, Semerik aberats ederrenagan goza dadin. Apaltasun eta pobretasunez batez ere, gorputz kutsagabeaen Kristoren ama bihurtuko zara, Birjina bezala.

1 Kristogan Andere guztiz agurgarri eta bizidunetan maitagarriena den Ines ahizpari, Bohemia-ko erregeren arreba, orain berriz zeruetako Errege goienekoaren arreba eta esposa denari, Klara, Kristoren miraberik apalen eta ezgaien, Andre Pobreen zerbitzariak, osasunaren poza opa dizu Jaunagan, eta bai opa daitekeen onik hoherena ere.

2 Zure ongi izateak, egoera zoriontsuak, eta zeruko saria irabazteagatik hartu zenuen bidean sendo irauten duzula jakiteak hain pozten naute, eta hain da handia hargatik Jaunagan nabaitzen dudan atsegina, non uste baitut Jesukristo pobre eta humilaren urratsen segizioan miragarriki osatzen dituzula bai nere hutsak eta bai nere ahizpenak ere.

Zinez, poz hartzekoa da, eta inork ere ezin ken diezadake pozbide hau. Izan ere, zerupean amets nuena egia bihurtua ikusten baitut. Ikusten dut, alegia, nola, Jainkoaren beraren ahotik irtendako jakinduriaren dohain harrigarri batek eutsirik, etsai asmutsuaren amarruak harrigarriro eta uste ez bezala garaitzen dituzun. Ikusten dut nola giza naturalezaren harrokeria galgarria eta gizonen bihotzak ergeltzen dituen handiustea azpiratu duzun.

Eta ikusten dut halaber nola, munduko eta giza bihotzen landan ezkutaturiko altxor paregabea¹⁴ —zeinekin dena ezerezetik egin zuen Egilea bera erosten baita—, humiltasun, fede eta pobreziaren besoez besarkatzen duzun. Era horretara, Apostoluen hitzez balia nadin¹⁵, Jainkoaren beraren lankide eta haren Gorputz mistikoaren zati argal eta erorikoen altxatzaile bezala jotzen zaitut.

³ Eta pozbide guzti hoiek izanik, poz hartzea nork galeraz diezadake? Poz zaitetz zu ere beti Jaunagan, ene kutun hori; saminak eta lainoak ez zaitzatela sekula ingura, oi Andere Kristogan guztiz maite, aingeruen alaitasun eta ahizpen koroia zaren hori! Jar ezazu zeure gogoia betikotasunaren ispiluan, jar ezazu zeure arima loriaren distiran, jar ezazu zeure bihotza jainkotasunaren irudian¹⁶, eta zu zerori, zaren guztia, bihur zaitetz kontenplazioaren bidez Jainko horren berorren irudi¹⁷. Era hortara adiskideek dastatzen duten gozotasuna zuk ere dasta dezazun —Jainkoak berak hasieratik bere maitaleentzat gorderik duen gozotasuna, alegia—.

Eta mundu koloka eta engainagarri honetan maitaleitsuak katiatzen dituen oro alde batera utzirik, bete-betean eta osoki maita ezazu zeure amorioagatik bere burua eman zuen Hura, zeinen edertasuna eguzki eta ilargiak miresten baitute, zeinen sari oparo eta beroien estimazio eta handitasunak ez baitu akaburik.

Badakizu, noski, zein esan nahi dudana: Jaun Gore-

14. Mt 13, 44.

15. 1 Cor 3, 9; 2 Cor 8, 11-14.

16. Hebr 1, 3.

17. 2 Cor 3, 18.

naren Semea, Birjinak erditu zuena, erditze ondoan birjina gelditurik. Haren Ama gozoari itsats zakizkio, halako Semea sortu zuenari, alegia, zeruetan kabitzen ez eta hala ere hark bere sabel santuko itxitura estuan hartu eta ekarri baitzuen.

Nork ez ditu gorrotatuko gizonen etsaiaren arteak, munduko huskeria iheskor eta engainagarriez zerua baino handiagoa dena guri kendu nahiz baitabil?

4 Gauza jakina da Jainkoaren graziaz gizonaren arima —izakietan bikainena—, zerua bera baino handiagoa dela. Izan ere, zeruak beste izaki guztiekin ezin baitu Egilea hartu, eta arima, aldiz, haren egoitza eta bizileku bihurtzen baita, eta hori gaiztoek ez duten karitateari esker soilki, Egiak berak dion bezala: *Ni*

*maite nauena, maite izango du nere Aitak, eta nik ere maite izango dut, eta horrengana gu etorri, eta beragan geldituko gara*¹⁸.



Birjinen Birjina loriosak materialki bezala, zuk ere, haren oinatzetxei jarraikiz —humiltasun eta pobreziaren oinatzetxei batez ere—, espiritualki ekar zenezake beti gorputz garbian. Inguratzen zaituena eta

guztiak inguratzen dituen ingura zenezake, eta beste ondasun igarokor guztien aldean trinkoago den zerbait eduki dezakezu.

Munduko errege eta erregina batzuk engainatzen dira. Beren harrokerian zeru goietaraino igoko balira ere eta buruaz hodeiak jo, azkenean zimaurretgi bihurtzeraino etorriko baitira.

18. Jo 14, 21-22.

5 Eta orain zuk egindako galderei erantzutera noa: zein jai, alegia, gure aita agurgarri San Frantziskok agindu zigun janari mueta ugariagoz ospatzeko. Jakin beza, bada, zure zuhurtziak, ahul eta gaixoak izan ezik —eta hoiiei abisatu eta agindu zigun ahal genituzkeen jan mueta guztietarik emateko—, osasuntsu eta sendo direnetarik inork ere ez dituela garizumako janariak baizik jan behar, bai aste egunez eta bai jaietan ere, egunoro barau eginez, igande egunak eta Jaunaren Natibitate eguna salbu, zeinetan egunean bi aldiz jan behar baitugu.

Ostegunetan ere, garai jakin batzuetan, bakoitzaren gogara: beraz, barau egin nahi ez duena ez dago barau egitera behartua. Guk, ordea, sendorik gaudenok egun guztietan barau egiten dugu, igande egunak eta Natibitate eguna kenduz gero.

Ez eta ez gaude barau egitera behartuak Pazkoatan —Frantzisko dohatsuaren idazkiak dionez—, Andre Mariaren eta Apostolu santuen jaietan, festa hoiiek ostiralez gertatzen ez badira behintzat; eta lehenago esan den bezala, sendorik eta osasun onean gaudenak garizumako janariak jaten ditugu beti.

6 Halaz guztiz, gure haragia brontzekoa ez denez gero, eta gure sendotasuna harriarena bezalakoa ere ez —aitzitik nola hauskor eta gorputzeko ahulezia orotara erorberak baikara—: erregutzen dizut, maite horri, eta bai Jaunagan eskatzen ere, zuhurtziaz eta begiramenduz aparta zaitezela jan kontuan hartu duzun gehiegizko eta ezinezko lastasun horretarik.

Era horretara, bizirik zaudela Jauna goraipa dezazun, Jaunari arrazoizko den oparia bihur diezazozun¹⁹, eta zure opari hori beti gatzaz gazitua egon dadin.

Jaunagan osasuna opa dizut, neuri neroni opa didan bezala, eta gomenda gaitzazu zeure otoitz santuetan bai ni eta bai nere ahizpak ere.

19. Rom 12, 1.

BEATA INES PRAGA-KOARI (LAUGARRENA)

Santaren heriotza aurrekoa duzu eskutitz un-kigarri hau, Ines bere ahizpa ondoan zuela 1253-an idatzia. Bildotsaren aulki aurrean abesti berria noiz abestuko zai dago Klara.

Maitasunaren su gozotan ditu erraiak Praga-ko Ines bere alabarentzat. Poz betea datorkio harek Kristorekin duen ezkontza harrigarria ikusiaz. Hementxe ematen dizkio titulurik samurrenak laster besarkatuko duen Hari.

Betiko argi denaren dirdaia izango du berehala ikuskizun. Haintza betikoaren ispilua esku-eskura dadukazu, ordea, Ines: ispilu haseran estalpeko Haurra txit behartsu, ispilu erdi-aldean Semea langile guztiz apal, ispilu bukaeran Bera gurutze gorrian maitasun esan-ezinekoz.

Zeruko zoriona, Haren aberastasun eta oho-reak nagusitzen zaizkio Klarari bihotzean. Usai gozoen atzetik ihesi, Maitearekin elkartu nahi du izkutuan.

Agur, maite zaitut, Ines, ezin esan-ahala. Jainko haundiaren Haintzaren aulkira arte.

1 Bere arimaren erdia eta maitasun gozoaren kabia, erregina argitsu, betiko bildots erregearen esposa, Andere Ines-i, ama maite-maite eta alaba guztien artean begikoenari, Klara Kristoren mirabe ezgaiak, eta Asisko San Damianen monasterioan bizi diren haren zerbitzarien zerbitzari ezteusak, osasuna opa dizu, eta baita gainerako birjina santuekin batean Jainkoaren eta Bildotsaren aulki aurrean kantu berria kanta²⁰, eta Bildotsari, dihoan leku denetara, segi ahal izatea ere²¹.


2 Oi neure ama eta alaba, mende guztien erregeren esposa! Zure arimak eta bai eneak ere nahi eta desia-

20. Apoc 5, 9.

21. Apoc 14, 3-4.

tuko luketen bezain sarri idatzi ez badizut, ez duzu hargatik harritu behar. Ez zazula pentsa zureganako duen amorioaren sua zure amaren erraietan bat ere hoztu dela. Hau izan da oztopo bakarra: mandataririk eza eta bideetako arrisku nabariak. Baina orain zure karitateari idaztean, zurekin pozten naiz eta zorionak ematen dizkitzut barnetiko pozaz, Kristoren esposa horri!, zeren munduko huskeria guztiak utzirik, hain miragarriki esposatu baitzinen, beste Ines bat bezala —birjina santu hura, alegia—, orbangabeko Bildotsarekin, munduko bekatuak kentzen dituenarekin.

3 Zorionekoa oturuntza santu honetan parte hartzea eman zaiona! Bihotzeko indar guztiaz Harekin bat egitea ematen zaiona! Harekin, alegia, zeinen edertasunari begiratzen baitiote asperetzeke zeruetako dohatsu talde guztiek. Zeinen samurtasunak tira egiten baitu. Zeinen kontenplazioak pizberritzen. Zeinen onberatasunak asetzen. Zeinen leuntasunak gozatzen. Zeinen oroitzenak ezti argitzen. Zeinen usainera hilak baitira pizten. Zeinen ikuste argitsuak goi Jerusalemgo bizilagun guztiak zoriontsu baititu bihurtzen. Betiereko haintzaren edertasuna²², betiereko argiaren distira eta zikinik gabeko ispilu²³ den Hura.



Begira iezaiozu egunoro ispilu honi, oi erregina eta Jesukristoren esposa! eta ikus ezazu zeure aurpegia etengabe berorrengan. Era horretara osoki hartzaz jantzirik, bai barnetik eta bai kanpotik ere edergailu orotaz eta apaindura nabarrez inguratua²⁴ ager zaitezen, bertute guztien loreez eta soinekoez apaindua, Errege go-renaren alaba eta esposari dagokion bezalaxe.

22. Hebr 1, 3.

23. Sap 7, 26.

24. Ikus Ps 44, 14.

4 Orain, bada, ispilu hontan ageri zaizkitzu pobretasun dohatsua, humiltasun santua eta ezin esanezko amorioa, Jainkoaren graziaz bere osotasunean begiratzeraikoan ikus zenezakeen bezala.

Ohar zakizkio lehenik ispilu honen sorburuari, hau da: trisipuan etzandako eta oialetan bildutakoaren pobretasunari. Oi humiltasun miresgarri eta pobretasun harrigarria! Aingeruen erregea, zeru-lurretako jauna askan etzana! Ispiluaren erdian kontsidera ezazu humiltasuna —pobretasun dohatsuaren laguna—, eta gizadia salbatzeagatik hartu zituen ezin kontatuzko neke eta penak. Ispilu beraren azken aldean, berriz, kontenpla ezazu karitate miresgarria, zeinek eraginik, gurutzeko habearen padezitu eta heriotz-mueta guztietako lotsagarrienean hil nahi izan baitzuen.

Ispilua bera, gurutzeko egurrean jarria, hara nola mintzo zitzaien handik igarotzen zirenei: *Oi zuek guztioz bidean barna zoaztenok, kasu egin zazue eta ikus ea nerea bezalako oinazetik ote den*²⁵. Eta erantzun diezaiogun aho batez eta gogo batez honelako oiuz eta auenez ari denari: *Sekula betikotzat naiz oroituko, eta ene arima enegan da urtuko*²⁶. Oi zeruetako Erregeren erregina, horrela gero eta bizikiago irazeki zaitezela maitasunaren garretan!

5 Gainera, ahal dukezun gehiena kontenpla itzazu haren atsegin ezin adierazizkoak, haren ondasun eta ohore betierekoak, eta bihotzeko irrika eta maitasunik handienaz egizu dehadar: Zerutar Esposoa, erakar nazazu! Zure segizioan, zure ukendu gozoen usainean joango gara lasterka! Laster egingo dut, bai, behin ere etsi gabe, ardoaren gelan sar nazazun arte, zure ezker eskua nere buru azpian jarri eta eskuinak zoramenez besarka nazan arte, eta ahoz-ahoko musu gozoa eman diezadazun arte²⁷.

25. Lm 1, 12.

26. Lm 3, 20.

27. Ikus Cant 1, 3; 2, 4; 1, 2.

Kontenplatze horretan zaudela, gogora zaitez zeure ama gaixo honetzaz eta jakizu zure oroitzapen pozgarria daramadala neure bihotzeko oholen artean ezarria behin ere gal ez dakidan bezala, guztien artean mai-teena zaitudanez gero.

6 Zer gehiago esan? Ixil bedi haragizko mihia zuri dizudan maitasuna azaldu behar denean; eta mintza bedi espirituzkoa, oi alaba bedeinkatua! Haragizko mihiak inolaz ere ezingo luke osoki adierazi zure alderakotzat sumatzen dudan amorioa, idazki hontan erdizka aditzera eman dudan amorioa.

Eskatzen dizut, bada, nere hitzak, arren, onginahiz eta debotki har ditza-zun, eta ikus dezazula hoietan zure eta zure alaben alderakotzat egunoro gartsuki sumatzen dudan ama-gisako amorioa. Zure alaba hoiei zin-zinez, gomenda nazazu ene alabekin batean Kristogan. Nere alabak, eta guztiz ere nere ahizpa Ines birjina zuhurra, zure eta zure alaben gomendioan jartzen dira, ahal duten hainbat, Jaunagan.

7 Adio, alaba kutun, zure alabekin batean, Jainko handiaren zeruko aulkiraino; eta egin ezazue otoitz gure alde. Idazki honen bidez eskutitzaren eramaleak: gure anaia maite Frai Amato, Jainkoaren eta gizonen begikoa, eta Frai Bonagura, ahal dudan neurrian, zure karitateari gomendatuak uzten ditut. Amen.



BRUJAS-KO ERMENTRUDIS-I

Ezer gutxi dakigu zihur Ermentrudis klaratar arrebari buruz. Kolonia-ko zaldun ospetsu baten alaba, ibili luzeak egin ondoren antza, Brujas-en kokatu zen, lagunarte itxian biziaz Jainkoa bilatzeko. Asis-ko Klararen izen onaz zaleturik, zenbait klaratar komentu sor arazi zituen Flandes herrian.

Klara dohatsuak, azken aldera edo, bi eskutitz idatzi zizkion Ermentrudis-i, Wadding-ok dioenez. Beronek ematen duenak bi haien laburpen bat besterik ez dirudi. Bada esaten duenik bigarren eskutitza Ermentrudis-i bidalitako bedeinkapena dela. Hemen, ordea, A. Omaetxebarria-ren argitalpenari jarraitzen zaio.

Eskutitz laburpena, muinez, Klarak hain maite zituen gogaien oihartzun ukaezina duzu.


Asis-ko Klara, Jesukristoren mirabe apalak, Ermentrudis maite-maiteari osasuna eta bakea opa dizkio.

Bihotzeko ahizpa, munduari uko egin diozula jakin dut. Hori dela eta, berealdiko poza nabaitzen dut eta txit miretsirik nauka zure erabakiaren ederrak; eta bai zure lagunekin batean bizibide santua egiten agertu duzun gogo gartsu horrek ere.

Izan zakizkio leial, otoi, zeruko zeurre Esposoari, eta segur izan, leialtasunaren sari hartuko duzula betiko bizitzaren koroia. Neke aldia laburra da, saria berriz sekulakoa.

Itzalaren antzera igaroaz doan munduko distirak ez zaitzala lilura; haren itxura gezurrezkoek ez zaitzatela engaina. Ifernuko herensugeak bere txistu beldurgarriekin izutu nahiko zaitu, baina itxi belarriak eta egiozu gogor kemenez, haiza dezazun arte.

Erne egon, ahizpa maite-maitea, ezbeharretan ez kukiltzeko, eta onaldie-



tan ez harrotzeko. Izan ere, sinesmenak jasoaldian apal eta jausialdian sendo bihurtzen gaitu.

Altxa maiz begiak zerurantz, zeinek gurutzea hartu eta Jesukristori jarraitza gomitatzan baitzaitu: *Neke asko igarorik sartu behar da Jainkoaren erreinuan*²⁸.

Maita ezazu zeure arimako indar osoz azkengabe adoragarri den Jainko hau, eta bai halaber haren Seme jainkozkoa ere, gure bekatuen ordainetan gurutzean josia izatea nahi izan zuen Hura. Harekiko gogoeta salbagarriak ez beza sekula zure arimatik alde egin.

Erabil buruan aspertzeke haren Nekaldiko misterioak eta haren Ama txit santuak gurutzearen oinetan jasan zituen oinazeak. Erne egon eta otoitz egin beti. Iraun azkeneraino zeure bokazioan, pobretasun santuan eta humiltasunean Jauna zerbitzatuz.

Alaba maite, ezeren beldurrak ez zaitzala geldiaraz, *Jainkoa leiala baita bere hitzetan eta santua bere egin-tza guztietan*²⁹. Berak ixuriko ditu zuregain bere be-deinkazioak. Bera izango duzu babes, poz emaile, salbatzaile eta bai sari ere sekula betikotzat.

Egin dezagun otoitz bata bestearen alde, eta hala maitasunaren uztarpe gozoan aisago gordeko dugu Jesukristoren legea.

28. Act 14, 22.

29. Ps 144, 13.

SANTA KLARAREN BEDEINKAZIOA

Hil zorian zetzan Klara dohatsua. "Itzuli zen bere alabengana ta pobretasuna beti maita zezatela gomendatu zien, hartarako Jainkoak emandako hainbat mesede gogoratuaz. Adiskide izandako denak, gizon eta emakumeak, bedeinkatu zituen; andre behartsuen monastegietako erlijiosa guztientzat, oraingo ta gerokoentzat, bedeinkapen ugariaren grazia eskatu zuen" (Legenda 45).

Bedeinkapen honen testorik antzinakoena 1393-koa dugu, alemanera zaharrean idatzia ta Praga-ko Inesi zuzendua. Bertantxe entzuten da hemen Frantziskok eman zituen bedeinkapenen oihartzuna.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-nean. Amen.

Jaunak bedeinka eta gorde zaitzatela. Erakus diezazuela bere begitartea eta izan dezala zuetzaz erruki. Itzul beza zuengana bere aurpegia eta eman biezazuete bakea.

Nik, Klarak, Kristoren mirabe eta gure Aita Frantziskoren landaretxo honek, zuen eta gainerako Ahizpa pobreen Ahizpa eta amak —nahiz eta gauzaeza—, haxe eskatzen diot Jesukristo gure Jaunari, bere errukiagatik, eta bere Ama Maria txit santu eta Mikel Goiaingeru dohatsua eta Jainkoaren aingeru santu guztiak bitarteko jartzen ditudalarik: zeruko Aitak berak eman eta finka diezazuela bedeinkazio guztiz santu hau, bai zeruan eta bai lurlean ere: lurlean, munduko Elizan diren santu eta santa guztien artean ugal zaitzaten grazia eta bertuteetan; eta zeruan hango bertako Elizan diren santu eta santa guztien artean zuek goratuz eta glorifikatuz.

Bedeinkatzen zaituztet, bai bizi naizen artean eta bai hilez gero ere, ahal dudan hainbat eta ahal dezakedan baino ere gehiago, errukien Aitak bere seme alaba espiritualak bedeinkatu zituen eta zeru lurretan bedeinkatuko dituen bedeinkazio guztiekin. Amen.

Izan zaitezte beti Jaunaren eta zuen arimen eta ahizpa guztien maitatzaileak. Eta erne egon beti Jaunari hitz emandakoa zintzo betetzeko.

Jauna izan dadila beti zuekin eta zuek orobat Berarekin izan zaitezte beti eta alde guztietan. Amen.



1. SAN FRANTZISKOREN IDAZKIENA

Aberastasuna: Jainkoa aberastasun, 141
Agintezko kargua dutenentzat, 55
Aingeruak, 134, 137
Aita gorenaren bedeinkazioa, 128
Aldareko Sakramentuaz, 34, 53, 61, 65, 67, 74, 75, 76
Alegrantzia, 44,90
Ama-semeen bizikera bakartegietan, 123
Anai-bizitza, 37
Anai-maitasuna, 46, 88, 93, 117
Anaiei esortua, 102-103...-106, 120
Apaizak ohoratzeaz, 46, 54
Apaizentzat, 65, 67
Argia: Jainkoa a. da, 134
Arratsean Jaunari eskerrak emateko seinalea jo, 74

* *Orrialdea xoilki aipatzen da.*

Babes: Jainkoa babes, 141
 Bakezaleak, 43, 142, 153
 Barkamena Jesusen Nekaldiagatik, 135
 Bazterrik bazter dabiltzan fraideak, 69
 Bedeinkazioa (Frantziskorena), 142
 Bekatariaren heriotza, 58
 Bekatariari penitentzia emateaz, 118
 Bekatuaren morrontza, 57
 Bekatuaren iturburua: norberaren grina, 41
 Bekatuen aitorketa, 53, 72, 101
 Bekatuzko gauzetan ez dago obedientziarik, 87
 Beretzat gordetzea, nagusiaren dirua gordetzea da, 43-44
 Bertuteak, 144-145
 Bertuteek bizioak botatzen dituzte kanpora, 47
 Berritsukeria, 45
 Besteak ez juzgatzeaz, 95
 Besteak kristau hobeak egin nahi dituztenak, 72
 Besteen zorionaz poztutzea, 135
 Besteren bekatuagatik ez asaldatu, 41, 55, 88
 Besteren obrak kontatzea ez da aski, 39
 Bihotzeko garbitasuna, 43
 Biraoak entzutean Jainkoa goratu, 100

Dirurik ez hartzeaz, 90-91, 116
 Dohainetaz jabetzea bekatu da, 36

Ebanjelio santua gordetzea, 113
 Ebanjelioaren arabera bizitzea, 125, 130
 Egian bizi beti, 148
 Eliz Jerarkiari menpetasuna erakutsi, 129
 Emakumeekin harreman txarrik ez izan, 95
 Emale ez eta hartzaile izan nahi duenaz, 43
 Erospena eskertu, 163
 Erregla gordetzeaz, 69
 Erromako Elizari obedientzia gordetzeaz, 121
 Erromes Aitarenganantz, 134
 Errukiaz, 72
 Eske joateaz, 90
 Espiritu Santuaren beharra, 35

Espirituzko pobretasuna, 42
Etsaiak maitatzeaz, 40, 135
Eukaristia, 51

Fede katolikoa gordetzeaz, 100, 113
Fedea, eliza-apaiz eta hitz santuen alderakotzat, 125
Fededuna, Jesukristoren ama, ezkontide eta senide, 56
Fedegabeengana joateaz, 97, 121
Fraideek egin dezaketen esortua, 101-102
Fraideen jantziak, 115, 85
Fraideen Kapituluak, 100, 118-119
Frantziskoren konbertsioa, 124

Gaisoak zaintzeaz, 93, 118
Gaisoari kontsejuak, 94
Gaisotasuna saribide, 148, 153
Gizakume guztiei esortua, 108
Goresmen ereduak, 140-141, 152-153, 136-137
Goresmen eta esker emate otoitza, 106-108
Gorespena on guztiengatik, 152-153
Gorputza gutietsi, 144, 145
Gozotasuna: Jainkoa g. handia, 141
Gurutzeko heriotza, 51

Haintza Jainkoari, 137, 152
Handitasuna; Jainkoarena, 134, 137, 140, 141, 152
Haragiaren arabera bizi denari abisu emateaz, 88
Haragizko bekatua, 96
Haragizko maitasuna ezetsi, 145
Harrokeria, 38, 43
Heriotza: gorespina heriotzagatik, 153
Hilduraketa bertuteak iristeko, 144
Hirutasuna goratu, 136, 137
Honorio Aita Santuaren Bulda, 112
Humiltasuna, 44, 46, 92
Humiltasuna pobretasunaren ahizpa, 144; mundua eta harrokeria lotsarazten du, 144
Humiltasuna Jainkoarekiko gure harremanetan, 153

Idazki santuak beneratzeaz, 76
 Inbidiaren bekatua, 40
 Isiltasuna gordetzeaz, 45, 47, 48, 123

 Jabetzarik ez edukitzeaz, 90, 117
 Jainko Semearen gizon egitea, 51
 Jainko Semearen hitzak hobeto ulertzeaz, 135
 Jainkoa, atsegin eta atsedean, 141
 Jainkoa maitatzeaz, 53
 Jainkoa ohoratu, 136, 137
 Jainkoa on bakarra, 134, 137; on guztien iturri, 134, 139;
 gure itxaropen, 141
 Jainkoaren errukia, 135, 141, 142
 Jainkoaren hitza zabaltzeaz, 60
 Jainkoaren tasunak, 137, 140-141
 Jainkoaren tituluak, 134, 137, 140-141, 152
 Jainkoaren zerbitzua, 137, 146, 153
 Jainkoarentzat bikain dena gizonak txartzat jo ohi dute,
 eta alderantziz, 63
 Jakinduria, 58
 Janaria: Kristoren Gorputza beste janarietatik bereizi, 135
 Jantzia: Maria, Jainkoaren jantzia, 146
 Jauna edertasuna da, 141
 Jaunaren Espiritua desiratu, 120, 135
 Jaunaren Espiritua nola ezagutu, 42
 Jaunartze txarrak, 66
 Jesukristo: gure janaria, 135; Aitak bidalia, 164, 169;
 gizon eгина, 174; gure erakusle, 158;
 Aitaren Hitza, 50
 Jesus gure biziaren egile, 141
 Juzgo txarrik ez egin, 115

 Kanpaiak jotzean Jainkoa goratu, 76
 Karguak zerbitzu bat direla, 38
 Karitatea obedientziaren ahizpa, 144; Jainkoa k. da, 141
 Katoliko izateaz, 54, 127-128
 Kontsejuak gordetzeaz, 55
 Kreatura orok eman dezala haintza, 136-137;
 haiekin gora dezagun Jainkoa, 152

Lagun hurkoaren maitasuna, 53
Lan egiteko moduaz, 89, 116
Legendunak, 91, 124
Lehen fraideen bizikera, 126
Limosna, 54, 92-93
Lotsa, 92

Maitasuna: Jainkoak m. nahi du batez ere, 135
Maitasuna: Aita m. da, 134, 139, 141
Maria, Jainkoaren Ama, 146; Jainkoaren etxea, 146;
dohainez hornitua, 146; gure bitartekoa, 135;
gizakundeagatik ohoratua, 173
Mariaren tituluak, 146
Marta eta Mariaren bizikera bakartegietan, 122
Menpetasuna erakutsi edozein gizoni, 56, 145
Meza bakarra emateaz, 67-68
Ministroen eginbeharrak, 86, 119-120
Ministroengana jotzeko eskubidea, 89, 120
Mixio lurretan nola gobernatu, 97
Moja komentuetan ez sartzeaz, 120
Mojen ardura hartzeaz, 130
Munduari uko egitea, 55
Munduan zehar ibiltzeko era, 96, 115-116

Nahigobeek betiko bizia dakarkigute, 148, 153

Obedientzia, 37, 55, 71, 126-127
Obedientzia, karitatearen ahizpa, 144
Obedientzian iraun, 148
Obedientziatik ihes batetik bestera dabiltzanak, 85
Obrak behar direla, hitzak baino areago, 40, 99
Oinatzak (Jesukristoren-), 70, 83
On eta gaitzeko jakintzaren arbola, 36
Ondasunak: Jauna da o. bakarra, 134, 137, 141;
Jainkoari egotzi o. oro, 137
Ontzi eta idazki santuak beneratzeaz, 68
Osasuna: Jainkoa o. bakarra, 141
Otoitz ofizioa, 69, 127

Pazientzia, 42
 Pobretasun eta humiltasuna, 92
 Pobretasuna gordetzeaz, 126, 129, 130
 Pobretasuna humiltasunaren ahizpa, 144
 Poza: hurkoaren zorionagatik 135; egiazko p.
 pazientzian, 149-150
 Predikariak, 98, 119
 Predikuetan irakatsi behar dena, 76
 Pribilejiorik ez eskatzeaz, 126
 Promesak: Jainkoarenak, 134

 Santuak: haien irabaziek barkamena dakarte, 135;
 gure alde erregutzen dute, 158
 Sekretuak gordetzeaz, 48, (Ikus Isiltasuna)
 Semea (Jainko-), gure ogia, 135
 Sesio eta eztabaidarik ez sortzeaz, 94
 Sinpletasuna, Jakituriaren ahizpa, 144

 Teologia irakasteaz, 78
 Testamentua, Erreklaren osagarri, 128

 Urratsei jarraitzeaz (Jesusen-), 52, Ikus Oinatzak

 Zaldiz ez ibiltzeaz, 96
 Zekenkeria pobretasunak lotsarazten du, 144
 Zertarako bialtzen gaituen Jaunak mundura, 65
 Zerua aingeru eta santuengan, 134
 Zoritxarrekoak bekatuan hilak, 153
 Zuri bestek egitea nahi duzuna, hori egin, 43
 Zuzenketak nola hartu behar diren, 45

2. SANTA KLARAREN IDAZKIENA

- Abatisak ahizpen alderakotzat eduki behar duen
ardura, 184
- Abatisaren baimena behar den kasu batzuk, 191
- Abatisaren hautaketa, 186
- Abatisaren kargua, 186-187
- Ahizpa gaixoak zaintzeaz, 192
- Ahizpei esortua, 194
- Ahizpen aitorketa eta jaunartzea, 186
- Ahizpen arteko elkar maitasuna, 192, 203-204
- Ahizpen baraua, 185
- Ahizpen bisitatzaila, 196
- Ahizpen buru denak zer-nolako behar duen izan, 204
- Ahizpen janari mueta eta barauak, 219
- Ahizpen obedientzia, 182, 204
- Ahizpen otoitz-ofizioa, 185
- Azken borondatea, Frantziskok Klarari idatzia, 190
- Azkeneraino irauteaz, 204
- Batasun eta pobretasunezko bizimoldea, 181
- Besteren bekatuagatik ez haserretzea, 193
- Bokazioaren bikaintasuna, 199
- Ebanjelioa gordetzea, 182
- Erne egon, Jaunari hitz emandakoa betetzeko, 227
- Fede katolikoa gorde, 183, 197
- Frantziskok Klarari idatzitako bizimoldea, 189
- Gehiegizko laztasunetik apartatzeaz, 219
- Gizonaren arima, Jainkoaren bizileku, 218
- Gorputz mistikoaren zati argalen altxatzaile, 217
- Hartutako asmotik ez okertzeaz, 214
- Isiltasuna monasterioan, 188
- Itxiturazko eta pobretasunezko bizitza, 181

Jabetzarik ez edukitzeaz, 190, 191
 Jainko Semearen oinatzai jarraitzeaz, 201
 Jasoaldian apal eta jausialdian sendo egiten gaitu
 sinesmenak, 224
 Jesukristo pobre eta humilaren urratsen segizioa, 216
 Jesukristoren ama, esposa eta arreba, 210, 211
 Jesus gurutziltzatuari begiratzeaz, 215

 Karitatearen kontrako huts egiteak, 193
 Klara eta haren ahizpak, Frantziskoren landaretxoak, 203
 Klara eta haren ahizpetaz arduratzen da Frantzisko, 201
 Klara, Frantziskoren landaretxoa, 182, 201, 226
 Klara eta haren ahizpek Frantziskori hitz emandako
 obedientzia, 189
 Klausura gordetzeaz, 195-196
 Kontenplazioaren bidez Jainkoaren irudi bihurtzen
 gara, 217
 Kristo eta haren Amaren oinatzai jarraitzea, 181
 Kristoren ispiluan kontenplatu behar diren gauzak, 222
 Kristoren oinatzai jarraitzea, 214

 Lan egiteko era, 190

 Monasterioko kontuak kanpoan kontatzeaz, 194
 Monasterioko mintzategiaz, 188
 Monasterioko ofizialeak hautatzeaz, 187

 Nekaldiko misterioak buruan erabiltzeaz, 225

 Pobretasuna gordetzeaz, 202
 Pobretasunaren beharra, 211-212

 Reinaldo, Ostia eta Velletri-ko apezpikua, 181

 San Damiango elizagintzan ari zenean Frantziskok
 esana, 199
 San Martinen garizuma, 189
 Senitartekoek ahizpa bati zer bait bialtzen diotenean, 191
 Soineko arruntez jantz bitez ahizpak, 184
 Susmo txarreko traturik ez edukitzeaz, 193

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK

- * R. de Legísima ta Gómez Canedo: *Escritos completos de San Francisco y biografías de su época* (BAC 1971).
- * Talde lanean: *Frantziskoren idazkiak eta bere garaiko biografiak* (BAC 1977). Gazteleraz hobeto itzulia, azkenengo azterketen arauera.
- * Esser, K.: *Die opuscula des Hl. Frantziskus von Assisi* (Grottaferrata 1976). Idazkien testo jatorra ezagutzeko beharrezkoa.
- * Desbonnets, T. eta Vorreux, D.: *Saint François d'Assise* (Paris 1968). Idazkiak eta lehen biografiak, sarrera ugariz.
- * *Nuestro Itinerario* (Cefepal 1974). Frantzisko ta Klararen idazkiak gairik-gai sailkatuta.
- * Esser, K.: *La Orden franciscana, Orígenes e ideales* (Arantzazu 1976).
- * Iriarte, L.: *La vocación franciscana* (Valencia, 1976).
- * Felder, H.: *Los ideales de San Francisco de Asís* (Buenos Aires 1948).
- * Garrido, J.: *La forma de vida franciscana* (Arantzazu 1975). Teoloji sarrera Frantziskoren Erreglarako.
- * Esser, K.: *Temas espirituales* (Arantzazu 1977).
- * Leclerc, E.: *El cántico de las criaturas* (Arantzazu 1977).
- * Omaetxebarria, I.: *Escritos de Santa Clara y documentos contemporáneos* (BAC 1970).
- * Iriarte, L.: *Letra y espíritu de la Regla de Santa Clara* (Valencia 1975).
- * Hardick, L.: *La espiritualidad de Santa Clara* (Barcelona 1968).

IDAZLANAK

SF: Selecciones de Franciscanismo.

CFR: Cuadernos Franciscanos de Renovación.

VV: Verdad y Vida.

EF: Estudios Franciscanos.

- * Cambell, J.: *Los escritos de San Francisco ante la crítica*. SF 1 (1972) 61-67.
- * Hardick, L.: *Génesis y observancia primitiva de nuestra "Forma de vida"*. CFR 13 (1971) 26-57.
- * Hardick, L.: *Origen y formación de la Regla franciscana*. CFR 24 (1973) 115-240.
- * Esser, K.: *La Regla definitiva de los hermanos menores a la luz de las recientes investigaciones*. "El franciscanismo en renovación" bilduman, Cefepal 1970, 123-161.

- * Esser, K.: *Características y espiritualidad de la Regla franciscana*. SF 10 (1975) 5-10.
- * Ghinato, A.: *La Regla de los hermanos menores en el contexto de los escritos de San Francisco*. CFR (1974) 17-39.
- * Iriarte, L.: *Lo que San Francisco hubiera querido decir en la Regla*. EF 357 (1976) 375-391.
- * Omaetxebarria, I.: *El "Espíritu" en la Regla y Vida de los hermanos menores*. SF 8 (1974) 192-211.
- * Iriarte, L.: *La Regla franciscana "Forma de vida" para nuestro tiempo*. CFR 24 (1973) 197-206.
- * Matura, T.: *La primera Regla franciscana ante nuestras preguntas*. CFR 24 (1973) 207-224.
- * Ghinato, A.: *Para una lectura actual de la Regla*. SF 10 (1975) 66-94.
- * Esser, K.: *La Regla franciscana y la vida moderna*. VV 20 (1962) 465-474.
- * Schmucki, O.: *La meditación franciscana*, SF 7 (1974) 41-50.
- * Toppi, F.J.: *Espíritu y vida de oración de N. P. San Francisco*. SF 7 (1974) 24-34. Ikus ale berean beste lan batzuk gai berdinaz.
- * López, S.: *Carácter peculiar de la oración franciscana*. VV 22 (1964) 119-143.
- * Schmucki, O.: *Francisco, juglar y liturgo de Dios*. SF 8 (1974) 134-164.
- * Beguin, P.: *El hombre frente a Dios según San Francisco*. VV 135 (1976) 411-430.
- * López, S.: *Transcendencia y exclusividad de Dios en San Francisco*. SF 3 (1972) 52-68.
- * López, S.: *El Dios para quien bailaba Francisco*. VV 133 (1976) 33-55.
- * Anai Eguzkiaren eresiari buruz: SF 13-14 (1976). Zenbaki osoa hortaz.
- * López, S.: *Cristo, suficiencia de Francisco*. VV 115 (1971) 327-366.
- * Beguin, P.: *Francisco alcanzado por Cristo*. CFR (1976) 103-110.
- * Ventosa, F.: *La devoción a María en la espiritualidad de San Francisco*. EF 62 (1961) 249-274; 63 (1962) 5-21; 277-296.
- * Beguin, P.: *Unidad y sencillez en la Espiritualidad Franciscana*. CFR 12 (1970) 274-292.
- * Omaetxebarria, I.: *Inspiración teológica en los escritos de San Francisco*. VV 102 (1968) 227-261.

- * Beguin, P.: *Visión de Dios en San Francisco*. VV 137-138 (1977) 47-71. *Dios-el hombre-el mundo en la visión de San Francisco*. CFR 34 (1976) 110-131.
- * Iriarte, L.: *Visión del mundo en San Francisco*. VV 137-138 (1977) 79-119.
- * López, S.: *La pobreza, vacío para Dios*. SF 4 (1973) 60-77.
- * Schampheleer, J.: *La pobreza evangélica y la pobreza franciscana*. SF 4 (1973) 42-59. Ikus ale berean beste lan batzuk gai berdinaz.
- * Aspurz, L.: *La "Altísima pobreza" franciscana*. EF 68 (1967) 5-47.
- * Esser, K.: *El misterio de la pobreza* (Pobretasun ideala San Frantziskoren arabera). "El franciscanismo en renovación" bilduman, Cefepal 1970, 173-183.
- * Esser, K.: *Comprometerse a ser libre* (Obedientzia San Frantziskoren arabera). "El franciscanismo en renovación" bilduman, Cefepal 1970, 23-33.
- * Esser, K.: *Autoridad y obediencia en la primitiva familia franciscana*. SF 3 (1972) 17-30.
- * Aspurz, L.: *La "obediencia caritativa" en la doctrina de San Francisco*. SF 70 (1969) 303-328.
- * Esser, K.: *La libertad de amar: la castidad y la virginidad según San Francisco*. CRF 9 (1970) 29-39.
- * Esser, K.: *La misión apostólica de los hermanos menores*. CFR 14 (1971) 77-96.
- * Ara, S.: *El espíritu de trabajo en la Regla franciscana*. EF 68 (1967) 49-68.
- * Esser, K.: *Exhortaciones de San Francisco: 6ª La imitación del Señor*, SF (1975) 297-302. 15ª *Bienaventurados los pacíficos*, SF 8 (1974) 210-215. 17ª *El humilde siervo de Dios*, SF 2 (1973) 185-189. *Exhortación decimonona*, SF 3 (1972) 69-74. 21ª *El religioso auténtico y el religioso vacío*, SF 10 (1975) 98-104.
- * Beguin, P.: *Actualidad de Santa Clara: introducción a sus escritos*. CFR 10 (1970) 67-98.
- * Lainati, C.A.: *La Regla franciscana y la segunda Orden*. SF 10 (1975) 11-26.
- * Omaetxebarria, I.: *Evolución de estructuras en la Orden de Santa Clara*, SF 5 (1973) 135-150.
- * Larrañaga, I.: *Líneas de renovación para las franciscanas contemplativas*. CFR 20 (1972) 239-266.
- * Larrañaga, T.: *Renovación franciscana de las Clarisas*. CFR 10 (1970) 119-129.